



irakasleen liburutegia

ZENBAIT AHOLKU  
GAZTEENTZAKO

C. FREINET

«Gauza Harrigarriak» liburu sorta dela bide «Iñaki Beobide banatzailea»ren babespean.

«IRAKASLE ELKARTEAK» eragina.

LARRESORO-K euskeratua.

D. L. S. S. 595/72

Iñaki Beobide  
Ferrerías, n.º 1-acc. 10  
San Sebastián

Iñaki Beobide  
DONOSTIA  
BANATZAILE BAKARRA

---

IZARRA IRARKOLA - PEÑA Y GOÑI, 13 - DONOSTIA

## AURKIBIDE

Hitzaurre .....	7
S. O. S. batzuri erantzunez .....	15
Arazoaren egoera .....	23
Hortaz, zer dira Freinet-Teknikak? .....	33
Eskolatzaille modernoaren jarraipidea .....	47
Gure ikastaldeen lan-erakunde berriaz .....	75
Osoki erabili behar dira Freinet-Teknikak .....	87
Lan berriaren erregelak .....	93
Lan-teknika berriaren gailentasuna .....	101
Ez ahal dira zailegi teknika berriok? Ez ahal da eskolatzaille aparta izan behar? .....	109
Hona hemen, lagun gazte hori, edonun egin dezakeana .....	129
Gidari eta laguntzaile, liburu-sail bat .....	143

## HITZAURRE

*Freinet-ek, eskola zaharraren maiseakuntza egiten hastean, 23 urte zuen, eta hasi-berria zen erakaskintzan. Hau aspaldiko eran eramatera ez zuen uzten gudu hartutako birika-zauri larriak: alegia, maisuak haurra zanpatuz eta aginpide gogorrez hartuz. Kondairari dagokionez materialismo dialektikoaren argitan beste ulerpide berri bat zekarren; eta horretara, gero eta irmoago zeuden haren izpirituan pedagogia atzerakoiaren kontrako arbuioa eta gaitzespena. Pedagogia-mota hura, gizartekiro atzerakoia, mutua zen klase-etsaigoari buruz; eta horrela sozialismoruntz ausarki abiatu diren herrien helburuari dagokionez, eskasia eta laido iturri zen.*

*Handik urte batzutara, eskuartean harturik zedukan Freinetek bere pedagogia-lanabes nagusia: Moldiztegia Eskolan. Berrikuntza honek, hain zuzen, eskolako giroa eta teknikak errotik aldatuz, lehendabiziko jarraitzaileak erakarri zizkion. Freinet bera bezain gazte eta bero,*

eta nazioarteko fazismoaren goraldia mamitzen ari zelarik, gertu zeuden haiek maila guztietan burruka egiteko. Horrela sortu zen, eta antolatu, lanean hasteko prest, ideologia iraultzaile baten arabera eta heziketa-helburu soilak gidari, herriaren eskola berritzea erabaki zuen multzo bultzatzaile bat.

Haseratik beretik berrikuntzaren alde agertu zen talde-lan hura, eta bere bultzadarengatik, bere zabaltasun eta ausardiarengatik, are bere ausarkeriarengatik berengatik ere oso maiz, gaztaro-lan gisa ageri zen errotik. Bazedukan horiekin batera, jakina, bertutea franko: umotasun goiztarra, gehienen aldeko ekintza-ren-nahia, gizarte berrituarentzako eskola-bizimoldearen giza-razionalizazioaren bilaketa. Horregatik, beti tente eta irmo, beti pedagogia burrukatzaile gisa, hogeitahamar urte baino gutxiago zutenen ekintza bihurtu zen.

Egia esan, biziera guztian barrena gaztaro-baloretz hornitua izan zen Freinet-en erakaspena. Zergatik? Haren nortasun oso-osoa, edonolako norkeria eta auto-propaganda guztietatik at, besterentzako zerbitzutan oratua zelako. Bizia indarrari buruz Freinetek zedukan konfiantza guztizkoa zelako; eta jende-osteen senazko oldarra ulertzen, zuzentzen eta antolatzen dohain berezia zuelako. Freinetek bazekien gaurko egoeratik abiatuz indarrak sortzen eta bateratzen, elkar-erantzukizun bati buruz joanarazten, eta etorkizuna moldatzen beraz. Deseginez eta porroskatuz jokatzeko zuen, egia da; baina denbora berean jasotzen eta eraikitzen ere bai.

Gaztaroan (adinaren ezagugarria!) denak dirudi egingarri eta bururatzeko modukoa. Frogarik gabe, senaz,

*datorkigu konfiantza. Besterik gabe geure burua azkar eta sendo antzematen dugulako. Etengabeko pilaketa hutsa den gure kultura-motaren leloek, oraindik liluratu ez gaituztelako. Pilaketa esan dut, zientziak ezaguera berriak pilatu ondoren, nola balia edo haietaz zer egin ez dakielako. Konfiantza ere bai, azkenik, kontrolaturik ez dadukan bilaketa muzindurik, zientzia konformista adoskoiaren pisuak zeharo zanpatu ez gaitulako. Zientziaren gehiegiak kalterik baldin badakar, ez da hori kaso; zeren-eta gaztea bakarrik eta biluzirik bait dago hastapenetan, eta, egiaren bila abiatu-rik, gerta bait da- kioke agian goiztar etorri bala batek argitua izatea.*

*Alferrik da, hortaz, abiatzen direnentzako errezetak eta kontseilu hextuak ematea; alferrik, era berean, jarraitzeko ereduak proposatzea, nahiz hauek, barnez eta azalez, izan daitezkean onenak izan.*

*Gazteriari bost axola zaizkio gauza osoak eta ongi lotuak eta burutuak, akatsik gabeko gauzak bizieraren aldakortasunarekin gaizki ezkontzen direlako. Hobe dira, hain zuzen, horrelakoak erakus-tokietan uzteko.*

*Burutu gabeko gauzek, berriz, gauza marketsek eta osatugabeek, ekai onez eginda ere saiatzen ahal direnek, bultzamena eta ausardia erakartzen eta deitzen dituzte. Gauza horiek alderdi onetik hartzen jakitea da beharrezkoena; alegia, ekintzarik egokienerako bideak zabal ditzaketen muturretik. Giltza horiek eskaini dizkie Freinetek bere lankideei; eskolarik apalenetan ere — herriko eskoletan, alegia — benetako lana egin, eta heziketarik zabalena ohoraturik gerta dedin. Honela jokatzuz, erakasleen klaseari dagozkion kondaira-eginkizunak beteko dira.*

*Betekizun eder hori abiarazteko, gazte pentsakera bat behar zen, gazte kemen eta sinestea. Gazteek ez bestek lanegin dezakete horrela guztiz elkarturik, nor-keriarik gabe, ustekizunetatik eta zalantzetatik at. Horregatik lortu zen haseratik, administrazio-mugaketa-rik gabe ere, ororen eskolan, eskola publikoan, ekin-tzaren eta sortzapenaren jarraitasuna, eta honek eman zituen fruitu ederrak. Gaztaroan ez bestetan lor dai-tezke, erreflejo-bidez, errealtatearen araberako molda-keta etengabeak; ezagueraren hedakunde berri bat osa daiteke, eta gizonaren patua alda.*

*Errazki ulertzen da, horretara, Freinetek beti izan zuen kezka iraupena: alegia, bere pedagogi-berrikun-tzan, oraindik ere kutsaturik ez zeuden erakasleak bi-latzea eta hautatzea. Eguneroko lanetara abiarazten zi-tuen, berri eta kementsu; eta haseratik beretik, berezko edo oldezko bultzarena oinarritzat dadukaten heziketa-bideak proposatzen eta harrerazten zizkien, Haztamuz-ko Saiakuntzaren legeen arabera gomendatuz.*

*Bilduma apal honetan presentatzen ditugun artiku-luek xede hori hartu dute gidari. Gauza ezagunen sa-kontasuna eta xinpletasuna darie. Ezen batzutan izpi-ritua, sasi ezaguerek eta alferrikako jakinduriak nar-daturik, berritu egiten bait da osoki, bigarren aldiz sor-tuz; eta orduantxe jaio ohi bait dira hartan egia ximple horiek. Gizonaren balioa goratzen duena asmatzean edo sortzean, eta gizarte gainbeheren adoskeria eta eros-keria arriskutan jartzean bir-jaiotzen bait gara.*

*Ardatz gisa pedagogia hutsa harturik, itxuraz, bil-duma honetan elkartu diren izkribuek, dialektika dela bide, pertsonaren eta gizartearen muintan datzan kon-*

tradizio eta etsaigoaraino eramango gaituzte. Gori-gori dauden arazoak dira horiek; eta hortaz, ezinbestean, gazteriaren arazoak ere bai. Freineten izkribu hauek gazteak lagunduko dituzte abiatua den pedagogia eta gizarte iraultza aurrera eramaten.

E. F.



## MORROINKERIAREN ZAMA

— *Gure ardiak zozoak direla esan ohi da. Baina geuk zozotzen ditugu, aiderik eta argirik gabe estalbia hestutan metatzen ditugarik: artzaina edo harakina agertu artean, ez dute han lur-zapatzeaz eta marraka ari izateaz beste erremediorik.*

*Era berean, geuk zozotzen ditugu ardiak, mendi be-tean zigorraren eta zakurren mehatxupean xeru-xeru erretira eta bilarazten ditugarik; ezen aintzindari diren ahari adar-luzeak berak ez bait daki, jakin, nora doan, bidetxigorretan barrena norat ari den, ez artaldea atzetik nora daraman ere; nahiz taldeko aharia delako oso harro egon.*

*Askatasun entsegu guztiak; aharitxo gazteek bide ezagunetatik irtetekotan egiten dituzten pikardiak oro, laharren eta sasien artera errebelatzeko, edo harkaitzen artean luzatzeko (nahiz eta harramazka eta hortz-*

-karraska batzuk baizik ez ekarriz) dena ebakiko dugu guk zirt-zart; eta horrela geronek egiten ditugu zozo eta txaldan.

Desenkusagarriak gara gu, halere: gure helburua ez da ardiak argitzea, pairatzen eta dagoena onartzen erakastea baizik. Areago: artaldearen eta morrontzaren legea desiratu ere egin behar dute, koipe lodia eta etekin oparoak morroinkeria horretxek eman ohi dituelako.

Beren eskola-estabietako ate hertsiez bestaldetik entzuten ditut nik oraindik haurra, kantari omen — marra ari esateko zorian egon naiz... Ene! — baita eskola-estabia apain dotoreetan ere. Sartzean eta irteteen zorua zapaltzen ari ikusten ditut; eta, benetan, deusik ere ez da falta: ez aharirik, ez artzain gogorsko larderiakoirik, ez gure zigorrak eta zakurrak bezain gogorra den araudirik. Orrialdeak batera pasatzen ikusten ditut, hitz berberak batera birresaten, sinu berberak egiten...

Gero, ordea, zapalketari lotsagarriro horiek beso eskaintzeaz harritzen zarete! Edo, ardiak mataderirakoan bezala, beren burua sofrikariotara eta gudura ematen dutelarik zurtzen! Zergatik horrelakorik?

Morroinkeriak makaldu eta zozotu gaitu.

Bizitua izan delako (arriskutan zehar bizi izana, batzutan) ezagutzen den saiakuntzak, berriz, lanegiteko eta gizonkiro bizitzeko balio dezaketen gizonak sortuko ditu.

Ez zazue onar eskolako morroinkeria.

Merezi zazue zeron askatasuna!

## S. O. S. BATZURI ERANTZUNEZ

Frantses Eskolaren trajeria osoa, erakasle gazteen trajeria, mintzo zaigu eguneroko deihadarren eta SOS-en bitartez:

*«Antzinako eskolak zeharo aspertzen gaitu. Honek ez du dudarik; eta egin dituzun kritikak biziki ongi konprenitzen ditugu. Sinetsita gaude, bestalde, eskola zuk pedagogiak eta giza-salbazioak behar duten aldera gidatzen duzula. Baina zerorrek esan duzu ezin hobeki: Eskola Berria ez da berriketaz eta kalakaz oratzen eta eraikitzen!... Hots, guk tresna gisa ez dugu geure txistuaz besterik... Txiroa da ene eskola, ondoko giza-inguramendua oso txiroa da ere, eta batere ez ulerkorra... Zuk aipatzen duzun tresneriaren beharra delata, udaletxeko kontseiluak ez dit behin ere sosik eman-go... Gerizaturik eta beroturik besterik gabe, oso pozik gaude hemen; eta oso pozik gero... Oso pozik geure*

*gelatxo txikia betetzen duten aulki zaharretan exertzen garelarik!...*

*Horren sinistituta gaude zure erakaspideaz, erosi beharrekoak geure poltsikutik ordaintzeko gertu gina-keala. Baina, ezagutzen dukezu erakasle gazteen miseria gorria!...*

*Horra hor guretzako, gazteontzako, nola presentatzen den Eskola Berriaren arazoa. Hots, zure aholkuek eta bilaketek beste erakasle mota bat ikutzen dute: tresna batzuk bederen erosteko mauka duena; fitxak, polikopi-orea eta moldiztegi bat eros ditzakean taldea.*

*Bestetik, ordea, ez orain ez berehala deusik dugu-  
nuok, zer egingo? Zer aholku eman dizaidakezu? Ezer-  
txo ere ez egitea? Egun hoberen beha jarri? Segituan  
abiatuko? Nola abia?*

*Lagun gaitzazu, otol!»...*

Kooperatiba-gisako gure eginahal guztiak, hain zuzen, ardatz hori du: erakasleei, eskola-emaleei, eman behar zaien laguntza; edo, hobeki esateko, elkar-lagintza horrek taxaturik eta funtsaturik denek elkarri emango dioten laguntza. Gazteak, noski, ez dira kezka horietatik libro. Baina ohituago gaude lan eta bizi-aukerak ahalean ematen, aholkuak eskaintzen baino.

Bere baserriak etekizunik ematen ez diolako, biltzen duen uzta urria delako, eta, hitz batez, bere bizimoduak nazkaturik dadukalako, zurekin mintzatzera etorri da halako batez baserritar gazte bat. Orain egoera eta bizimodu gizatarrago bat bilatzen du bere indar guztiez.

Guk, beste hainbestetan bezala, ondoko puntu hauek aipatuz erantzun genizaioke: mendiko goizaren xarma paregabea dela; ilunabarraren ederrak, eta intxaurrondo baten itzalean jaten diren ogiak eta gaztak duten erlijio kutsuak, ez dutela kiderik. Eta abar... Lurra maite eta zerbitzaten dutenekiko, Lurra ez dela inoiz amaizun gertatu... Istant batez, bizkortu egingo genuke geure baserritar etsia. Pratikan, ordea, eta oso azkar, gure predikuaren hutsa erreparatuko luke; eta funtsean, beraz, haren erabakia gerturatzeaz besterik ez genukean lortuko.

Karitatezko betekizun alfer hori, gu baino usatuago eta iaioago diren beste batzuen eskuetan utziko dugu, hortaz.

Gu gizontasunaren eta adimenaren hizkeraz mintzatu gatzazkizu; zure egoeran geundenean entzun nahi genukean hizkeraz, alegia.

Zaude sinetsita: biziaren esperentziak gero eta pisu handiago du. Hots, biziaren eskolak eta esperentziak aholku hau emanarazten digute:

Giza-helburuari dagokionez, gogor egon zakizkio, eta hertsiki atxik! Ahal baduzu, gailurretan egun kementsu beroetan piztu zenituen suak susta itzazu: hauek, argia kordoka eta ahuletan beharbada zenbait aldiz, gorako bidea erakutsiko eta argituko dute.

Igotzerakoan, halere, ez duzu bapatean harkaitzetara eta murruetara joko; laisterrago heltzeko asmotan, ez zara zuzen-zuzenean abiatuko, langak eta harresiak gaindituz eta porroskatuz... Estakuru edo traba pilo hori

ikusita, berehala etsiko zenuke; argia itzaltzera utziko zenuke, eta, behereko aldera begiraturik, ez zenuke makurraz eta lokatzaz besterik somatuko.

Burubide apur bat izan dezagun: jadanik markaturik dauden bidetxiorrak har ditzagun, eta behaztopa-guneak ingura; badagoena baliatuz, egiazkoari itsats gakizkion. Oso azkar ez goazen bihozkada izango dugu batzutan, are nagiro eta polikiegi ibiltzekoa ere. Bost axola! Egon bedi garra gailurretan, eta argi gaitzan gauaz. Hori da gakoa.

Gauza bera pedagogian. Oraindik ere gogozago geure ekintzaz geure erakaspenez baino, su horiek piztu nahi genituzke gailurretan; behin gutxienez, eskolastika gaintzen duten ideia eta teknika horiek ulertarazi nahi genizkizuke, giza-xedeen eta patu bereziaren lerroan egokitzen bait dira horiek bete-betean.

Horra hor funtsezko gure lana. Su horiek irazekita daudenean, eskolastikatik at erakasle gazteek lan-bide eta bizi-bide sustatzaileak ikusten dituztenean, orduan argirako bidaia horretaz ez dugu bildurrik batere izaten. Orduan ez duzu zeure ikastaldeetan ezinezkorik bilatuko; eta teknikaren aldetik beretik ezinezkoa dena, baztertu egingo duzu; zeren, garrari eutsiz, beste biderik hartuko bait duzu.

Ezen, ene lagun gazte hori: egia esan behar diat orain.

Hire nagusi eta behartzaile diren diru eta teknika baldintza batzutan, ez haiz oso urrutira joango hezibide berri hauetan barrena.

Hein batez bai, jakina! Urrats handi bat egin dukek beti: gailurretato argiak argituko hau, heure klasea eta egitekoak beste modu batetara moldatuko dituk, eta heure lana beste helbururen arabera antolatuko. Agin-pideen huskeriaz jabeturik, talde-lanak hartuko dituk gidari, eta gogoz sartuko haiz jokoan. Berriketaren hutsaz etsita — bai heureaz, bai liburuetakoaz — ez haiz aurrerakoan harrituko, kanpoko zaratentzako haurra beti erne, hire azalpen intelektualek gaingiroki ere hun-kitzen ez dutela ohartuta. Funtsatutako lanaren eta ahaleginaren bertute apartak ulertu dituzkek. Eta hau ikasi dukek batez ere: pertsona ez dela inguratzen duen gizarotik berezten ahal, alegiazki eta hotzean es-kolastika abstraktoan barrena abiatzeko.

Hori guztia jakingo duk. Eta heure jokabidea horren arabera egokituko duk.

Eta hemen edo han bazterrera jo behar baldin ba-duk, edo eragozkarri larriren bat aurkitzen, ez haiz harri-tuko. Konpreni zak, egon adi patxaran... eta garrari eutsi!

Horretaz jabeturik, guk hiri hau esatea onartuko duk: alegia, badagoela lilura handi bat; eta hiri hilgarri gerta dakiakealako eta garra itzal, libratu egin nahi haugula. Laister esaera arrunt bihurtuko duk hau, baita ofizial ere: eskola txiroetan beretan, baita tresneriarik gabe, eskola berria egin daitekeala.

Mesfida adi, otoi! Gaur horrela mintzo zaizkikan horietxek, orain dela zenbait urte teknika berriak herri-ko eskolan sartzea eta erabiltzea (tresneria eta guzti!) utopikotzat eta arrisku-iturritzat salatzen ziaten. Hitez-

ko eta berriketazko pedagogiak egiten duen azkeneko oldarraldia ikusten diagu, beraz, geure begien aurrean. Teknika modernorik erabiltzerik ez baduk... azal zak zer den, eta kito!

Guk geuk gauzak argi-eta-garbi ikustea nahi diagu; ez gaituk bezero bila ari, ezta ospe bila ere. Bezeroak eta ospea, gainera, bestetarik heldu ohi dituk aisago...

Aholku bat eman nahi diagu. Hi baino lehenago urratuak gaituk harkaitzetan eta elorrietan. Baina garreruntz doazen bide batzuk aurkitu eta prestatu dizkiagu; segurantzian aurrera joan gaitzekean tresna batzuk moldatu eta finkatu dizkiagu. Eta aldapa gogorregia denean, elkarri laguntzeko gertu egongo gaituk denok, anitz bait dago oraindik eginkizun... Oraingoz hik herorrek lanabes horiek balia ezin baditzakek, lagun gaitzak halere, hire ondotik etorriko direnentzako eskuragarriago izan daitezen.

Heure ausardia guztiarekin abiatuko haiz horrela, heure ausarkeria batzurekin ere bai; baina heure auke-rak eta ahalmenak hobeki neurtuko dituk haseratik.

## ITURRIA JAUZARAZTEA AURRENIK

*Haurrek bezala jokutzen dute pedagogilariak. Lekurik errazena iruditzen zaien eskualdean eraikitzen dute haiek beren putzua: alegia, harkaitzik eta elkarri lotutako sustrai zailik ez dagoen puntuan; eta, hortaz, baita lanabes basto soilez ere baliaturik, lurra zulatu eta mogitu egin dezaketen tokian.*



Gero arduratuko dira ura ekartzeaz, putzua eratu ondoren alegia. Beharbada ura txit urri aurkiturik, ordea, edo harako ubide horren aldapa ahuletan moldaturik, baliteke, diot, ur-xirripa oso nagiro aurreratzea, eta belar-izpirik xumeenak dena gelditzea eta galeraztea.

Arte horretan, bestalde, horren poliki betetzen ari, agortu egingo da, pitzatu egingo dira paretak, eta horren nekez bildutako ur apurra bera galduko du. Alferrik izango da orduan arraildurak kukutzea eta estaltzea: ezertarako balio ez duen ur zikin pilkortatsu lodirik erabiltzen ez badugu bederen. Zuloa ireki beharko dugu, beraz, eta kondarrak pausatzerantz utzi. Edo bestela, aldameneko iturritik garraiatu beharko ditugu ur-suilak ugari, artifizialki horrela putzua beteaz. Honek, noski, lipar batez, eta ur-suila gehiago eta gehiago garraia dezagun artean, liluratu egingo gaitu, ura argi eta garden agertuko bait zaigu.

Gure menditarrek, berriz, ondo dakite hastapenetik hasten. Iturria aztertzen dute aurrenik. Ez ordea ibarrean behera abiatua den erreka edo latsa bakarrik; baina, sakonean ere eta irakinaren itxuraz, harri tartean fresko aratz jauzten den ur xirripa ere bai.

Iturria aurkitua duelarik, ura ausart eta indartsu jauzten delarik, erraza da askaraino jarraitzen; eta honetan gainezka bildurik, urtirak bidean barrena bildu dituzkean txotxak eta abarrak aska-hesiaren gainetik botatzea.

Ez gaitzatela lilura, beraz, eskolastika zaharrak eremu lehorretan pilaturik zeduzkan teorlek, eta oroitzapenez eta oharketaz moldatzen zituen putzu bitxiak. Ez gaitezen neka, otoi, haren zulo itsusiak kukutzen, ur-

*-suilak garraiatzen, eta ore moldakaitz bizigabe kirats hori eragiten. Geure iturrietara gaitezen; harri tartean eta sakonean irakiten ari dirudien uxola bila dezagun; ur-tira jarrai dezagun, eta utz dezagun presaburuen eta asken gainetik ausarki isurtzera. Horrela biziak oparo eskaini dizkigun ondasunak heziz eta baliatuz eraikiko ditugu geure ur-putzuak.*

## ARAZOAREN EGOERA

Europako herrialde zaharretan, USA bezalako erresuma gazteagoetan; URSS-en bezala, gizarte eta politika aldakuntza sakonen abantaila izan dutenetan, eta han eta hemen beren burua askatzen eta hornitzen ari diren herrietan, lanegiteko eta bizitzeko baldintzak gero eta laisterrago ari dira aldatzen; eta honek, maila guztietako kultura-elkargoei, eta herri guztietako erakasle guztiei, bazterrean utz ezin daitezkean problema berriak ekarri dizkie.

Hots. ezer ez zaie antzinako moldeei itsukiago eta ermukiago itsatsi, heziketa elkarteak baino. Bai pribatuak bai erresumarenak. Industria berritu egin da; burnibideak eta Posta-Telegrafoak eraberritu egin dira. Armadak berak bere teknikak, bere jokabideak eta bere lizifrinak aldatzen ditu. Eskolak, aldiz, eta eskolak bakar-bakarrik, orain dela zenbait mendetatikako erregelen arabera jarraitzen dio bere eginkizunari, lanabes eta

teknika bereberekin. Eta inor ez da ikaratzen. Areago: heziketa eta kultura baten bila abiatzen diren herri berriek, ez dute eredia aintzindarien eta berrizaleen saiakuntzetan hartzen, enpirismoaren usadioan eta praktika arruntean baizik.

«Eraberritzea eta egokitzea, ala hil» esan badaiteke lantegiez, zer esan beharko ote litzake heziketari buruz! Ezen honentzako ere hautu bera bait da: berritzea ala hil. Hots, Eskolaren heriotza eta gainbehera, nazioen gainbehera da.

1958-ko gizarteak, 1958-koak behar ditu izan heziketa eta eskola. Eskola berri hori geure erakaspideen berrikuntzaruntz bultzatzen duten lan-tekniken bidez prestatzen dugu.

Eskola berri eta modernoaren beharraz ongi jabeturik dauden puntuzkoei, elkargoei eta administrazioei ihardespren pratiko erabilgarri batzuk emateko moduan gagozkie.

Gaur arte, aginpide-arazoa izan da heziketarena: mai-suak aginpidea zuen ikasleen gaineratik, gauza bera gobernuak herri txikien gaineratik, Parisek probintziaren gaineratik; eta Frantses Batasuneko herrien gaineratik ere geroago.

Ikasleek beren heziketan eta kulturen parte hartzeko ideia, oso ideia berria da, aintzindarritza-ideia bat; eta, hauenez, ukatua eta burukatua da. Baina elkarlaguntza eta demokrazia zabaltzen ari diren gizarteetan, gaitzeko etorkizuna izango du.

Honela esan ohi da: haurrak ez daki, erakatsi egin

behar zaio beraz. Gauza bera herriez: aski ez aurreraturik, ez dira beren burua gobernatzeko gauza, eta erakatsi egin behar zaie.

Guk, aldiz, ideia nagusitzat hau hartu dugu: forjatuz sortzen direla forjariak; eta askatasunean eta elkar-laguntzan bizituz, gertatzen dugula geure burua elkar-laguntzaz eta askatasunez osatuko bizimoduetarako.

Eta beste ideia hau erantsiko dugu: gizonaren erai-kikuntza ez dela teilatutik hasten, zimenduetatik baizik; eta alferrik dela kanpotik eta aginpidez pertsonari zerbait erantsi eta honek azal hauskor eta suntsibera bat baino eman dizaioketanik pentsatzea. Oker hau berau salatua zuen Montaignek. Guk, beraz, zuzenketa batzuk proposatuko ditugu.

Egarri ez den zaldiri edanaraziko dionik ez dagoela esango dugu azkenekorik. Lege zaharreko deritzagun Eskolak, gosea eta egarria agortu ditu haurraren. Ikasleoi guk egarri hori eta gose hori, eta lanegiteko, bilatzeko, hobetzeko, osatzeko eta hazteko behar horiek, esnatu eta eman ala, eta esnatu eta emandako neurrian xuxenki, mamituko ditugu jabekuntzaren eta bizieraren ikaspide berriak.

Gogoeta horiek arras funtsezkoak dira, gaurko hezikipideen eta jakintzen bidartea eta kuntza bera. Kontutan ez hartzekotan, bidea galdu; eta nahiz Eskolak oso nabarmen jarri garaitzaren harrigarri hauek edo haiek, irteerarik gabeko kale-ondotan abiatzeko arriskua dago; eta horrela bizieran hildo sakonetaraino inoiz ez iristekoa.

Baliteke, beraz, oso galesti jotzen duten gela ederrik

eraikitzea. Baina halakoetan izpiritua ez bada bizi, azken funtsean «gazteria gatibuarentzako presondegiak» baik ez dira.

Ikasleen kopurua txiki daiteke, bai. Eta halaz ere lizifrina koloreko jokabideetara iristea, inoiz baino kopeta hestuagokoak eta larderiakoiagoak.

Gaur oparo dauden jakintza-paperak bilduko ditugu, eta guraso urduriek bezala jokatu; haurrari nork bere moltsaren araberako janari-mota guztiak eskaini nahiz, mahai osoa beteko da. Haurra, ordea, jangartsu egonik, goragalea baizik ez du nabaituko hura guztia ikusita. Eta beharbada hauzoko baserriko semearekin ogi puska zahar bat dastatuko du; askatasunaren zaporea mirakuilu delako.

Heziketaren eta jakintzaren arazoak, nahiz administrazioak eta honetako arduradunek horrela uste izan, ez dira soilki araudi, ordu-banaketa, esku-liburu eta ikaskai kontua, eta hori guztia aginpide giroan ongi oraturik. Ikasleen beren mailan ere (ikasleen beren mailan bereziki, erantsi behar litzake agian) agertzen dira; alegia, horien ahalmenen eta beharren arabera, eta gero bizian konpondu beharko dituzten betekizunen arabera.

Gogoeta hauek esperentziaren, saiaketaren eta zentzuaren fruitua dira batera. Halaz ere, kultura zaharreko gure eskualdeetan nekez onartzen dira haien premia eta garrantzia.

Bide ederrik izan da markaturik, zabaldurik eta gudronaturik; eta nahiz hauetatik abantailatu batzuk baizik

ez ibiliko, egunen batez gu haietara heltzeko esperantzak eraginda, oso harro gaude. Oraindik ere badago jauregi ederrik zelaietako tontorretan. Barnea desegokia dute, jakina, eta ez daude gaurko teknikaren beharretarako moldaturik; baina, beti ere, gailurtzat hartu ohi dira: hurbiltzeko modukoak eta, agian, inoiz jabetzekoak ere bai.

Gauza bera kulturari buruz. Bere handitasuna izan zuen honek, eta izan-badu oraindik; baina ez da herri xehearen kultura, ez da kultura herrikoi bat; eta haur guztiak gaur, gainditua izan den gizarte-kasta baten-tzako prestaturik dauden moldeetara egokitu nahi dire-larik, hoben handi bat egiten da.

Erants dezagun — eta hau ez da hutsaren hurrena— Eskola zaharraren harresirik gotorrena eta gaindikaitze-na, merkataritzaren eta finantzaren interestzarra dela; hauxe dela heziketa hobe haten bila egiten diren ahale-gin eskuzabal guztietan topatzen den etsai izkutua.

Herrialde batzuk, berriz, larre soilak dira; ez dago errepiderik, ez erdiko murrurik, ez inolako batimendurik. Hots, han ezerk ez du behartzen kamino horien lerrogunea nahi bezala eta ekonomi-baldintzen arabera ez markatzeko. Zorakeria itzela litzake, herri zaharrek bezala egitekotan, berritasunari dagozkion bidegune sistematikoak ezarri baino lehenago, lurralde bakarti haiek bidetxiorrez eta hesiz betetzea.

Hori gertatzen da munduan barrena luzaroan zapal-durik eta jopu gisa trataturik egon diren herrialdeetan: beren dinatasunaz eta etorkizunaz jabetu dira; eta, hori dela bide, heziketaren eta jakintzaren oinarri seguru

bila abiatu. Jakina, antzinako zibilizazioa duten herrietara so paratu dira hastapenean, baita horiek haien borrero izan zirelarik ere; eta, beharrak kitzikaturik, argitasuna eta praktikotasuna bilatu dituzte.

Geure kasoari gagozkiolarik, beren eskolak moldatu eta antolatzekotan, ia zeharo nagusiturik eta zabaldu-rik dauden eskola-liburuen teknika hartu dute oinarritzat. Hots, inora ez daraman bidetxior-multzo bat baizik ez dira horiek; eta ez dute, dena den, inolako erre-pidetara gidatzen.

Jakintza-adar bakoitzean haurrek ikasi behar dutena, liburuska berezitara bildurik, milaka edo miloika aletan inprimarazten da. Gizabidea, hiritar eskubideak, irakur-gaiak, gramatika, hiztegia, karkulua, kondaira, geogra-fia, zientziak: dena eskuliburutara bildua. Ikasle ba-koitzak bere liburua izango du; eta hau «zientzia» iza-nik, ikasi eta «beretu» eta nortu egin beharko du. Iparraldeko ikasleek eta Hegoaldekoek, liburu berbe-rak; Alpeetako haranetako haurrek eta Akitaniako ze-laietakoek, berberak ere. Eta batzutan harritu egiten bide gara. Mintzaira hotz horrek, ordea, ez du fame-liako biziera kutsurik, ez du izanaren zurrunbilo sa-konen ikuturik.

Herri askotan, aitortu egin behar da hau, aurrerapen handiak egin dira, teknikaren aldetik, eskuliburuen pres-taeran eta inprimakeran. Frintziak berak berebiziko in-darraldia egin du urrutialdeko barrutietan bere liburu horiek hangotartzeko eta egokitzeko. Baina eskuliburu horien erakaspidea bera da txarra, eta gainditurik dago.

Geure eginen bidez frogatu dugu guk erakaspide



horiek txarrak direla, eta Fraitzian bertan gainditurik daudela. Hots, erakaspidearen traba eta eskasia horiek askoz ere larriago bihurtzen dira urrutialdeko haurrekin erabiltzean. Bertako hizkuntza ez den hizkuntza bat hantzarrei hitzeraginez, egileek liburuetan jarri zituzten hitzek, esaldiek, josterek eta ideiek berek ez dute sekula haurrengan oihartzun sakonik eralkitzen. Haurrak zientziaren eta logika hutsaren bidez mamira ez iritsirik, gure herrialdeetan baino larriago eta sakonago da etendura: batetik, azkenean, haurren pentsaera, agermena eta biziera dago; eta bestetik eskuliburuon mamia eta azala, zeharo beste.

Eskierki, Fraitziaren eta urrutialdeko herrien etsenplu honek, munduko beste partidatarako ere balio dezake. Eskuliburuon teknika, orokorra eta mundu guztian zabaldua baldin bada, pedagogia-aurrerapenaren izenean egiten diogun hauziak ere, orokorra da eta mundu osorako balio du.

Eskuliburuok baztertuz gero, ordea, zertaz ordainduko? Oldezko haurra dago batetik; eta, bere izakera sakonari erantzuten ez diolako, ikaskizunen kontra etengabe tratatzen eta estropozo egiten duen ikaslea bestetik. Bitasun hau, nola ezaba?

Arazo kiskalgarri honi buruz balio dezakean soluzio bat proposatu uste dute Eskola Berriarentzako Freinet-Teknikak. Haurraren hizkuntzan aurkitzen diren mintzaira-aberastasuna, aisia eta poza erantsi nahi dituzte eskolako ikaspenetan.

Horrela eginez, etendurarik gabe igotzen da famelia eta gizarte bizieratik, giza-bertuterik gorenaren jabekuntzaraino.

Freinet-Teknika horiek, milaka eskolatan eta anitz herrialde desberdinetan frogatuak, saiakuntza luzearen zitua dira; eta, eskuliburuen erregetza jadanik gainditurik, psikologiaz, pedagogiaz, gizarteaz, teknikaz eta ekonomiaz soluzio bat dira.

## EGARRI EZ ZEN ZALDIAREN IPUINA

*Kaletar gazte batek laguntzaile gertatu nahi zuen bizi zen baserrian:*

*— Zaldia larrera baino lehenago — esan zuen bere kolkorako — edanarazi egingo diot. Denbora irabaziko dut horrela; eta egun guztirako lasai.*

*Baina... haren larriak! Zaldiak joan nahi ez! Nola hori? Orain joan? Ez zuen zaldiak aska aldera joan nahi; eta ez begirik ez gogorik zuen erakusten aldameneko belarretara jotzeko baino! Noiztanik abereek agintzen?*

*— Edatera etorriko haiz! Bai horixe!*

*Eta sasi-baserritarrak hedetik tiraka, eta gero atzetik jotzen. Beharrik! Abiatua da aberea!... Aska-ondoraino, eta...*

*— Bildur bide da... Eta, laztan baneza?... Ikusten duk, zalditxo? Ura garden zegok, garbi-garbia!... Tira! Busti zak muturra!... Zer? Ezetz?... Horra!*

*Eta gure gizonak indarka sarrerazi zion muturra askako uretan.*

— *Oraingo edango duk, bai, alafede!*

*Zaldia, ordea, irrintzika eta antsika, baina edan inolaz ere ez.*

*Horretan baserritarra heldu, eta eztenka esan:*

— *To! Uste duka horrela erabiltzen dela zaldi bat? Ez duk gizona bezain zozoa, kasu! Ez zegok egarriak, horra... Akabatu egingo duk beharbada, baina ez dik xortañorik ere edango. Balitekek itxura egitea; baina irentsia dukean ura, hire gainera botako dik. Kontuz!... Alferrik ari haiz, gizajo hori!...*

— *Nola jokatu behar da, beraz?*

— *Ezagun dik, bai, baserritarra ez haizena! Ordu goiztar honetan zaldia egarri izaten ez dela ez duk oraindik ulertu, eta alderantziz belar gizen freskoa behar duela. Uztak, beraz, orain belarrez asetzeraz. Gero egongo duk egarriak, eta askara korrika eta bere kabuz ikusiko duk. Ez duk hik baimena eman zai egongo ere. Hobe duk, hain zuzen, tartean heure burua ez jarri... Eta, edan ondoren, orduan tiraioak gostian hedetik!*

*Horrela nahasten gara beti: gauzen taxuketa aldatu nahi dugu, eta egarri ez denari edanarazi diogu...*

*Erakasle eta eskolatzailleok: bidarte horretan zaude-te. Ez zaitzete tema, arren, «egarri ez zen zaldiaren pedagogian». Zoazte aurrera, ausarki eta zuhurki, «belardira eta askara lauhazka zihoan zaldiaren pedagogia»-ren alderuntz.*

## **HORTAZ, ZER DIRA FREINET -TEKNIKAK ?**

Teoriazko sistema bat ez, baina lan-teknika berri bat dela garbiki adierazteko, «FREINET TEKNIKAK» diogu, eta ez «Freinet-Sistema» edo «Freinet-Erakaspidea»; eta horiek geronen ikas-taldeetan jaiokoak, saiatuak eta aldatuak izateko abantaila dute... Teknika horiek, gainerako teknika guztiek bezala, pedagogiaren eta filosofiaren ohar eta xehetasunak behar dituzte, eta xehetasun horien pisua garrantzitsuago ala axalago gerta daiteke; baina batez ere lan-tresnak behar ditu, lanabes egoikiak, behar bezalako lan-giroa, eta langile berezituak diren erakasleen prestaera eta berrikuntza edo bir-heziketa.

Beste lekutan egindako saiakuntzen argitan, oinarritzko ideia batzuk ateratzen lagundu gaituzte teknika horiek; eta beroiei esker, arazo hauetan eskolaturik ez daudenek gure erakaspeneren emaria hobeki uler eta neur dezakete egungo pedagogiaren sailean.

Teknika eta lege horiek azalduko ditugu segidan laburki, baita dagokien metodologiaren berri emango ere; eta batez ere lan-bide berrietan gidari izan bear dituzten joera eta izpiritua agerrarazten saiatuko gatzazkizu.

## ESKOLARAKO SARRERA

NOLA IZAN DAITEKEAN ESKOLA-GIROA, FAMELIA ETA GIZARTE-GIROAREN SEGIDA BEREZKOA.

*Beti, zertzelada, inguru-mota eta ikaspen-sail guztietan, haurra bere inguramenduarekin hartuko dugu abia-burutzat.*

Badatoz haurrak eskolara. Nola edo hala hau lortu behar da: ataritik pasatzean haurrak ez des-nortzea eta arimaz erdibitzea; alegia, haurraren pentsamena eta sendimena atarian ez gelditzea, eskolako erregelaren arabera ikasle soila barrura sartuz.

Agurtza dotore handigurakoak, kito! Kanpora ere kaserna kutsuko herrenkadak! Biziaren segida eskola dela sinesten duen haurra, begiak argi dator, ahoa fidakor, eskuak berriz bidean geldiarazi duten ondasunez beterik. Eskolako murruean eta atearen kontra, horretara, biziak berak erauntsiko du, bere oparotasun guztian, eta eskuratu ezinezko urgora baten gisa.

Haurrek horrenbeste esateko, horrenbeste galdera, horrenbeste berri-bilketa, horrenbeste buruxka erakusteko dutelarik! Badakazkite lore-sorta, fruitu gordin, zomorro, suge, harkaitz, fosil, liburu, liburuxkak... Nik dakita zer gehiago?

Gure Eskolako hazkurri nagusia izango da aberas-  
tasun hori. Ez da motela, ez da, eskuliburuetakoa be-  
zalakoa, koloregabea, sistematikoa eta hotza. Honek  
eskuliburuak antzeman ez duten anitz problema dakar-  
kigu, halere askatu beharrekoak. Elikatura hori bizia da,  
ordea, oraindik bero-beroa, eta taupadaka ari, esan ge-  
nezake; egoskarriago, beraz. Kasu, beraz, ez eragozte-  
ko edo faltsutzeko.

Berezko jakia da, eta %-100-etan uxtiatu behar dugu.

OLDEZKO IZKRIBUAK, SENDIMENAZ ETA HELBURUAZ, BIZIA  
ETA ESKOLA LOTZEN DITU.

Antzinaño erakaspideen ustez, jakinduriak eta zien-  
tziak oro liburuetan edo maisuaren buruan daude. Hau-  
etaraino iristeko, anitz ikaspide, egitate eta matrikula  
asmatu du Eskolak; eta hauen bildumari Eskolastika  
deritza. Jakinduria eta zientzia horiek haurraren izpiri-  
tuan izkutatuturik dautzala somatzera ez ziren gurasoak  
ez eskolatzailleak ausartu; ezta, hortaz, haur-esperentzia  
horretatik irtenda, eta zenbait maila ezagunen bitartez,  
kulturaraino (alegia, denon gailurreraino) irits zite-  
keanik. Eskolako mailari dagokienez, sinetsita zeuden  
denak, onez-onean edo indarka, ate bat irekikizun ze-  
goela beti; ireki aurretik gaua zela, eta ireki ondoren  
bakarrik ager zitezkeala lehendabiziko egunsenti-zan-  
tzuak.

Geure saiakuntzaren zabalaz frogatu dugu, aldiz, he-  
ziketa onuratsu bat lor daitekeala haurraren beraren  
bizieratik gora eraikiz; eta heziketa molde hori gaur,  
goiko klase batzutan ez-ezik, klase guztietan, herrialde

guztietan eta hizkuntza guztietan ere erabil daitekeala erakutsi dugu.

Eskolara lehenengo aldiz heldu diren haur ttiki-ttikiei, otoi, ez diegu inolaz ere kolpez erakutsiko irakur eta karkulu libururik; batez ere liburu horiek haurren hizkuntzan idatzirik ez daudenean: hauek, noski, ulertu ezinezko mekanika-kutsua uzten diete hastapenean.

Haurrak beren hizkuntzaz lasai hitzegitera utziko ditugu, eta haien konfiantza edo bultzada ez dugu pedagogi-ohar desegokien bidez motelduko. Jatorrenak eta praktikoenak iruditzen zaizkigunak bizkortuko ditugu.

Denbora berean, papera eta arkatza emango diegu ikasleei, eta beren buruz eta beren oldez marratzera utziko ditugu. Alor honetan ere gauza bera sinetsi behar dugu: ez dagoela nagusien teknika-mailara iristeko ate gorderik, ez dagoela sistemazko ikaskaien eta eskolastika-ariketa hertsien bidez heltzeko bide izkurturik. Idazkuntzan eta irakurreran bezala, marrazkian ere haztamuzko saiakuntzaz lortzen dira aurrerapenak. Lehenengo zirriborroak, markets eta itxura gabe haseran, «Berrezko Marrazkia» deritzan liburuan azaldu dugun bilakabidearen eta osakuntzaren arabera ontzen dira piskanaka; eta, sortzapenez eta biziak, artezko mintzabide-etaraino eramaten dute haurra; eta horiek, barneko biziaren eta eskola giroko beharren artean gertatuz, benetako atsedeen-leku bihurtzen zaizkio.

Haurrak bere marrazkia azaltzen du, edo hitzeginez marratzen. Marrazkia ez da maila horretan mintzairarik xume, artex eta segailena baizik.

Eginak dira lehendabiziko ikutzapenak; eta ona gerta daiteke abiadura.

Azkeneko ibilaldian, hizkuntzatik eta marrazkitik sortu diren lerroguneen artean, bat somatuko dugu gailen eta nagusi; eta hauxe nabarmen-araziko dugu lehenengo oldezko izkribuan.

Ideiak emateko eta lana zuzentzeko, gaiak haurrei ez ote litzaizkiekean proposatu behar galdetu izan zaigu batzutan. Kezka honek hau idarokitzen du: antzinako pedagogia gauditua ez dela, eta haurren bizien aberastasun zoragarria zeharo gaitzesten dela.

Hona hemen gure izkribuetako bat:

#### EGURGILEA

*Aizkoraz ebakitzen du Mohamedek lizar-egurra.  
Adarrak moztutzen ditu,  
eta puska txiki egiten.  
Asto gainean jartzen ditu gero,  
etxera eramaten,  
eta han su egiten.*

Izkribu hau arbelean idazten da. Bimintzodun eskoletan, eta beharrezkoa baldin bada, ama-hizkuntzaz idatziko da, bigarren hizkuntzazko itzulpena ere emanez. Erakasleak eta ikasleak egingo dute elkarrekin izkribuaren orrazketa edo zuzenketa, batzutan haurrek xehe-tasun bikainak erasten dituztelarik.

Haurrek izkribu hori kopiatzen dute, orokorki ira-



kurtzen, edertzen, ahalean idurikatzen edo dantzaren ere, edo panpinen bidez kantatzen eta jotzen.

Puntu bakar batetan eman behar da kasu: izkribu hori ez dela eskola-girotu behar; hitz hauek ager-eraztekotan edo zail haiek kentzekotan, ez direla esaldiak artifizialki bortxatu behar.

Berezko erakaspidea erabiltzen dugu: hitzegiten bezala ikasten du haurrak idazten eta irakurtzen; eta ikaspide horrek, Eskola ezik, adimen, gizarte eta teknika-arazo guztiak biltzen ditu.

Baina oldezko izkribua horrela harturik ere, nahiz bere horretan eskolako erakaspideei izpiritu berria erantsi, ez luke irakurreraren problema guztiz askatuko; zeren, memento batean edo bestean, inprimatutako izkribu batzuk aurkeztu egin beharko bait litzaizkioke haurrari, eta horrela antzinako eskola-liburuetara bihurtuko bait zinake, eta horretara berriz berezkerietara eta irteerarik gabeko karrika-zuloetara. Halako batez, bere pentsamenduetatik eta egurgile-ipuinetatik erauzi beharko genuke haurra, eta «L'initiation directe et rapide au Français pour l'Afrique Noire» liburuko 21 orrialdean hau irakur-arazi:

*Pi-pe, pi-le, la-ve, la-me, ba-na-ne.*

Kito xarmak, kito bihozkadak. Berriz ere eskolastikan igeri.

Teknika-berrikuntza nagusia moldiztegia da. Tresneria honen aurkikunde eta erabiltzearen bidez, maila guztietan eta lodiera desberdinetako hizkiak baliatuz,

oldezko izkribu bat hautatu, orraztu eta moldatu; eta inprimatu egin daiteke.

Mirariak orduan ematen du oparo bere fruitua: haurraren pentsaera eta biziera, eskolan agerturik eta azaldurik, zerturik eta mamiturik bezala itzultzen dira izkribura, eta gero metalez moldatzen. Hura denen arteko sorkaria delako, horrela, oldez irakurtzen den izkribu eder bihurtzen da.

Lehendabiziko kultura-mailan, beraz, haurraren entseguak berak lortutako teknika-bidea badugu, eskolastikaren etendura funditu, eta jakinduriarako berezko igoera mamitu. Aurrerakoan, iraultza nagusi honetaz baliatu beharko lukete haurrek.

Moldiztegirik ez-ta, batez ere moldizkiak aurkitzen zaila den zenbait eskualdetan, Limografoa erabil daiteke (1).

Tresna honen bidez (funtsean eskuzko kopiagailu bat) izkribuak estentzil batetan grabatzen dira. Aski da — idaz-makina bat erabiliz, esate baterako — grabaketa hori zaintzea, oso kopia egokiak lortzeko.

Haurraren pentsaera inprimaturik dago. Inprimatutako orriok orain egunero pilatuz, bere bizi-ingurraztia osatzen du haurrak: berak eta bere lagunek idatzia, edertua, osatua eta inprimatua da.

Aurrerago ikusiko dugunez, Eskolako Moldiztegiari

---

(1) *Ikus CEL bilduma (BP 282, Cannes, 06).*

esker barreia daitezke izkribuak nazioaren barruan eta naziotik at ere; eta, hau dela bide, gure erakaskizuna lagunduko duen funtsabide paregabea lortzen du.

Inprimatutato izkribu horiek abiaburu, eskola antza duten ariketa batzuk asma daitezke, eta hauen bidez jabekunde-pausuak eta mekanikak azkartu. Ariketa horiek, mamia eta bizia duten izkribuak oinarri, eragiten direnez gero, haurrak hobeki onartzen eta ulertzen ditu; eta, hortaz, hobeki uxtiatzen ere bai.

Halaz ere ohar bat egin behar dut orain: ariketa horiek ez direla batere ezinbestezkoak. Berezko ikaspidetik, ezin hobeki eta inolako eskolastika-ariketarik gabe ikasten du haurrak mintzatzen. Areago: epe harri-garri laburretan ere ikasten du irakurtzen eta idazten, eskola beti gainditzen eta prezarazten ez dakiena. Eskola-kasetara eta moldiztegira igarotzeak, beraz, besterik gabe eta bere buruz, sakonki aldatzen du eskola-giroa. Haurrak konfiantza handiagoa hartzen du bere buruan eta bere ahalmenean. Zanaketa-erakunde bihurtua zuten antzinako erakaspideak kendurik, besterik da eskola. Apaltasun handiago lortzen du eskolatzailleak berak. Bere burua haurren mailan jartzeko ohitura hartzen du batez ere, jaiotzen ari den orotatik abiatzekoa, hozitzen eta hazten hasia den bihia buztantzekoa. Pedagogia berria sortua da.

#### OLDEZKO ADIERAZPENA, MOLDIZTEGIA, ETA MAILA BATZUTAKO ESKOLA-KASETA

Gaur hedatzen, eta antzinako idazketa bortxatuari nagusitzen, ari den *oldezko izkribu libroaren* zimendua horretan datza.

Urte gehiago duten hurrekin erabiltzen delarik, ba-  
du teknika honek, itxuraz, liferentzia apur bat; baina  
funtsean berbera da.

Goragoko maila hauetan hurrak ez du aski bere  
azalpidearen atalak azalduz. Idatzi egin behar ditu.

«Ba ahal daki egiten ordea?», pentsatu ohi dute  
erakasleek eta gurasoek. Ideia aski ba ahal du? Azal-  
tzen jakingo ote du? Ez ote da beharrezkoa, hain zuzen,  
aldez aurretik, eta sistemakiro, idazkizko adierazpide-  
-teknikez haurra jabe-araztea?

Hor ere badugu oraindik eskolastikaren kontra ira-  
bazkizun dagoen gatazka bat. Ez ahal da aski (eskola-  
tik at!) hurrekin bizitzea, haurraren adierazmenaren  
aberastasunaz eta jatortasunaz sinetsita gelditzeko? Adi-  
neraz gero, ordea, eta zenbait baldintzatan hurrak iz-  
kriburik edo pentsaera baliotsurik bat ere eman ezin  
badezake, eskolastikak ez bestek du errua: eskolastikak  
egin du itsu eta mutu, bere kaskotik eta bere kabuz  
ezertxo ateratzeko ezindurik, ez bait du birresateko eta  
kopiartzeko baino hezi.

Lehengora eraman zazue egoera, eta haur-aberasta-  
suna loratu eta ermotu egingo da.

Hurrek beren barrua adierazi aurretik, adierazteko  
ahalmena eta prestaera eman behar ote zaizkien jaki-  
teaz, berriz, gauza bera litzake honoko hau galdetzea:  
ia lehenengo urratsak egitera utzi baino lehenago ez  
ote zaion hurrari ibileraren teknika erakatsi behar;  
ez ote litzakean zuhurrago hurrari hizkuntzaren teknika  
erakatsi baino lehenago, lehenengo hitzak esaten debe-

katzea. Istilu horietatik irteteko ez dago bide bat baizik: berezko ikaspidea. Hitzeginaz ikasten du haurrak hitzegiten, ibiliaz ibiltzen, eta idatziaz idazten.

Gure arrakasta, horretara, egia horren frogantza da; baina anitz pedagogilari jakintsu entzungor egon ondoren, egia hori berriz aurkitu eta zabaldu beharra zen.

Gure egintzaren bitartez, osoki onartuak dira gaur haurren izkribuak; hori dela bide, gure heziketaren oinarri izan daitezkeala (eta izan behar ere dutela) konprenitzen da, kulturaren lehenengo maila bizia heziketa delako.

Pratikan ikusi dugu ezen moldiztegiak, eskola-kasetaz eta kidekuntzaz pentsaeraren hezibide normalaz jabetu den haurrari, berez datorkiola bere burua idazkuntzaz adierazteko gogoak, ibiltzeko eta hitzegiteko beharra oso goiztik, baita teknikaz jabetu baino lehenago, nabaitzen duen bezala.

Lehenengo ikastaroetatik, hunkitzen eta berotzen dituzten gaiak buruz, orrialde bat edo batzutako izkribuak idazten dituzte ikasleek. Aski dugu horretarako, hasi berriekiko bezala, geure kontrolkeriei eta maiseakuntzari utzi, eta laguntzaile moduan agertzea. Hitz bakoitzean hutsegina duelako haurrari errietan egiten badiozu, bildurrez idatziko du aurrerakoan; hitzegiten hasi delarik beti zuzenduko bazenu, zure aurrean bildurrez baizik mintzatuko ez litzakean bezala.

Idatziaz onduko du haurrak bere idazkera, bere ibilera ibiliaz ondu duen bezala. Haurtzaroan gurasoek lauroinka ibiltzera utzi zutelako ez da inoiz ikusi mutil gazterik lauroinka ibiltzen ari.

Gure ikastaldeetan, hortaz, berezko izkribu asko dago. Mota askotakoak dira, haur-mota eta gizarte-mota askoren adierazpena direlako. Kasetaren eta kidekuntzaren bidez, oldezko izkribua ez da funtsik gabeko ari-keta hotza. Lan zinezko bihurtzen da, eta honen lekuko dituzu gure eskola-kasetak.

Beren egileek berek irakurtzen dituzte izkribuak. Eskuak jasoaz hautatzen da, bozka bidez, inprimakizuna. Izkribu hau orduan orraztu eta txukundu egiten da ar-belean erakaslearen eta ikasleen laguntzarekin, ahal delarik horrela oso itxura mamitsu, bixi eta artetsua emateko. Ofizialki aitortzen da gaur oldezko izkribuaren hautaketa hori, eta darraikion elkarrekiko zuzen-keta, joskeraz, gramatikaz eta hiztegi-egin daitekean ariketarik bikainena direla; eta horien bitartez, bestelako sistema-bideetatik ingura ere ezin litezkean fruituak lortzen direla.

**BEREZKO IKASPIDE HORREK BERAK,  
LANA ETA NORBERAREN SAIKUNTZA OINARRI,  
ESKOLA-SAIL GUZTIETARAKO BALIO DU**

Freinet-Teknikak, idazkuntza eta irakurketari buruz aurrerapen aparta direla aitortzen badugu ere, ez ote da, beste eskola-sailei dagokienez, eskolastikaren erakaspideetara itzuli beharko? Gure ikasaldietan ezin bait genezake dena funtsa, eta pratika soilari buruz zuzen eta presta.

Ohar bat aurretik: geografia, kondaira, karkulua, marrazkia eta musika oso egokiro funtsa daitezke oldezko izkribuaren eta inguramenduaren bidez, eskola-kasetaren eta kidekuntzen bidez.

Erakutsi dugunez, hain zuzen, bilatzeko, jakiteko, entseatzeko eta adierazteko gogoia haurrak aurkituz gero, hau dela bide erakaspenera ondoriozkoa lor daiteke. Lege berberak Eskola-sail guztietan arabil daitezke.

Baldintza bakar bat errespetatu behar: lanbidea eta lanaren ideia bera aldatzekoa.

Haurraren egarriaz kezkatu gabe maisuak bere programan markaturik dadukana osoki azaltzea baldin bada Eskolaren betekizuna, orduan dudarik ez da: erakaskizun hori eskola-liburutara isuri behar da, hauetan ongi trinkotu, eta esku-liburuok ikasleek erabiltzera behartu. Noski, behartu eta bortxatu egin behar dira ikasleak horretara, eskola-giroak ekintza eta ikasi-beharra azaltzen, argitzen eta funtsatzen jakin ez duelako.

Oldezko izkribuen, moldiztegiaren, eta trukeen eta kidekuntzen bidez, berriz, eskolako giroa aldatzen bada, ikasle/erakasle harremana gizatartzen eta egokitzen baldin bada, lanari arrazoin edo funtsabide berri bat ematen baldin bazaio; orduan behar, helburu eta bake-iturri bihurtzen da lana, eta lanaren osotasuna har daiteke beste era batetara.

Bestelako jarraipiderik eman daiteke.

Horietxek prestatu ditugu guk, hain zuzen.  
*Zaldia ez da egarri; hortaz,*

## ALDA ZAZU ASKAKO URA!

*Egarri ez zen zaldiaren ipuinean, kapitulu bat ahaztu dugu.*

Egarri ez zen zaldiaren muturra gazte hura indarka uretan sarrerazten ari zelarik, eta segidan gero, zaldiak iturriaren ingurura barreiatzen, gizon bat agertu zen; eta zuhurtzia osoan itxuraz, honela mintzatu zitzaion:

— Alda zak, ordea, askako ura!

Eta halaxe egin zuen laisterka; egarriak ez zegoen zaldi hari, nagusien esanak beteko baziren, edanarazi egin behar zitzaiolako.

Alferrik, ordea. Zaldi hura ez zen egarri; ez zuen ur arrerik nahi, ez gardenik ere... Ez bait zegoen... egarriak! Horra dena! Eta ongi erakutsi zuen hau gaztearen eskuetatik ihes eginez, eta belardira azkar baino azkarrago joanez.

Gure heziketaren kakoa, beraz, horretan datza; eta ez, gaur sinistarazi nahi litzaigukean bezala, erakaspennen «mami»an. Problema bakarra, berriro ere, haurra egarri izatea da.

Mamia beraz, bost axola ote?

Ez. Baina antzinako modako ikasleei bai: hauei berdin zaie ikaskizunaren mamia, egarririk gabe edozein edari edaten ohituak izan direlako. Guk, berriz, bestela ohitu ditugu geureak: edari guztietako uzkur egoten erakatsi diegu, dena aurretik dastatzen eta frogatzen, beren irizpidea beren buruz moldatzen; eta, egia hitzetan ez, baina gertaeren eta pertsonen arteko loturen bidezkoan eskatzen.



## **ESKOLATZAILE MODERNOAREN JARRAIPIDEA**

**NEKERIK TXIKIENAZ ETA ONDORIORIK UGARIENAZ  
KLASEA ERAMATEKO**

Horra hor gure helburua. Horra hor, Eskola Berrian, elkargantzera, saiatzera, sortzera, eraikitzera, entseazera eta argitaratzera bultzatu gaitun eragile nagusia.

Hogeita-hamar urte honetan (mende erdi bat ere bada dagoeneko) lan zail eta bihotz-altxagarri hau milaka eskolatan eta miloika ikaslerekin erabili ondoren, aztarna bat gelditu da, ez da dudarik; eta horretan dago gure elkar-ondasuna. Gutxi gora-behera, denok daramagu geugan aztarna hori; eta eskaini dizkigun aukera berriei esker, ezin dezakegun gaur hobeki eta neke txikiagoaz geure klasea egin antzinako erakaspideetan itota bageunde baino. Hori dela-ta, ez litzake guretzako inor ere antzinako bideetara lerratuko; horiek oroitza-

pen ezin txarragoa utzi digutelako. Kontrolariek berek aitortzen dituzte gaur, eta gauza bera gurasoek, Eskola Berriko Freinet-Tekniken alderdi onak; bai psikologian, bai pedagogian eta gizatar harremanetan.

Hori pozgarria da guretzako; eta hein batez gure ahaleginen zuzenespen eta bihotz-altxagarri bihurtzen da.

Lanean ari garen giza-giroen arabera, hertsikeriarik gabe eta kopeta zabalaz, egokitzen baldin badira gure teknikak, poztu egiten gara; gure jarraitzaileetan nork bere gisara erabiltzen baldin baditu guk prestatu dugun tresneria (alegia, «L'Éducateur» aldizkarian agertzen duguna), halaz ere, batez beste eta oro har, badute gure Eskola Berriko eskolazaille guztiek oinarrizko jokabide berbera; eta horixe da gure ezagugarria.

Asmoa arriskuz betea izanik ere, bagoaz hemen «Eskolazaille Modernoaren Jarraipide» hau idaztera, honetan oinarrizko gure zimendu hori azaltzeko eta finkatzeko. Gero, jakina, nork bere eskola-baldintzen eta inguramenduen arabera egokituko eta osatuko du. Denok uler dezakezue lan honen garrantzia, 30 urtetan egin dugun elkar-langintzaren fruitu izango bait da. Geure lankide guztiengandik espero ditugu, beraz, kritika etengabea eta laguntza. Gazteek batez ere, beren buruari guri galderak egin zitzaten nahi genuke; horrela, bidenabar bezala, bilduma eta laburtzapena diren ohar hauek osatuz eta hobetuz joateko.

Nekazaria gelditu egin ohi da noizean behin hildoa-  
ren ondoan: arnasa hartzeko, jakina; baina baita istant  
batez, bururatutako lana betesteko, hutsak neurtzeko  
eta zuzentzen saiatzeko; goldeak irauli duen lurra iku-

sita bizkortzeko ere bai, gero heldu diren uzta ederrak hantxe ageri bait dira hein batez.

Guk geuk ere, berdín egiten dugu; eta, herrialdeetan barrena aneika eskolatan goldatu den zabalera betesten dugu, eta eguzkiak dir-dir egin dezan egin diren saiaketak somatzen.

Baina hartua dugu goldea berriro; bizia ez bait da gelditzen.

## ORAINDIK ERE SAIKUNTZAK EGITEN DITUZTENAK

*Badira bizian bi giza-mota: bata oraindik ere saiaketak egiten dituztenek osatzen dute; jadanik saiaketarik egiten ez dutenek bestea.*

*Ur geldien zingiraren ertzean eseri direlako utzi diote saiakuntzari. Ur geldietako breña eta goroldioak uraren gardentasuna izkutatu du, eta zeruaren araberako koloretan irudiak bihurtzeko gaitasuna bera galdu.*

*Ur hilaren erregelak eta legeak azaltzeari jalki zaizkio; eta orain eragabe, funsgabe eta harroputz atxematen dute zingirako ur geldia nahastera datorren uxol asaladtu bortitza; eta gauza bera haizea, gainaldeko breña geldia ertzero erkaztatuz, zingurako ur berdeari urdin sakonezko kutsua erasten dionean.*

*Ez dute gaur saiakuntzarik egiten, beren hanka nagituek aspaldian igotzen zuten mendien oroitzapena bera*

ahaztu dutelako; igoera haragian bizi beharrean, mugatu eta horrengatik garaitzen zuten. Orain, berriz, hesiz, geletatik haruntz bultzatzen zituen ausardiak orduan, eta horrengatik garaitzen zuten. Orrain, berriz, hesiz, errepidez eta kaminoz jositako zelaian pausatu dira erosoki, eta zeruaren urdina zulatzen duten tontor zorrotzen ausardia, beren irizkera berriaz juzkatu nahi lukete.

Ez dute entsegurik ez saiakuntzarik egiten. Hortaz, aurrera eta gaindi ditzaketenen abiada geldiarazi nahi lukete urduriak eta artegak, uxolarekin batera mar-mar egiten dutenak, eta bide ez-ezagunetatik iritxi ezinezko gailurretara abiatzen direnak, motelarazten saiatzen dira. Zingira eta inta hilaren legeak biltzen eta taxutzen dituzte, edo zelai titakatuarenak; eta alde zurretik, eta beren buruak zientziaren aintzindari eta maisu gailen eginez, ezagutzen ez direnak idorotzeko egiten diren saioak oro arbuiatzen dituzte, eta ohiko bideetatik kanpora aurki daitekean guztia gaitzesten. Ezinezkoa eta ezezaguna menderatzekotan gizonak egiten duen lana kondentzen dute, eta horretara Zientziaren eragile eta akuilu bizia den giza-oldar etengabea baztertzen.

Badira bi giza-mota: saiakuntzak egiten dituztenen taldea bata, eta egiten ez dituztenena bestea. Ondikotz! Hirugarren bat ere erantsi beharra dago: gaizkileena. Hauek uxolarekin batera jauzteko, eta tontorretaraino ausartekin batera igotzeko gertu daude, bai; baina xede bakar bat dute eragile: itzal urratzaileen, egiaren ehiztarien, zuzenbidearen, argiaren eta edertasunaren idorokundeez, ongi jabetzekoa; eta gero dena beren alde uxtiatzea.

Gure helburuak baliatuz, Hiroshima egiten dute. Ez betirako horrela, ordea. Ezen egunen batez, bidea moz-

*tuko bait diegu; eta egiazko zientzia, dinamikoa eta gizatarra, geuk bilduko eta eraikiko bait dugu, denok elkarrekin, geure zainez, geure bihotzez, geure borondateez eta geure odolez oratuz.*

## SAIAKUNTZA JOKABIDE BAT

Lehen-lehenik: otoi, ez zazu inoiz har, geroztik ezertxo ere ikastekorik ez omen duten horien jokabide hextu zikoitza. «Erakasle» deitzen dizute. Ohore handia, baina erantzukizun larria ere bai. Erakaslea, ordea, ez da dena omen dakien buruzagia, eta denetan gorago omen da goena; eta — besteentzako, noski — haurren eta nagusien eskasiak ezin jasanda, irribarre ere eragingo ligukean gogorkeria erabiltzen duena. Nor da «erakaslea»? Beregan aberastasuna eta indarra somatzen dituzten horien lana ongienik taxutzen, bultzatzen eta zuzentzen dakiena.

Freinet-Tekniken aditzea baduzu. Besaburuak jasota zeure kontra eta etsaigoa zuzenesten saiatzen zara; baina honetaz zuk baino gehiago ez zekitenean arrazoinak ematen dituzu zuk berriz, nahiz haiek ere entzun omen zutela-ta mintzo baziren...

Saia zaitez, beraz, zuk zeuk ikusten... Mesfida zaitez, eskuarki, makina bat edo tresna bat gar handiegiaz hanpatzen dizutenez. Honetara edo hartara saltzaileak edo tdituzkezu. Zoaz Freinet-Tekniken arabera lanean ari den ikastalde bat ikustera; entzun zazu eskolatzaille bat, eta honek lanoki azalduko dizkizu poliki-poliki sarrerazi dituen teknikien alderdi onak eta txarrak.

Saiakuntza jokabide zabal hau, entsegutarako eta entzuteko jarrera hau, izan bitez, hitz batez, Freinet-Teknikekiko ez-ezik, erakaspide guztiekiko, eta iritzi eta ikertu behar dituzun guztiekiko ere gomendatzen dizugu.

## JOKABIDE JATOR ETA LEIAL BAT

Besteekiko baino ere zeure buruarekiko izan zaitez jator jokabidean eta jarreran.

Begiak hetsi eta problemei aurre ezin eginez disimulatu egiten dituztenak dira ahulak. «Kementsuen» artekoa baldin bazara zu, bai; baina bestela ez zara sekula «erakasle» izango.

Lehendabizikorik, eta benetan aurrera jo nahi badugu — bai pedagogiaz, bai gizarte edo gizatar alderdietan — argi eta garbi jar itzazu aurrenik problemak, karkuluetan ekuazioen oinarriak jartzen dituzuen bezain argiro; ez zaitez bildur izan, beharbada okerretik joan zarela aitortzeko, eta irtenbiderik ez duen bide batetan abiatu zarela. Beharrezkoa baldin bada, har zazu beste bide bat.

Hain zuzen ere menderatu behar duzun harrokeriaren izenean ez zaitez zeurean tema, akatsak eta hutsuneak nabarmen zaizkitzun jokabideei eta erakaspideei eusten. Bila itzazu jatorki eta hozki hutsune horiek; azter zazu zergatik ez zaren oraindik gauza izan hutsune eta ahuleria horiek zuzentzen. Gupidarik gabeko ekuazio bat pres-ta zazu, eta has zaitez askatzen.

Zeure bizi-legea ikertzen hasten zarenean, ez dituzu alde batera utzi behar kritikagintza horretan gure teknikak; ezin daiteke guretako inor presenta akatsik gabeko eredutzat. Osotasuna iristen ez badu, bere makurragatik eta oker egin duelako izan da. Denok dugu arrisku hori. Ez zara ezertan beheratuko hori aitortuz. Aitzitik, goratu egiten zara horrela; akats bat zuzentzerakoan, akats horretaz ongi jabetzea eta konturatzea lehenengo urratsa delako. Akatsaz nagusitzea, hain zuzen, aurrerapen guztien hastapena da.

Ez sekula koka jarrera, irizkera edo erakaspide batetan. Bizia egunero aldatzen da. Aldatzen ari ez delako harrotzen dena, laister dagoke fosildurik. Ez zaitetz inoiz bildur izan zeure irizpidea eta zeure jokabidea zeure esperentziaren arabera aldatzeko eta egokitzeko. Zer gerta ere, izan zaitetz leial eta jator zeure buruarekiko. Problema hotzean aztertuz, era berean, saia zaitetz zeure laguntzaileekin ere jator eta leial jokatzeko.

Etengabe arazoak eta estropozoak oro modu horretara ikusi eta birrikusi ditugulako, oraindik ere gaur, 30 urte igarota gero, 1925-an bezain bizi, gordin eta berri daude gure teknikak.

Saia zaitetz leialtasunari beti atxikitzen. Uste den baino zailago da; beti geure harrokeriarekin egiten bait dugu topo, eta saiaketari ez eusteko harrokeria hori bait da murru gezurtaratzaila.

## JOKABIDE AUSARTA BAT

Jendeak ez du maite nahasia eta galazita izatea, eta guk geuk ere nekez egiten diogu ihes lege horri.

Ongi esan ohi da antinatikako erakaspideak marketsak, ahulak, are arrisku-bide ere direla. Baina betidanik kurritzen diren bide zahar horien antzekoak dira: ohitu egiten gatzazkie, eta gaizki ala ondo baliatu egiten dira: etsai berririk nahi baduzu, egizu bide berri bat...

Ia-ia Jesusek bezala esan genezake: «Ez dakart bidea»...

Berrikuntza-saio hori egin nahi ez duten lankideak izango dituzu kontra, zure bultzadak haiek galazten dituelako. Baliteke, era berean, kontrolariak bere egin-kizuna zaildurik aurkitzea. Eta gurasorik ere aurkituko duzu, nola ez, irizpidez hextu; eta nahiz hauek arratsetako solasaldietan barrena kritika gogorak egin erakaspide zaharren aurka, ez dute nahi izango beren semea bide berritatik joan dadin.

Aldez aurretik jakin behar duzu hori guztia, behar izatekotan erantzuten jakiteko. Ez zazu ahantz, halere; *ausardiak beti ordaintzen.*

## INDAR BIZIAK AURRERA LAXA

*Gizona bidez ikertzeko asmotan (eta honi buruz txalo jo behar da), gozoki bat zatitzen edo ondore bat*



*banatzen den bezala partekatu duzu zuk ataletan edo partetan gizonen jokabidea. Oroimenaren atala, adimenaren atalaren ondoan jarri duzu; eta urrutiago, irudimena, sendikortasuna eta nahimena. Zelaian barrenean zulatutako ubideak bezala bide doaz, beti elkarren parekide eta paralelo, inoiz elkar ikutzerik ez dutela; eta batetik gainez isurtzen denak, ez du inoiz betetzen bes-teko hutsa.*

*Udaberrian, horrela, bustidurak usteldutako istilak ikusiko dituzu, eta aldamenean ubide bat lehenengo egun eguzkitsuetan negargarriro idortzen ari, beharbada sekula konpondu ezinezko agortasun-punturaino.*

*Bizia ez da horren antzera helbururaino heltzen ez den dohain sorta bat. Anitz iturri duen uxol oparoa da Bizia, eta haiek elkar laguntzen eta osatzen dute.*

*Oroimen zehatzak ondotik erakar dezake irudimen geldia; zuhurki zaindutako sendikortasunak, adimen ugaltzen dezake, ohiturako neurrietatik gora isuraraz; ongi hornitutako nahimena, era berean, arima-indar guztien eragile gertatzen da.*

*Ibai ala uxol, uztazu Bizia bere indar biziak oro aurrera laxatzera. Hesi psikologikoak irekiko ditu; hondarrez kukutu diren ubideetatik eramango du lokatza; trabak inguratuko ditu behin eta berriz, eta koloka jarriko azkenean; eta nagiturik zeuden ahalmenak bizkortuko ditu.*

*Bakanka baizik ezin daiteke aurki, bere bizi-dohain guztiak batera hazten eta azkartzen dituen gizonik. Denak ahalegintzen dira han-hemenka aurrera-sailak edo*

*urrabideak botatzen, eta hauek ez-ezagunaren aldera luzatutako beso urdurien antzekoak dira. Beso eta urrabide horietxek nahi ditugu guk sendotu eta elikatu heziketaren bazter ugarien nagusikundeari buruz, han gure aintzindariak izan daitezten.*

## GIZATAR JOKABIDE BAT

«Dogmakoia» bataiatu ohi da eskolastika; alegia, hetsia, hotza eta basa, eta saiakuntzaren erakaspenen aurkakoa; osoki borobildutako formulak erakatsiz, eztabaidan jarduteko ohitura galerazi duelako; edo, nahia-go bada, formula horiek beti ere biziarekiko ebakirik, eztabaidan jartzerik ez dagoela sinestarazten digulako.

Batzutan betirako markaturik eta markesturik utzi zaitun eskolastika horretatik jaregiteko kemena baldin baduzu, berriz, eta jatorki zeure jokabidea zeure saiakuntzen arabera aztertzeke eta kidetzeko, kopeta zabalago bihurtuko zara zeure lankideekin, gurasoekin eta ikasleekin bizi izaten.

Eskola moderno batetara sartuta segituan nabaituko duzu jokabide-aldakuntza hori: erakaslea giza-abotsez mintzo da, haurrek gizakiro jarduten eta galdetzen dute; eta eskolatzaillearen, ikaslearen eta giza-inguramendua-  
ren arteko harremanak itxuran jarri dira. Hots, berehala ulertuko duzu jokabide-aldakuntza horixe dela Eskola Berriaren izpirituaren oinarria bera.

Ikas zazu zeure lanaren arabera, saia zaitetz jatorki, ausarki eta gizatarki; har zazu zeure jakintza bera kon-

tutan, eta zeure heziketa lanari arima esnatzaile eta gidatzaile izateko maila erantsiko diozu.

## IZAN ZAITEZ GIZATAR

*Zuek, eskolatzailleok, guraso horiek bezalatsu jokatu ohi duzue guztiok: haurtzaroan traketsago izanak, edo gogorrago gero haurrekin. Edo beste horiek bezalatsu, ustez-eta oso arinki ibiltzen ez direla, pausu bat egin orduko, aldamenean daramaten haurrak ezin jarraituz, hiru egin behar dituela konturatzen ez direnak.*

*Zeron eskuetan dituzuen haurrak, nagusiak balira eta ahalmen berberak balituzte bezala jokutzen duzue; eta denean zeron nagusi-izakeraren, aukeren eta jabekundearen arabera egiten.*

*Jar zaitetze, ordea, nota txar bat edo ilaran oso beheko postu bat emanez oraintxe mindurik dadukazun haur horren lekuan. Oroi zaitetze lehenengoan artean irtetean izaten zenuten harrotasunaz, eta besteak zuek baino lehenago gertatzean nabaitzen zenituzten txarkeriez... Orduan ulertuko duzue, eta postu-ilara kenduko.*

*Eman dezagun haur batek eskolara bidean gerezi batzuk lapurtu dituela, edo tinta-ontzi bat puskatu, edo ateka zail batetik irteteko gezur esan duela. Ez duzue zuek inoiz gaztaroan gerezi alerik ere lapurtu? Ez ote zinateen zerok denetan minduenak tinta-ontzia puskatzean? Ez ahal zaizue gogoratzen ezinbestean gezur esatean jasaten zenuten trajeria? Ez zarete oroitzen*

gertatzen zitzaizuenaz? Alegia, ateka gaizto hartatik ateratzeko, ez zegoela benetan zeron ustez gezur esanez besterik; eta oso maiz gezur hura, ondikotz!, arlote, maingu, herbal, sineskaitz eta ahul gertatu ohi zitzaizuela?

«Haurren pareko bilaka ez bazaitezte»... ez zarete pedagogiaren erreinu liluragarrira sartuko. Zeron haurtzaroaz ahaztutzen saiatu baino, hobe duzue gogoratzen saiatzea. Bizi zazue berriro zeron ikasleekin; konpreni itzazue giza-giroen liferentziak ekartzen dituen desberdintasunak; uler ezazue egungo haurtzaroa horren basaki hunkitzen duten gertakarien eragina. Uler zazue haur horiek larri-larrian zerok orain dela belaun bat zinatena direla, ez zinatela zuek haiek baino hobeak, ezta berak zuek baino okerragoak; eta eskola eta gizarte giro hobeak balute, zuek baino ere hobeki egingo lutekeala, eta hau pedagogia-arrakasta eta aurrerapen-bahitura litzakeala.

Ezerk ez zaituzte hobeki horretaratuko, haurrak beren burua hitzez, idazkiz, marrazkiz eta grabaketaz adieraztera bultzatzen dituen teknikak baino. Eskola-kasetak inguramenduarekin lotura egiten lagunduko du, eta hau heziketaren oinarria da beti. Nahi izana den lana osoki eta guztiz gogoz egiten da, eta gainerakoa ere ematen du, bidenabar pozik bizienak eskainiz...

Eguzkiak dir-dir egingo du...

## JOKABIDE LAGUNTZAILEA HELBURU

Puntu bat dago gure teknketan zailena: *aginpidezko eta larderiatzko jokabideari* utzita, *jokabide laguntzailera* aldatzea.

Denak bultzatzen gaitu aginpidezko jokabidera: eskolaldi guztian jasan dugun aginpidea bera lehenik: oharkabea, geure barruan badaramagu guk hura mendekatu nahia. Soldadu bakoitzarengan dago, lozorroan, sarjento bana. Eta erakasle gaztea sarjento bihurtzuko ez bada, benetan egin behar dio gogor bere buruari.

Horri erants ere pedagogia osoa, eta psikologia bera ere bardin, gaur arte jokabide hori zuzenesten eta zuzitzen saiatu direla, eta haurrak bere buruz ezer egiten ez dakiela frogatzen; edo, areago ere bai, Elizak erakatsi bezala, haurrak gaitzaren sustraia ezta itzala bere muinetan daramala. Hezi, zuzendu eta agindu egin behar zuen beraz nagusiak haurra, honen gutiziez eta joerez jaramonik egin gabe; baita joera eta gutizia horien kontra deliberatuki jokatzuz ere, zeren-eta sorkurak oro itsusi, goganbehar-iturri eta, batez ere, jaiotzazko nagikeriaren sustatzaile bait zitzaizkion; eta nagikeria, jakina denez, eskolatzailearen etsai nagusia da.

Arazoa, bestalde, gauza garbia eta erraza zen itxuraz; lurreko gainaldearen gorabeherez eta eragozpenez kasorik egin gabe, eta dena zuzen-zuzen egingo litzakean bidea ijeneruari erraza izango litzaiokean bezala. Baina ijeneruak orduan haitzak topatuko lituzke bidearen erdian; eta honela geldiarazirik, bazterrera jo behar ko luke ezinbestean; eta topatuko lituzkean uxolei, era berean, ez-ikusi soila egitea aski ez izanik, nahi-ta-ez igaro berako lituzke gainetik zubi baten bidez.

Antzinako pedagogiaren arabera, eskolatzailleak antolatzen zuen bere lana, bere ariketak eta ikaskaiak bere buruz hautatzen; eta ez zituen kontutan ezertarako hartzen Eskolaren ekintza eragotziko zuten haur-izakera, edo gainditu ezinezko beste behaztoparriak. Erakasleak, horrela, bere hutsak aitortu beharrean, jaun-da-jabe agintzen zuen, eta bere hutseginak eta eskasiak haurren lepora jaurtitzen zituen; ijeneruak haitza eta erreka mardikatuz aski egingo bait luan...

Hau ez da batere hanpatua edo gehiegikeria: Frantzi guztian erabili behar ziren eskola-liburuak Paris-en egiten ziren (edo beste nunbait), eta huraxe zen eskolako erakaskintzaren oinarri bakarra eta ezin-aldatua. Aski zuen erakasleak hura betearaztea. Eta gauza ongi ez joatekotan, gogor hartzen zuen jendea, eta «errudunak» gogotik jipoitzen.

Honetaraz gero, eta haztamuzko saiakuntzaren bidez lortzen den heziketa zehatz ulertzeko, on luke irakurleak ene «Essai de Psychologie sensible» delakoa irakurtzea. Han ikusiko luke nola, ehunetatik larogeitan, ariketak eta ikaskaiak sorkuntza eta saiakuntza-lanaren gelditzaileak diren; nahiz bi horiek gabe, hain zuzen, ezer sakonik ezin eraiki badaiteke ere. Funtsean haurrak bilatu behar du, lanegin, saiatu eta sortu. Honetantxe datza gure eginkizuna: Eskolak zenbait aldiz 10/13 urte-tako haurrengan erauzi eta funditu duen bilaketa eta saiakuntza-gogo hori berriz abiaraztea eta piztutzea.

Haurren lana eta saiakuntza lortzeko, bilaketa eta saiaketa horientzako tresneria jarri behar dugu haien eskuetan. Horregatik utzi dugu alde batera horrenbeste gauza, tresneria hori sortzearen eta metatzearen truke.

Eta horregatik diogu gaur eta beti lan-tresneria hori dela gure tekniken oinarria. Lelokeria dirudi honek; baina eskolatzailleek, itxura denez, ez dute zeharo sinetsi nahi.

Eta, noski, geure jokabidea, geure irizkera, aldatu behar ditugu arrunt. Haurra nahastu delako atsegin izkutu gaiztorik nabaitu eta zigorketak eman beharrear, lagun dezagun beti eta beti eragozpenak gainditzen eta goitzen, eta beti garaile irteten.

Sarjentoaren partea, otoi, kito bedi gudan. Orain, geure berezko ikaspideen arabera, gizon *laguntzailea* gara gu; eta amak bezala jokatu behar dugu, alegia, *laguntzaile* nagusia den amak bezala.

Ez bildur izan zeron haurrak laguntza horretara jarritan beren buruz ahaleginik egin ez dezaten. «Betebeharra» baldin bada ariketa, lasai utziko zaitu zuk hura egitera. Haren izkribua inprimatu behar baldin bada, berriz, edo marratu egin behar bada, edo hariak ebaki, edo telefono bat muntatu, berehala ikusiko duzu haurra tresnak hartu nahiz ezin sosegaturik, eta ariniketan lanean abiatzen; oraindik ere hanken gainean koloka dagoen haurra zuk zeure ondoan atxiki nahin izan arren, ausarki abiatuko zaizun bezala.

Ez zaitetz bildur izan haurrak laguntzeko. Biotatik bat: edo lanak ez ditu hunkitzen eta interesatzen, eta honetara bada berdin izango da beren buruz lana egitea ala zuri begira paratzea. Edo haien egiazko ekintza esnatzen jakin duzu, eta orduan haurrak berak gerizatuko du lanegiteko bere eskubidea.

Berezko izkribuen orrazketan lagundu behar dituzu

zeure ikasleak. Zure laguntza zeharo haien asmoaren barruan sartzen ez bada, lasai egon: mar-marrean nabarmenkiro hasiko zaizkizue.

Hitzaldiak eta albumak prestatzen lagunduko dituzu, zientziatzko eta kondairatzko lanak burutzen ere bai.

Eta dena zerorrek egin, eta haur-lan gisa aurkeztuzten duzuela diotsuen horien esamesez ez duzu kasorik egingo. Haurrak haien aurrean lanean ari erakutsiko dizkiezu halako batez; edo, handiroago, erakusketa baten kariatz. Eta berek erabaki dezatela orduan ikusitakoaren arabera.

Oraindik markesturik ez dauden haurrekin, arazoa erraz xamarra da: berehala aurkitzen dute hauek lanegiteko eta ikasteko beren jatorrizko gogoaa. Aski izango duzu orduan ekintza-gogo horri eustea. Horregatik, aisago egin daitezke Eskola Berriaren saiaketa hauek Lili-tegiaren mailan, eta CE delakoraino, gerokoetan baino.

Puntu batetaraz gero, ordea, gauzak aldatu egiten dira. Makina ez da berriro normalki abiatzen. Ez da aski guk geuk geure burua berriro hezteaa: haurrak ere behar ditugu hezi. Eta, hori ikusita, beharbada zalan-tzan jarriko duzu gure aholkuen zuzena, eta bide zaharretara jotzeko gogoaa etorriko zaizu; bide haietetatik ez bait zegoen horrenbeste kezka eta istorio. Bakar bat baizik halere... ia zertan zetzan gizonak hezteko eta emateko Eskolaren ezintasun osoa. Hots, hauxe da Eskolaren kakoa bera.

Ausarta ala izuti, Eskola Berriko Freinet-Tekniketan hasteko puntu honetan zauden horrek: otoi, erabil zazu gogoan aholku funtsezko hau. Lantegi berrira gidatzen



gaitun laguna bezala gaude: honek makinak presentatzen eta azaltzen dizkigu; baina, noiztenka, gelditu egingen da; eta bere esperentziaren berri ematen digu, ondorioak zehaztuz, eta aurrera ateratzeko balio handikoak izan dakizkigukean aholkuak emanaz.

Eta gure lagunek egin dizaiguketen faborerik handiena ez da, uste izan litekeanez, hau entzutea: zure teknikei esker ikastaldea hobeki doa, eta sail guztietan fruitu ederrik bildu dugu. Areago hunkitzen gaitu geure jarraitzaileek batzutan idatzi, eta zenbait aldiz gelditurik edo klasearen kopuru handiegiak trabaturik, halere honela esateak: zure teknikei esker gizon bat bihurtu naiz orain, neure lanbidea maitatzen ikasi dut; eta, benetan, hauxe zait lanbiderik ederrena.

## EZ ZAZU EGIN ALFERRIKAKO SOLDADU-LANIK

*Badakizue pasadizua — ez bait da hau kritika bat —. Bazeuden behin kabo bat eta bost soldatu; eta patioko mutur batetik bestera garraiatu behar zuten legar-pilo handi bat.*

*Noski, prestatu egin behar aurrenik, presarik gabe, eginkizuna ez bait da oso bizkorgarria. Ordu laurden bat beranduago, horretara, hantxe dugu taldea, lanerako prest; kaso honetan bai lanik bai talderik aipa badaiteteke bederen. Soldadu batek karretilaren besoak heldu ditu eskuez; baina nekatzean beren gainean eseriko da. Bigarrenak gurpilak zaintzen ditu, eta orekarengatik behar izatekotan, gainean ere eseriko da. Eta pala bana duten gizonak zertan ari dira? Kaboa bigiratzten dute;*

eta honek haiengana so egiten duenean, zapa!: legar-palakada bat...

«Jaiki zaitetze, alferrok!», esan du halako batez buzo urdinez jantzitako langile batek: «Nik neronek, inolako laguntzarik gabe, zuetako bost taldek baino lan handiago egiten dut»...

— Ez duk hori — erantzun diote eskola eta ezaguera badutenek —. Ez gaituk gu zibilak, eta ez zigutek hemen piezaka ordaintzen. Zer egin behar dugu? Bestela jokatuz, denak nardatuko genizkiake: bai zaindu behar gaitun kaboa, bai tenientea ere. Eta bukatzean hau esango ligukek honek: «Berriz has... Bihur zazue legar-piloa berriro lehenago zegoen lekura!». Konprenitzen duka? Etxen egotean egingo diagu bikoitza. Hemen soldadu-lana egiten diagu: ez dik bururik ez hankarik. Soldaduak nazkatzeko egina zegok, eta zerga-pagatzaileei kasernan langile asko eta iaioetakoak behar direla sinestarazteko».

Zergatik gogoratu behar ditu horren maiz, ordea, eskolako lanak soldadu-lan horiek? Alferrik garraiatu dugu guk esku-liburuak josirik dauden legar-pilorik? Eginarazi ote dugu guk horrelako ariketarik? Alegia, ingurraztiak beztutzeaz eta betetzeaz beste funtsik ez duten horietakorik, ordu luze etsigarritan barrena lizifrinaz eta hertsiki eginaraziak, eta eginbearra ezerk ere bizkortzen eta elikatzen ez zuelarik? Entzun ote dugu esaldi zorigoiztoko hilgarri hori: «Berriz has!».

Soldaduek eta kantariak gogotik farregiten diete legar-garraoiari, patata-zuriketari eta gorbata-korapiloei. Baliteke, bestalde, buruzagiek zinez pentsatzea besterik, eta soldaduaren gudu-heziketan oso beharrak direla ari-keta horiek.

Oraindik, ordea, ez dira kantutan eman Eskolako ariketa etsigarriak ingurraztietako tinta gorriak, eta ikastalde oso bat, arimaz eta gorputzez, ibilkera geldian eta arras bateraturik, ordenukerian eta lizifrinan ibilarazten den erritmoa. Taxukeria eta larderikeria horiei atxikitzeko, ordea, haurrik azkarrenak eta zuhurrenak gudu-katu behar ditu Eskolak, laisterregi bukatzen dutenak hain zuzen; benetan hauei «berriz has» esatea gogorregia bait litzake. Lege bat dago beraz eskolako giroan. Errespetatzen ez duenak hankaz gora botatzen du bati-mendu osoa. Hots, zuk arrisku hori hartu behar duzu zeure gain. Azter itzazu leialki zeure ikastaldeari egina-razi nahi zenizkioketan ekintza guztiak. Uxa itzazu soldadu-lanak; eta orain egitera behartuta baldin bazaude, egizkizu; baina jakizu beti soldadu-lanak direla, eta ez dutela helbururik ez ondoriorik.

Azkar! Azkar! Bizkor itzazu zeure haurrak, beti ere azkarrago eta urrutiago joan daitezzen. Aski duzu horretarako sortzeko eta burutzeko beharra elikatzea, behar hainbatetako ekintza-mordo bat prestatzea. Hain zuzen ere badago, bai, zer eginik.

*Utikan soldadu-lanak! Horra hor etsaia!*

## PRATIKA BETEAN SARTZEKO

Ez da gure asmoa teoria-aholku eman, eta kitto; praktika betean berehala sartzea baizik.

Erakasle gazte batek Urrian ikastalde berri bat hartzen duelarik (eta horren hasi-berria ez den erakasleak ere hor nunbait), zer problema agertzen zaio? (Kezka-

-ilararen arabera jarri nahi nituzke denak. Hutsegiten badut, edo katramila nagusiren bat ahaztutzen baldin bazait, pozik nintzake oharra egiten dutenek zuzendu eta idatziko balidate).

1 - Nola atxik aginpide edo larderiari?

2 - Nola eman ikaskaiak, ordu-jarraipideen eta programen errespetuan?

3 - Nola egin haurrak gisaz aurrera daitezen?

4 - Nola joka gurasoak pozik egin daitezen?

5 - Nola egin Kontrolaria pozik egon dadin?

6 - Laguntza gisa: nola egin neure klasean giro ona izan dadin, eta neure ikasleekin gizatar harremanak izan ditzadan?

Horra hor geure jarraipide honetan barrena azalduko ditugun puntuak.

## AGINPIDEA ETA LANA ARRAS ELKARTURIK OMEN

Hona hemen uste izaten den baino maizago aditzen den iritzia.

Mendeetan barrena haur-talde gaitz eta bildurgarrien aurrean gertatu diren erakasleek, irizpide hoberik ezean, armadaren saiaketa izan dute gidari, hau eskola baino lehenagokoa delako, eta beti ere armadak jendeak harritu izan dituelako.

Armadan, ordea, aginpidea dator aurretik; eta atzetik eta gero lana. Iskilua erabiltzen hasi baino lehenago, herrenkadatan paratzen eta tente egoten ikasten da. Antzinako ofizialek arreta handiago jarri ohi zuen bere soldaduen lerroketa zuzen zehatzean eta ibilkera akonpasatuan, eskualdeen araberako taktiketan eta etsaiegandik gerizatzeko jokabideetan baino. Azken bi guduetako gertakari trajikoek, halere, lehenengo aldiz maila hori gainditzera bultzatu dute; eta puntu askotan Eskolako aginpide-molde zaharrak baino aurrerago eraman.

Hots, antzinako armadarekiko antz horretatik heldu dira eman dakizkizukean aholkuak; eta hauen bitartez beti desegokiro era eragabeki saiaturen gara geure jokabidea zuzentzen.

Hau esango zaizu: izan zaitez gogor eta urrunkor; agintzen duzunean, nahiz egia beharbada ez duzula somatu, betearaz zazu hertsiki esandakoa; beti isiltasuna aurretik, besoak gurutzaturik segidan, eta zigor-saila eta lerro-piloa beti gertu.

Irteerarik ez horrela.

Noski, ene lagun hori: bide horretatik aginpide militarra nagusi-araz dezakek heure eskolan, itxurazko eta ikuskari. Agian gurasoek ongi atxemango ditek gauza: horra hor bere burua errespeta-arazten dakien maisu bat... Kontrolaria ere, baliteke, hunkitua izan duk. Baina, baita nota onik eta aurrerapenik lortzen baduk ere, beti izango haiz zoritxarrekoa; lanbidez nahasi bait haiteke, eta tenientea bilakatu bait haiteke eta ez erakasle.

Horrela eginez, gure lanbide hau apezgotzat harrazten diguten poz sakonak ez dituk ezagutuko. Hire

eraginari dagokionez, berriz, eta ikasleengan hire ekin-  
tzak ekarriko dituen fruituez, ongi zekiagu jakin arma-  
daren itzal hezle, eskolatzaille eta bertute-emaileaz...

Eskolatzaille izan nahi baduk, jarrai hakigu!

## LANAREN LIZIFRINA

Benetan interesatzen dituen ekintza-mota bat hurrek  
eskolan aurkitu duten mementoetan (gutxitan horrela-  
korik, zoritxarrez!) gauza bat erreparatu dukek: ez duala  
hik zertan heure burua sarturik, inori errietan eginik  
edo zigorturik. Lagundu egiten duk; eta besterik gabe  
lan-gintza hartan sartzen haiz hi heu ere.

Kiroletarako moda berriak, beti gora ari, erruz la-  
gundu du lizifrina-molde berri honen nagusieran. Talde  
baten burua ez da kanpotik zuzentzen eta agintzen due-  
na. Buruak bere ondorik erakartzen ditu talde-kideak,  
garaitzapenen kuntza da, eta bera gabe zaila litzake  
taldearen bizia.

Ezin gaitezke bazterrean gelditi, eta arkatza eskuan  
hutsak eta lizifrina-hausketak zigor. Ikastaldearen bizian  
sartu behar dugu, taldekideak bizkortu, haien eginki-  
zunetan parte hartu, eta gu gabe ez arrakastarik ez  
garaitzapenik litzakean laguna bilakatu.

Hau ulertzen eta erabiltzen lagundu nahi zaituztegu.

## AHOLKU PRATIKO BATZUK

eman genizkiake halere, eta hauen balioa elkarrekin  
azter.

Ez bait gara, ez horixe!, ideien mailan ari. Gure taldera datozen haur horiek, hain zuzen ere, piztu nahi geniekean heziketaren kontrako joera zekartek. Aginduak izaten ohitu dituk, eta agindu horiei ihes egiten; higan etsaia somatzen ditek; eta hire aginduen zai zeudek, betetzekotan ez, baina agindu horiei itzurtzekotan.

Nahi baldin baduk, eta nahi ez baduk ere gauza bera, haseran bederen ez hago heure *haurrekin*, heure haurren *aurka* baizik. Heure aurrean dituk, heure ahuleriak miazten eta bilatzen ari, eta somatzen den burrukari buruz puntu batzuk irabazteko asmotan.

Bazegok, nolapait esateko, aldaketa bat. Berezko aginpiderik baldin baduk, aurkatasunaren eta etsaigoaren gorabehereri kolpe zatarrrik gabe nagusitzen gauza baldin bahaiz, hire eskola ongi hornitua baldin bada eta lan onuratsurako taxutua, orduan lasai jo dezakek aurrera. Luzaroan jasan eta ezagutu duan aginpideak sobera markatu bahau, berriz, —eta haxe izaten duk guretako % 90-ren kasoan,— lanaren lizifrina zakarkeriarik gabe iristeko, hire eskola aski horniturik ez badago kontuz ibili beharko duk heure jokabidea ahuleziatzat edo men-goatzat jo, eta puntu pisuak haseratik gal ditzaan bil-durrez.

#### AGINPIDE BERRI BAT: ELKARTEA

Ez duk arazo hori, dena dela, gerorako utzi behar, ohitura onak hartu eta heure aginpidea finkatu zai.

Hobe duk haseratik heure asmoak argi-eta-garbi azaltzea; baina inolaz ere desordenua edo itzalik-eza onartuko ez dituala garbiri agertuz.

Eta *Elkartearen soluzioa* azalduko duk.

Bazekitek segurki hire hurrek gutxi gora-behera El-karte bat zer den. Gure aldizkarietan bilatuz, dena dela, elkar-lanen etsenplu pozgarriak eman dizaizkiekek: es-kola-kaseta, jaiak, elkarte-loretegia, eskola-bidaia, kide-kuntzaren gutuneria; eta diru-altxor bat ere izan eta erabil dezaketela azalduko diek.

Orduan haur horiek zerbait benetan aldatua dela sinetsiko ditek; eta eskolako arazoak aginpidearen mailatik kanpora jarririk daudela ulertuko.

Ahal baduk, egin zak hik heuk lehenengo urratsa, oso zinki jokoan sartu nahi duala adierazteko. Eta be-rehalatik, eskolan lorategirik baldin badago, emaiok El-karteari: osorik, edo parte bat. Elkarte-lanarentzako uz-tak eskolako xoko bat: karrajo bat, aldameneko gela bat, edo, ongi garbiturik eta taxuturik, ganbera gisa erabiltzen den tresnategi-xokoa bera.

Elkartea ez da sekulan teoriaren mailan utzi behar. Segituan behar da txukundu eta antolatu dena.

#### IZENDA ITZAK ARDURADUNAK

Elkartearrekiko gogo bizia baliatuz, egin zak aginpi-dearen lehenengo emaitza bat, baita txikia eta xuhurra baldin bada ere.

Izenda itzak lehenengo arduradunak:

- goizeko garbitasunarena;
- klase-barruko taxuketa eta txukunketarena;



— elkarte-xokoaren moldaketarena.

Beharbada baita Elkartearen Lehendakaria ere izenda dezakek; baina izendapen hau eginez gero, garbiki azalduko duk bolara baterako baizik ez dela; eta gero egingo direla Elkartearen biltzarrak, et hauetan araudiak eta gainerakoak erabakiko.

Ez adi abia elkartean, dena dela, itxuren eta araudi bidetik. Lehendabizikorik emaiok Elkarteari zimentu gotor eta bizi. Gero etorriko duk erakundea.

Hire proposak arrakasta gaitza izango dik. Teorian berehala izango dituk ados haur guztiak horrelako lizifrina eta lan-tankerak onartzeko. Baina ez adi sobera lilura. Ez duk aldaketarik faltako. Eta geroko egunetan ez zaik beti erraza izango Elkarte-legeari arduradunek, ez gainerakoek ere, gogoz men egitea.

Berriz mintzatuko gaituk honetaz.

Eta luzatu gabe, bide berri batetan abiatu nahi duala erakusteko, heure ikasleak harritu ere egingo dituen keinu hanpurus bat egitea gomendatzen diat:

## TAULADA KEN ZAK

Ez duk inolaz ere heure burua garbitu behar ideologiazko arrazoinen bidez. Esak hau soilki: gure ikasgela honetan lan-mahainak eta aulkiak ezarri behar ditugu oraindik, eta ez dugu aski lekurik. Taulada honek, nahiz batzutan pratiko izan, galazi egiten du ikaragarri. Mahaina baizik ez badago, berriz, dena errazago izango da. Hobeki moldatuko naiz zuekin lanegiteko.

Taulada bera mahaintzat erabil dezakek, eta hire taldea laister jarriko duk lanean. «Ecole Buissonnière» delakoan bezalaxe ez zak taulada porroska eta desegin. Ez duk beharrezkoa. Eta horrek ez lizkiake beharbada denak alegeratuko.

Beti ere, bestalde, eta enkas, hobe duk administrazio-mobleak ez ikutu. Nagusitasun-ikurra kentzea aski izaten duk.

Nolanahi ere, ez zak uste izan Elkartearen bide honek koska guztiak berdinduko dituenik. Ederregi huke!

## FORJATUZ BILAKATZEN FORJARI

*Atsotitz honek ongi azaltzen zuen aspaldiko artesani-giroko erakaspena: alegia, saiakuntzaren eta praktikaren bidez hezteko, eskolatzeko, ikasteko, eta etorkizuna gidatu eta finkatuko dieten keinuetan eta jokabideetan trebatzeko, ikasle berriak zeharo murgildu behar duela lanbidearen orean, eta haurrak eta gazteak berebat bizieraren mainuan.*

*Eskola, ordea, betidanik, aholku bidezko horien kontra ari izana da. «Egia da — diosku Eskolak — forjatuz bilakatzen dela forjari. Bidea luzea da, ordea, nagia, praktikoeiegia. Har itzazu liburuak, eta azal itzazu; frogazazu logikaz, hitz egizu, xahu zazu txistua. Saiakuntzaren denbora aurreratuko duzu, zeure lanbidean barrena laisterrago eta urrutirago joango zara».*

*Horra hor pedagogiaren kakoa eta behaztoparria batera. Horra hor eskola bizieratik aldendu, eta eskolas-*

*tika bihurtzen den bidartea. Hots, guk geuk ere, bidarte horretantxe behar dugu hautatu eta geure burua noratu.*

*Inundik ere ez dugu guk uste liburuak, logikaren araberako argudioak eta hizketa argitsua alferrik direnik. Aurrerapenaren baldintza bera dira, hain zuzen.*

*Baina saiakuntzak bere oinarria eta bere sustraiak pertsona eta gizarte-bizian itsatsi ez ditueno, ez da libururik aipatu ere behar.*

*Geroko aitzinamenduak baldintzen dituen maila honi gagozkiolarik, hau izango da gure betekizuna: jokatzea, alderatzea, saiatzea, xuxentzea; ekaiak beren horretan, eta erdizka mekanizatutako piezak ez-ezik, sortzapen eta bizi-lanak ere entseatzea eta xuxentzea.*

*Pentsakera hau ez da batere berria eta bitxia. Lekukotasuna emale aipa genitzakean guztiek gauza bera esan dute. Baliteke teknika eta gaitasun hori izatea denon berezkunea.*

*Forjatzeko, forjariak ez ditu txistua eta logika abstraktoa behar, baina ingurea, mailu eta trukesa batzuk, eta sua. Eta erabiltzen jakin behar dira, eta ideiak eta hipotesiak erabiltzea bezain zaila da tresna horiek erabiltzea.*

*Bidegurutze horretan, beraz, berriketa-eskolaren orde, lan-eskola jarri nahi badugu, geure beharren eta aukeren araberako lanabesak beharko ditugu bilatu, sortu edo prestatu; eta geure eskuetan jarri diren bizien gertakarien artean baliatzen jakin beharko dugu, edo birrikasi bestela. Arragoa gori-gori atxikiko dugu, ez dugu errekaiez betetzen eta auspotzen ahaztuko, arragoan*

*edozein metalki bihurtzen bait da guri eta moldagarri,  
eta gizonak nahi zituen forman finkatzen.*

*Ez pentsamena, ez sendimena, ez gizarte-beharra, ez  
logika, ez artea dira lantegia honetan faltako; eta horre-  
la, forjatuz alegia, prestatuko dira biharko forjari erne  
argituak.*

*Horra hor eskolatzailleen betebeharrak premiatsua: txis-  
tuaren eta azalpenen eskola, lantegi argitsu eta malgu  
bihurtzea.*

## **GURE IKASTALDEEN LAN-ERAKUNDE BERRIAZ**

Ezin dezakegu txosten honetan sar erakunde honen xehetasun guztien berri. Laburtzapen bat emango dugu, beraz, eskema bat; eta beren ikaspena osatu nahi duten pertsonak, aski dute Cannes-ko «Ecole Moderne»-enean salgai dauden liburu eta liburuskak bereziak erostea eta irakurtzea.

### **OLDEZKO IZKRIBUA, ETA HONEN PEDAGOGIA-BALIAKUNTZA**

Ez ditugu berriz aztertuko irakurrera eta idazkuntza. Azaldu dugun teknikatik (azaldutako eran erabilia) has daiteke hemen, maila honetarako erraza eta fruitukorra izan daitekean lana.

Ikusi dugunez, Oldezko Izkribuak, kasetak eta kide-ekiko gutunek interesatzen dute haurra, hunkitzen eta

berotzen ere bai zenbait aldiz. Geroztik ez dago ego-  
nean. Izpiritua zabaldu egin zaio. Beste izkriburik ira-  
kurri nahi du. Jakin egin nahi luke, eta anitz galdera  
egiten du. Zer gerta ere, ez dira inolaz ere berezko  
premia eta egarri horiek moteldu edo geldiarazi behar.

Aitzitik, elikatu eta azkartu egin behar dira, jaso  
diren izkribu horien ingurutik bide guztiak urratuz, baita  
denak ustiatzerik izango ez badugu ere.

Horri deritzagu guk *interes-gaien pedagogi-ustia-  
kuntza*.

Gurean honela aurkeztutzen dira galderak:

— *Oldezko Izkribuaren* bitartez; baina izkribua bera  
galderen eta jakin-minaren iturri bakarra izan daiteke-  
nik pentsatu gabe, oker egotea litzake-ta.

— hurrek Eskolara mota guztietako gauzak erama-  
teko hartu duten ohitura baliatuz: ganbaran aurkitutako  
foto edo paper zaharrak, eman dezagun; edo-ta kondaira-  
-aurreko harri, hildako txori, guraso-elkarrizketa, kaseta,  
eta abar.

— ikastaldeak berak egiten dituen inkesten bidez:  
kondairazko, kondaira-aurrezko, zientziazko edo geogra-  
fiazkoak.

— kideengandik errezebitzen diren kaseten eta gu-  
tunen bidez;

— ikasle-trukearen bidez.

Antzinako Eskola gauza herbala, txiroa eta hila zen;

eta erakaslearen betekizuna horretan datza: itxuraz ezertan pentsatzen eta ezer nahi ez duten haurren, haur-  
-indar ahulduak eta jakin-mina piztutzea eta sustatzea. Txirotasun-giro hura izadi-legeen kontrako erakaspideen ondorioa da.

Gu geu, berriz, aberatsak gara oso, aberatsegi. Taxutu eta antolatu egin behar dugu aberastasun hori, ez bait da beti posible izaten haurren eskaerak egiten diren minutu berean erantzutea.

Lana antolatzen dugu, beraz.

Batzutan hau gertatu ohi da: hautatutako izkribua hain dela bizi eta hunkigarria, hain dela tematzaile, gure ekintza osoaren adar guztiak hartzen dituela.

Txangotan irtendako gure ikasleek, eman dezagun, kondaira-aurreko haizkora bat aurkitu dute. Zenbait egunez eskolan ez da kondaira-aurreaz baizik hitzegingo:

— haizkora marratu beharko da, eta kideei sekulako azalpenak eman;

— inprimatu edo polikopiatu egingo diren izkribuen bidez, txangoa eta aurkikundea kondatuko ditugu;

— hari dagozkion paperak bilatuko ditugu, eta Era-kustokiko Zuzendariei idatziko diegu;

— mendeetan barrena lanabesak aldatuz nola joan diren ikertuko dugu, baita pikatzeko balio zuen harriaren mota, harri pikatuaren teknika, eta abar.

Hor, beraz, badago nagusien ekintzaren tekniken kide

bat; eta oso ikertzapen zinezkoak eta sakonak darakazki kondaira-aurrean, kondairan, zientzietan, karkuluan, geografian, artean, eta bestetan.

Horrelako egunak zoragarriak dira arras, ehun-ehuneko. Gure lanaren pedagogiaren buruz egunen batez oinarri izan litekeanaren oinarri dira. Ikasleak eta erakasleak murgiltzen dituzte laguntza-giro bero harri-garrian, eta honetan ahaztu-ezinezko kutsua hartzen du gure pedagogiak.

Horrelako egun batzuk aski dira urte oso batetan, elkarrekiko gure jokabidea aldatzeko.

#### LANEGITEKO PLANA

Interesen eta indarren astinaldiak, halere, horrelako mailan, bakanka baizik ez dira gertatu ohi.

Gehienetan beste abiadura batez erantzun beharko dituzu ikasleengandik hartuko dituzun eskaerak.

Langile finak ditugu, eta lanegiteko gaiak ez dira eskas. Nagusiek bezalaxe guk ere geure asteko *lan-plana* prestatzen dugu. Ikasle bakoitzak bere lan-plana du, eta honetan idazten ditu sail guztietan egin beharko dituen lanak.

Baina ez dago hor eskolastika-lanik batere, benetako lana baizik. Horretarako guk lanabes berriak darabilz-kigu:

— Elkarteko Eskola-Fitxategia;



— 400 liburuska duen «Lan-Liburu-sorta» (gaur egun, 1.000 ale);

— fotoak;

— diskoak;

— zientzia lanetarako kutxatilak.

Esku-libururik gabe, geure liburu eta liburusketa zehaztu ditugu langintza berri horren arauak; eta haietara jo dezan eskatzen diogu irakurleari.

Ez dago batere zalantzarik: lan-bide horiek, guztiz nagusiek darabilzkitenen antzekoak, oso egokiak eta onuratsuak dira beren eskubideez eta beren betebeharez ongi jabeturik dauden gizonak emateko.

Freinet-Teknikak benetan dira pedagogi-aurrerapen galanta.

## ANTZINAKO ERAKASPIDEEK BAINO MERKEAGO JOTZEN ETA GEHIAGO EMATEN DUTE FREINET TEKNIKEK

Baina hauen ekarriak benetan ahal dira herriko eskolen eskuarrean? Beharrezko tresneriaren erosketa ez ote dago zenbait Erresumaren diru-ahalmenetik urruti?

Alderantziz frogatzen dugu guk, hain zuzen, esku-liburuen erakaspidea dela sos eta indar xahuketa lotsagarria; eta Freinet-Teknikak, diruari dagokionez, zalantzarik gabe direla hobeak.

Esku-liburuen arabera, ikas-talde bereko guztiek li-

buru berberak izan behar dituzte. Lana pentsatuta dagoen eran, jakina; ezin liteke bestela joka.

Bataz beste, hona hemen 35 ikasleren talde baten-tzako behar dena (1957-1958 ikastaroan):

35 irakurgai-liburu,	400-na libera	.....	14.000 libera
35 gramatika-liburu,	300	.....	10.500
35 kondaira-liburu,	400	.....	14.000
35 geografia-liburu,	600	.....	21.000
35 zientzia-liburu,	400	.....	14.000
35 karkulu-liburu,	300	.....	10.500
			<hr/>
			84.000 libera

Beste laguntza-gauza batzuk erantsi behar zaizkio horri.

Diruketa hori, eskierki esan dezakegu, egia baino beherago dago. Hori baino gorago ez balitz, ez litzake liburuen inprimaketa dagoen bezain bapo ibiliko!

Hots, xahuketa hori izanagatik, taldeak sei liburu baizik ez du; eta, beraz, bakoitza 14.000 libera gostatu zaio.

Gaur egun (1969) honela karkula liteke:

35 irakurgai-liburu,	10-na libera (berri)	...	350 lib. b.
35 gramatika-liburu,	10	...	350
35 kondaira-liburu,	9	...	315
35 geografia-liburu,	9	...	315
35 zientzia-liburu	9	...	315
35 karkulu-liburu,	9	...	315
			<hr/>
			1.960 lib. b.

Diruketa horiek hobeki erabili behar direla uste dugu. Nola? Hona hemen:

	<u>1957</u>	<u>1969</u>
Eskolako Moldiztegia bat .....	25.000	490
Fitxategi pertsonal bat .....	6.000	70
Limografo bat .....	10.000	140
Elkarrekiko fitxategi bat, gero taldetan osotuz joatekoa .....	1.500	30
B.T.-sail oso bat (1969-an 450 ale)	20.000	730
	<u>62.500 l.</u>	<u>1.460 lib. b.</u>

Hots, denentzako tresneria horrek 10 urtez iraungo du; eta apurka eros daiteke gainera.

Urtean, beraz, 146 libera berri beharko dira (hau da, 2.000 pezta gutxi gora-behera). Erants dizaizkiogun horri diruketa txiki batzuk: urtean barrena moldiztegia eta limografoa ibilarazteko, dokumentazioa beti egunean egunekoa atxikitzekoa, eta abar. Egiten bait du, 1957-ko dirutan, 20.000 libera zahar.

Urteko xahuketa, beraz, 26.250 liberatakoa da; eta ez 84.000 liberatakoa. Heren bat baizik ez da, beraz.

Pratikan, gainera, badago besterik. Eskola-kasetaren inprimaketa, esate baterako, askotan izaten da diru-iturri bat, eta batzutan baita irabazketa-iturri ere. Eskola-kaseta ongi argitaratzen eta zabaltzen bada, lotura-aldizkari bihurtzen da Eskola eta fameliaren artean, Eskolaren eta herriskaren artean. Batzutan abonamenduek berek ordaintzen dituzte kastu guztiak.

Horrelako lan-eraketak, azkenekorik, elkarte-ibilera

eta moldaera adierazten ditu gure eskoletan. Hots, eskola elkarte giroan hobeki erabiltzen dira sartutako dirutzak.

## FREINET-TEKNIKEN ERABILKETA ANTZINAKO ERAKASPIDEENA BAINO ERRAZAGOA DA

Usu entzun ohi da Freinet Tekniken erabilketa ez dagoela edozein eskolatzailereren eskuetan; haurrak sakonki ezagutu behar direla, pedagogi-sena ekarri behar dela sorkuraz, eta apostolutzaren beraren mailako emana izan behar dela. Gutxi gora-behera, hortaz, hau adierazten da: Freinet Teknikak ez direla inoiz baliokoak izango talde argitu batez kanpo.

Xuxen ikusia da Freinet-Teknikak erabiltzeko tresneria berezia behar dela, eta horren erabilketan ongi jarri eta jabeturik egon behar dutela eskola-emaleek. Jabekuntza hori, markesturik ez dagoenarentzako oso erraza, ia ezinezko bihurtzen zaie antzinako erakaspideak luzaz erabili dituztenei. Pedagogia zaharreko herrialde guztietan, erakasleek antzinako moldeez erabiltzen dituzte gure teknikak; eta hau ez da gure helburua, ez urririk eman ere. Eskola Normaletan beretan sakonki faltsuturik presentatzen dira gure teknikak.

Halaz ere aisa frogaz genezake erakasle gazte bat laisterrago jarriko dela Freinet-Tekniketara, beste erakaspidetara baino; eta hobeki ere garaituko duela.

Lanaren garrantziari eta kalitateari dagokienez, berriz, ez dago zer alderaturik. Antzinako eskolan, erakaslea irten zai dago. Orduak luze jotzen diote, eta osakin gisa beste orduren bat eginaraztea ezinezkoa litzaioke.

Gure tekniken bidez, aldiz, erakaslea gogoz lotzen zaio lanari, lan txikiagoaz ondorio hobekak lortzen ditu, eta zainak batez ere arriskutan jarri gabe lortzen.

## ZEIN IZANGO DA PEDAGOGIA HONETAN BEGI-BELARRI-TEKNIKEN PARTEA?

Beste oinarrizko erakaspideetan horren maiz aipatzen diren «begi-belarri»-teknikei («audio-visuelles» delakoei) zer leku ote dagokie gure pedagogian?

Jakintza-bilketa, berri eta albiste-bilketa, nolana ere presentaturik ere, ez dira kulturaren atal bat baizik, eta ez nagusia. Jakintzak eta berriak ez dira aberas-taile pentsaera, ekintza eta biziera-sistema logiko eta gizatar baten barruan sarturik baizik.

Begi-belarri teknikek, ordea, sobera hanpatu ohi dute ezaguera-pilaketaren alderdia, pertsonaren beraren heziketaz, orekaz, eta gure kulturaren oinarri den saiakuntzaz kaso handirik egin gabe.

Begi-belarri teknikak ezin daitezke izan gure sisteman informazio-eraskin bat baizik; eta gauza bera El-karte Eskolako Fitxategia eta Lan-liburutegiak.

Gure eskuetan zientziak jartzen dituen aukerak ezertan gutxietsi gabe, etengabe eta arreta guztiaz bihurtu behar dugu guk saiakuntzara, oinarriak ez bait dira finkatzen irudiaren edo eleketaren bidez, frogaketaz eta ekintzaz baizik. Etorkizun dagoen kulturaren izana bera, zimendu horien gotortasunean datza. Kultura-mota hau ez duenak, nahiz hitzezko, belarrizko edo begizko eza-

gueratan aberatsa izan, alferrik saia daiteke. Ez ditu gizonaren ezagugarri bereziak izango: alegia, logika, egiazko jakinduria eta zuhurtzia.

Gure teknikak, horregatik, edozer baino lehenago bertute horiek nahi dituzte iritsi. Eta gero, horrelako oinarrien gainean, zoritxarrari ihardukiko dioten murruek eta estalkiak eraikiko dira.

Orduan bai: gure eskolak bere funtsezko betekizuna beteko du: *funts eta zimendu* bilakatzekoa.

Hitz gutxitara biltzeko:

— Freinet-Teknikak benetan dira balio apartakoak egiazko heziketa-lanetan;

— Freinet-Tekniken arabera eskola bat antolatzea merkeago da antzinako erakaspideen arabera baino;

— Freinet-Teknikak ezin xinpleago dira, eta edonoren eskuarrekoak;

Honengatik guziagatik:

— beren erakaspideak berritu nahi dituzten nazioek, Freinet-Tekniketara jo behar dute;

— beren erakaspideak antolatzen ari diren nazioek, era berean, hobe dute guztiz Freinet-Tekniketarako hornituz joatea.

## ZER IZANGO DA ESKOLA: LANTEGI ALA KASERNA?

*Egun batez galdera hori egin nuen nik: «Zer izango da eskola, lantegi ala kaserna?».*

*Geldituko ez ahal da kaserna?*

*Kaserna zer da? Batimendu luzetzarrak, denak patio aldera zabalduak; eta patioa batera betebeharrak eta erre-bista, zigor eta erakus-leku; eta eskailerak eta karrajoak falta ez zaizkiola. Kasernari dagokion giro berezia, bizi-tik urruntzen du; kasernan ez bait da kanean eta bizieran bezala jokatzeko, kasernan beste lege hau bait da lege nagusia: nola itzur agintariari, eginbeharretatik nola ihes egin, denbora nola alferrik honda, eta «irten arte»ko egunak eskolako mutikoen bezala nola konda!*

*Kaserna! Han ikasten da, bai — eskolan ordurako ikasi ez bada bederen — sarjentoari erne begira, lusa-gar bat eskuetan ahalik eta luzeenik atxikitzen.*

*Han ikasten da pala eta esku-orgattoa geldi-geldiro erabiltzen, esku-orgattoko kirtenen gainean abilki eser-tzen, alegia, sarjentoak begira baleza berehalaxe lanari eusteko moduan. Kasernan ikasten da pala bat erdi be-terik atxikitzen, baina lurretik jaso gabe; eta agintariak begiratzeko gero, segituan jasotzeko moduan. Kakoa ez da han harri-piloa garraiatzea, baina lanegiteko itxuraz ere ez garraiatzea hain zuzen; ahalik eta gutxienik egi-nez eginkizuna iraun-araztea, betebeharrak horrek berak berez funtsik ez bait du: neke-karga bat delako, eta ez lana. Sarjentoa honela mintzatu zaizue: «Garraia zazue harri-pilo hau patioaz bestaldera!». Zergatik esan du hori, ordea? Soldaduak zerbaitetan ari jarri behar*

dituelako, nahiz egin behar duten horrek ezertarako  
balioko ez badu ere. Eta giro hartan onarturik dagoen  
legea soldaduek edozergatik errespetatuko ez balute,  
azkarrago bukatuz eman dezagun, berehala etsi-araziko  
lituzke sarjentoak behin-da-betirako:

— Dagoeneko bukaturik? Harri-piloa haraino osoki  
garraiatuta?... Alajainkoa! Tira, bada! Entzun ongi: baz-  
kal orduko orain, harri pilo hori lehengo lekura berriz!...

Kaserna-lana deritza horri; kaserna eta zigor giroan  
betetzen da, mozkin negatiboa ematen du batzutan, edo  
% 1 agian; edo, ustekabean, % 10 batzutan.

Gaur arte Eskolak horren gutxi eman badu (edo on-  
doriotzat kalterik ekarri ez duelarik) ez ote da izan  
kaserna egon delako, eta lantegiko dinatasuneraino hel-  
tzen jakin ez duelako?

Gure «*mea culpa*» egin dezagun.



## **OSOKI ERABILI BEHAR DIRA FREINET - TEKNIKAK**

Ala, alderantziz, piskanaka hel daiteke, aukeren eta beharren arabera? Eta, baiezkotan, zein teknikatatik eta zein tresneriatatik hasi behar da?

Guk geuk eta beste lagun batzuek oso maiz ikertua dugun «abiadura»-arazo honi nahi diogu ekin apur batez; konturatu ez arren, departamenduetako gure taldeen kezka-gai nagusia hori delako.

Egia hutsa da Freinet-erakaspiderik ez dagoena; alegia, erregela-mordo bat hartu, eta hitzez-hitz A-tik has eta Z-raino, eta liburu bati hertsiki loturik, jarraitu behar den erakaspiderik ez dugula. Gudan ez dago alde zurreratik eta gizaro guztietarako neurtutako aurrerapiderik, ikastalde guztientzako eta maisu guztientzako berbera.

Erakaspena «intelektuala» izanez gero, hitzezkoa,

haurren eta erakasleen bizieratik kanpoko; eta bere itzalaren oinarria, hain zuzen, erlijioek bildu izan duten bezala, nahaspilatik eta pratikatik at, eta gure jokabideen gorabehera material eta materialistetatik at egotetik bilduz gero, orduan bai, orduan antzinako tankerako erakaspideek aurrera jo lezakete.

Baina oinarritik abiatu nahi badugu — eta jokabide honen beharra frogatzen eta baiesten ez gara gaur gu bakarrak — haurren inguramendutik eta esperentziatik nahi badugu irten, haurren eta erakasleen funtsezko beharrak abiaburu jarri nahi baditugu, kultura izanari itsatsia eta lotua ikusi nahi badugu, eta eboluzioaren eta ekintzaren akuilatzaile eta gidatzaile, orduan guk geuk behar dugu aurrenik giza-inguramendu horretan murgildu, inguramendu horri dagozkion teknikak erabili. Talde batetik bestera aldatu egingo dira; eta, gisa berean, ez dira berberak Bretanian, Probenzan eta Parisen izango; ezta Urtarrilan Maiatzean bezalaxe erabiliko.

Jakintza goitik erortzen eta liburuetan biltzen omen den sinesteak kaskaildu ez bagintu, gure kezka hau normala irudituko litzaieke gurasoei eta erakasleei. Egokitu eta eguneratu nahi horrek badaramazki halere bere hutsuneak: erakaslearen eginkizunari zabalera handiegia uzten dio; eta funtsean aholkuak, zuzenketak eta lan-egintza gotor bat behar ditu. Eskolaren berrikuntzaren eta antolamenduaren arazoa jartzen da horrela lenenengo mailan; eta erakasleen egokikuntza ere bortizki nabarmenerazten. Nola egin? Nundik has? Kaso honetan edo hartan nola joka?

Berrikuntzaren beharraz ongi jabeturik dauden erakasleei Ariana-ren hari bat eskain ezin bagenizaie, askatu ezinezko lirudike arazo honek; baina hari hori

emanez, nork bere kasoan biderik onena aurki eta hauta dezake.

Ariana-ren hari hori ematen saiatuko gatzazkizue, beraz.

Eta gazteei gatzazkie bereziki. Probenziatako talde-etan lehen, gure tekniketari usatutako lagunak, Ariana-ren hari hori edukirik, Eskola Berria argitzen duen izpiritu hau goratzen abiatu zitzaizkizuen, eta eskolan eguzki apur bat ditzira-arazten dutela esaten.

Zaila, ordea, eguzkia ditzira-araztea.

Eskola Berriaren gogo horren jaiotza ikusi nahirik, erakasleak ditzira-arazten omen duen eskola horietara biltzen zintzen zuek. Hots, hura ere zuek bezala, ostarte igarokor batzuk ager zitezzen saiatzen zen, baina eskolastikaren hodeiek laister estaltzen zituzten. Hobe dugu, pentsatzen zenuen, gure eskuetan dagoen ostartetxoa, geure eskoletan sekula ikusiko ez dugun oskarbi zabala baino.

Eta egia zenuen.

Beti halabeharrez eta ez-ustean asmatzen duenaren aholkuak jarraitu-nahi horretan, ordea, arrisku ezin-larriago somatzen dut; eta gauza bera, zu bezala bilatzen eta behaztopatzen ari diren lagunengana joan nahiago horretan. Beren aurkikundeak zuei ulergarriago izango zaizkizuen ustea, aitzekia hutsa da. Oso bildur naiz ez ote zaren irtengo matrikula eta jukutria bila, erakasleek betidanik elkarri azaltzen dizkioten jukutrien bila; eta horrela, zeron lanbidea onduko duzuela pitin bat, bai, elkarrekin egiten diren ahalegin guztiek aberasten du-

tenez gero; baina bildur naiz halaz ere «eguzkia ditzira arazten» lortuko ez duzuen.

Betiko adibidea hartuko dut berriro. Bildu zarete bizikletaren xehetasunak ikertzekotan, piñoiak eta abiada-ganbioak begiratzeko, eta oinarrizko oharketa horiek egin gabe bizikletan abiatzen dena ero xamar aurkitu dukezue; baita hasi-berriei gertatu ohi zaien bezala, sasietara joateko besterik izango ez bada ere. Honek ez du, halaz ere, inoiz txirrindularirik geldiarazi.

Txirrindulari ikasi iaio hori duzu zeure lankidea: usuatuago edo hasi-berriago, eta xehetasun aski ezin emanik beharbada, ez du jakingo agian azaltzen piñoiak eta abiada-ganbioak nola erabili dituen; baina eguzkia nola ditzira-araz daitekean erakutsiko dizue, eta hau esango: «Egizu nik bezala, ez da oso zaila!».

Jukutria horietatik gerizatzen, eta izpiritua bilatzen eta eguzkia ditzira-arazten lagundu dizun horren ondoren, goazen orain gu zuretzako aholku pratiko batzuk ematera.

Berriz ere tresnaren behar gorria gogorazi behar dizugu; baita tresna hori gure tekniken barruan baliatzen jakiteko behar gorria. Horrekin batera, ordea, eta asaldu berberaz ekinez, beste hau diot: itxurazko mekanika soilaren mailatik gora jarraitu behar dela.

Erabiliak izatea besterik eskatzen ez duten indarrak ez zokoratzeko eskatzen dizut. Gure zerbitzutan dagoen tira hori ez dugu gelditu behar, ez itzuletara jarri. Aski dugu behar diren eskutilak behar den eran erabiltzea, eta geure lantegia triste eta zabarskote izatetik atera dezaketen loturak eta harremanak erastea.

Zaila omen da!

Hots, benetan guztiz zaila ez balitz, ez ziren jendeak gu etorri zai luzaz egongo, guk premia larriak agertu zai geldituko, ezta guk anitz urte honetan argitzen saiatu garen problema nagusiak garbitu zai geratuko.

## LAN BERRIAREN ERREGELAK

Dena horietan ditugu lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen omen berrak eta garrantziak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak.

Ikasleek beren erregulazioaren arabera ematen dira. Erregulazioaren arabera ematen dira. Erregulazioaren arabera ematen dira. Erregulazioaren arabera ematen dira. Erregulazioaren arabera ematen dira. Erregulazioaren arabera ematen dira. Erregulazioaren arabera ematen dira. Erregulazioaren arabera ematen dira. Erregulazioaren arabera ematen dira. Erregulazioaren arabera ematen dira.

Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak. Hona hemen lan erregulazioaren erregulak.

## LAN BERRIAREN ERREGELAK

Denok ezagutzen ditugu lan eskolastikoaren errege-  
lak. Geure gatzaro osoan barrena egon gatzazkio loturik,  
eta oraindik ere hertsiki errespeta-arazten dituzten era-  
kasleak ugari dira. Erakaslearen ikaskaia da kuntza, eta  
eskola-liburua laguntzaile nagusia. Harekin elkar adi-  
tuta, liburuak ematen ditu beharrezko azalpenak, gogoan  
hartzeko laburtzapenak eta egiteko ariketak. Egiazko  
maisua eskola-liburua dela esan daiteke benetan, eta  
oso maiz erakaslea ez dela morroina eta zerbitzaria  
baizik.

Ikaskaiak denbora-zatiketaren arabera ematen dira:  
gizabide, irakurrera, hiztegi, gramatika, karkulu, kondaira,  
geografia, zientziak.

Itxuraz erraza da. Esku-liburu guzti guztiak oso eder-  
ki aurkeztutzen dira; pentsaeraren beraren ibilbidea se-  
gitzen omen dute; eta etsaminetara eramango duten  
aurrerapen horiek neur ditzakete.

Koska bakar bat (baina gaitza gero!) horretan guztian: sistema horrek ez du haurra berotzen eta interesatzen. Haurrak ez du funtsabiderik ikusten, zertarako ari den ez du ulertzen, ez du xederik ez helbururik somatzen, eta hori dela bide parte hartu gabe gelditzen da. Ez da egarri. Badakit, bai: hau ez zaie axola zenbait gurasori eta kontrolariri. Egarri ez bada, aski du halere edatea, eta egarria ondotik piztuko zaio! Nora ginjoazke bestela hurrei laket zaienaz besterik egin behar ez bagenu! Ondo jaioak ginake! Hori baino aisa gogorragoa da biziera!

Haurren ardura ez duena mintza daiteke horrela, agian. Baina egun osoan klasearen erdian zaudenean; eta lehendabizi pentsatzen eta gauzak adierazten ikasi beharko lutekenei, irakur-arazi diezunean, gauzak aldatu egiten dira zuretzat. Borondate ona baina oroimen txarra duten ikasleei gramatika-erregelak eta definizioak buruz ikas-arazi behar dizkiezunean; karkulua konpreni-arazten, eta haurrengandik txit urrun gelditzen den kondaira azaltzen dizunean; eta haurrek berek bizia ikertu eta aztertu beharrean, zientzia-ikaskaiak ikasarazi behar dizkiezunean, orduan zure iritziak oso dira aldatzen zugar.

Karta-trukea dago. Txiriboginak bezero mordo galanta bazuen; baina jaki-zerrendan oso dotore eskeintzen ziona, ez zen batere kilikagarria. Eta inork ez du nahi orain hartakorik.

Bi soluzio daude, noski: bata jakiak ontzea, eta janariaren lerrokada hobetzea; bestea, berriz, bazkaldegiko giroa ontzea, eta honen bidez jateko gogoia zuzpertz eta indartzea. Bigarren honetan gaituzu Eskola Berriaren aldekoak.

Bizieran inork hautatzen ez duen soluzioa ere badago, bezeroa espakarazi egingo lukealako: bezeroari maite ez duena irents-araztea, nahi-ta-nahi ez; eta, enkas, politziadun gizarteetan bezala, betebeharrak hori bete-arazteko, zigor-ilara luze bat prestatzea.

Bazirudien eskolastika honen kontrako epaia betirako emana zegoela, eta ondotik zekazkien zigorrak berdin. Baina buruz ikas-arazteko saiaketa atzerakoiak berriz hastera behartzen bide gaitu, eta berriz ere tradizioaz eta aginpideaz besterik ez duen pedagogi-mota hori salatzen.

Ordain-sistema gertu dago, ordea. Gure pedagogiak badaduzka gertu bere tresneria, bere teknikak, bere tradizioa eta bere erregelak. Jakina «Uniprix» delakoak eta artesaniako denda apainek ez dutela elkarren eite handirik. Hastapenean harritu egiten du beharbada, baina piskanaka jende xehearen neurriko merkataritza hori nagusitzen hasia da.

Arau eta erregela horiek gogorazi nahi nizkieke gazteei bereziki ikastaro-hastapen honetan, Freinet-Eskola bat nola ari den azalduz. Ez da eredu hertsia bat, beste lan-tankera batzuk asmatzeko oinarria eman dezakean prototipo bat baizik.

Aldez aurretik hau: errotik erauzi ditugu maisu-erakatsaldiak. Hauen ordean, eta atzekaldetik bezala, nola egiten dugun azalduko dizut. Betebeharrak hutsak diren ariketak, era berean (alegia, eskolako betebeharrak kutsuaz egin behar izaten diren lanak) zeharo erauzi ditugu. Ahalik eta gehienik funtsatzen dugu geure ekintza osoa, beti arrazoinak eta zertarakoak agerrera.

Goizetan, eta eguna hasteko, kantu apur bat: aldean



aurretik aukeratutako haur batzuek kantatzen dute (bartzutan berek asmatutako zerbait), eta segidan denek batera kantuzko arrapostua ematen.

Zortzi t'erdietan, barrura.

Beren zai  $21 \times 27$  orrialde zuri bat dadukate haurrek. Ekonomi-arrazoinengatik orri guztiak baliatzen ditugu, baita alderdi bakar bat baizik zuri ez dadukatenak ere. Aldez aurretik hautaturik zeuden bi haurrak beren lagunei orrialde edo olerki bat irakurtzera datozkie. Arte horretan, beste erakasleak librokari ari dira marrazten. Marrazkia egiten ari direlarik adi ditzakete; baina, jarrerari edo entzuteko tankerari dagokionez, ez ditugu beharitzen aditzen duenaren modura jartzera. Pasadizu guztiz berri bat duten ikasle batzuek beren oldezko izkribua idazten dute.

Hamar bat minutuz irauten du horrek. Marrazkiak biltzen dira. Hautatu behar diren bi marrazkiak azkar hautatzeko eskatzen zaie orduan ikasleei. Bi marrazki horiek bilduko zaizkio klaseko «Biziera-Liburu»ari; beharrezkoa baldin bada, egunean barrena osaturik eta orrazturik.

Zer da, ordea, denei gomendatzen diegun ikastaldeen «Biziera-Liburu» delako hori?

Har zazu  $23 \times 30$  ohol bat, eta izari bereko kartoin-orri bat. Egin itzazu bietan bina zulo zulakailu «standard»-aren tartean. Hiruzpalau zentimetro luzerako buloin bi eros itzazu, eta pieza horien lotkia gisa erabil.

Egunean egunekoa sartuko duzun liburu-azal pare

bat badadukazu, beraz: marrazki ederrak, inprimatutako izkribuak (edertuta ahal delarik), inprimatu ez diren oldezko izkriburik onenak, eta oharketen eta saiaketen txostenak. Zenbait hilabeteren buruan, «Biziera-Liburu» hori beterik dagoke. Azaletik atera, eta inprimatzaile batengana eramaten da; eta honek, gratatzaile ukaldi batez, bilduma egiten du.

Bestela norberak presta dezake etxen.

«Biziera-Liburua», horrela, hutsik dago, eta beste sail bat biltzeko gertu.

Bederatziak laurden gutxi dira. Oldezko izkribuari erasotzen diogu orduan. Astelehenetan ezik, dena dela. Astelehenetan «Gure Bizia» deritzan izkribua prestatzen dugu elkarrekin, bukatu-berria den asteko bizia azalduz, eta hastera doan asterako eginkizunak gertatuz.

Gure artean, gurasoekiko gutun gisa baliatzen dugu «Gure Bizia» delakoa.

Zenbait larunbatetan lan-planak xeheki aztertzekotan erabiltzen denbora-tartea. Pratikan, horrela, astean hiru olde-izkribu egiten ditugu, eta hauez gain asteleheneko orrialdea.

Arbelean burutzen eta orraztutzen da, hortaz, olde-izkribua. Hurrengo artikulua batetan azalduko dugu erakaslearen partearen zein den izkribu horien prestaeran.

Bidenabar, hiztegia begiratzen dira hitzak, eta gramatikazko eta sintasizko oharrak egiten. Gero «Hitzen ehizea» hasten da; alegia, izkribuak gogorazten dituen hitzen azterketa, eta gramatika apur bat ere bai.

Osatu behar diren lerroak banatzen dira. Lehenengo taldeak lanari ekiten dio.

Une horretan lanaldi zaila hasten da: bizpahiru haur moldiztegi-mahainean ari dira, beste batzuk txandaka irakurtzen dute izkribua, eta denek kopiatzen dute, eta gramatika-lana egiten.

Besteek baino lehenago bukatzen dutenak, lan pertsonalean barrena abiatzen dira. Eginkizun honek guztiak 10-15 edo 10-30-ak arte irauten du. Segidan, karkulu bizia eta karkulu-ariketa batzuk egiten ditugu ordu erditsu batez. Eta 30 edo 45 minutu gelditzen zaizkigu planean arabera erabiltzeko.

Ikasaldiaren lehenengo parte hau (honi ekin nahi diogu) denen eskuarrear dago, eta programaren eta ordu-taxuketaren beharren arabera moldatua da. Aski da markatzea: frantsesa, idazkuntza, irakurrera, hiztegi, gramatika. Urrutirago ez bagoaz ere, karkuluarentzako, kondairarentzako, geografia edo zientzientzako oraindik ere esku-liburuetara jotzeko beharra nabaitzen baldin baduzu ere, zeure eskolan Eskola Berriaren parte funtsezko bat egin dukezu. Eta gero aurrerago joango gara piskanaka.

Hona hemen orain nola erabiltzen den eguneko bigarren partea.

Guk denbora-erdi gisako eskola bat daramagu. Ordu bietatik laurak arte, egintza desberdin asko dago planean barruan: eskola-telebista, margotza, ebaketak, lantegi-lanak, maketak, baratzaintza, eta beste.

Bostetatik zazpiak arte, berriz hasten da klasea, eta honela jokutzen:

17,00 - 18,00: Planaren arabera, lan loturagabea: izkribu-inprimaketa, kideentzako gutunak, eta abar.

18,00 - 18,30: Egindako lanen txostena.

18,30 - 19,00: Hitzaldiak.

Zertan ikas dezakete gugandik ordu normaletako eskola arruntek? Hau egin dezakete:

13,30 - 14,30: Planaren arabeko egintza libroa.

14,30 - 15,30: Planaren arabeko ikaspen eta bilaketan ondotikako ikaskaiak.

15,30 - 16,30: Freinet-Eskoletan bezala (ikus, beraz, goraxeago).

Ordu-banaketa eta lan-taxuketa berri hauek saia itzazue, horrela eskola berri horretan denentzako onargarri diren araudiak presta ditzagun.

## HORRA HOR UZTA!

*Kontrolariak ingurraztiak begiratu ditu: idazkera zaindua da, lerroak xuxen-xuxen erregelaz marratuak, ariketak gorriz eta usaiako kasu-hitzez nasaiki apainduak eta hornituak.*

*Eta kontrolariak pozik mintzatu zaizu honela: «Horra hor fruitua! Horra hor uzta!».*

*Ez du eskatu ikaslerik ikustea, eta hauek lanean ikustea ez zaio axola gainera: aski ditu ingurraztiak.*

*Ikasleen gizabide eta hiritar heziketa, Fraitziak behar dituen ikertzaile-gaien matematika eta zientzia-*

-sena, antzinako gertaeretatik gaurkoak somatzeko eta biharkoak prestatzeko behar litzakean kondaira-ikutua, geografi-zentzua, arte-gaitasuna, sortzapenerako dohai-nak, ausardia, askatasuna... bost axola hari! Aldez aurretik prestatutako esanerakoek (diktadoek) maila gorako lilura uzten dute; zirriborrorik gabeko problemek, era berean, arbeletik xuxenki kopiatuak izan direlako, oso iritzi aldekoak biltzen dituzte.

Ministerio-zuzenbideek, ordea, arimarik gabeko Esko-letako sasi-jakinduria gaitzesten dute, eta heziketari ematen diote lehentasuna, pertsona-heziketari. Baina Kontrolari jaunak ez daki horretaz zipitzik. Honek ingurraztiak kontrolatzen ditu. Eta ingurraztiok errege bihurtzen. Eta aitak, liluraturik, ez dio semeari galde-tuko: «Zer egin duk gaurko egunean? Zer eraiki duk? Zer eman duk?»; baizik-eta: «Erakuts egidak heure in-gurraztia!».

Goitik beheraino, horrela, gezur hau nagusi: «horra hor uztal!».

## **LAN-TEKNIKA BERRIAREN GAILENTASUNA**

Geroztik arazoa agerian dago.

Etengabe esaten eta birresaten dugunez; gure eskolak erruz ugalduta dira, eta edonork ikus ditzake gaur gure ondorioak; eta horrela aisago hedatu da bestelako erakaspide bat posible den sinestea.

Geroztik eskolastikaren erakaspidea ez da tabu.

Berrikuntza abiatua da.

Berrikuntza hori, ordea, ezin da egin piskanaka baizik, eskoletan tresneria berria (nekez eta saiakuntzaz prestatua eta findua) sartu ala, baita langile izango direnak berak hezi eta gertatu ala.

Oraindik ere luzaroan nekazariaren egoeran egongo dira eskolatzailleak: alegia, bere tresneria eta teknikak

berritzeko beharra sendituz, bai; baina honengatik edo hargatik — erosketa-kastuak handiegi, lekurik eza, teknika-ezaguera oraindik murriztegi — bere ekintzaren parte txiki bat baizik ezin berrituz.

Gainerako lanetarako nahi-ta-ez heldu beharko ditu antzinako tresnak eta hezpideak. Nekazaria egiazki jabetu baldin bada tramankulu zaharren eskasiaz, eta erakusketak eta katalogoak arretaz begiratzen baldin baditu, tresnen bikoiztasunak ez ditu haren aurrerapenak geldiaraziko. «Tratore hau, edo uzta-gailu hori eduki-tzean»...

Arte horretan, aski du nekazari horrek laborantza-bikoiztasun horren bidez aurrera segi ahal izatea, eta gainditu diren tekniken bidez baino uzta hoberik biltzea.

Pedagogian, era berean, baita sail bikoitzaren ple-guan, antzinako eskolaren fruitua gainditzen dugu aisa. Gailentasun nabarmen honek, gaur ukatu ezina, gure tekniken arrakasta gero eta handiago izatea azaltzen du.

*Gailentasuna Frantsesaren erakaskuntzari dagokionez:* esku-liburuak, betebeharrak eta ikaskaiak guztiz bakanka erabiltzen ditugularik. Berritutako sailean hau baliatzen dugu: oldezko adierazpena, eskola-kaseta, gutuneria, txostenak, hitzaldiak, liburutegian taxuturik dauden liburuak eta aldizkarien irakurrera; gure bilgailu berezietan bildurik daduzkagun 400 «B.T.» delakoak, eta haurren eskuetan eta zerbitzutan jarri ditugun paperak eta liburuak, gure oharak, eraskinak eta guzti bertan.

*Gailentasuna Kondairaren erakaskuntzan.* Antzinako erakaspideez baino hobeki egitea ez da zaila, alajainetan, alor honetan... Lehenengo mailan batez ere (go-

gorazi beharrik ba ahal dago?) gaur arte erabili izan diren esku-liburuak ez ziren berri-pilaketa egoskaitz bat baizik; eta haurrek ez zuten beretan fitsik ere ulertzen.

Hau frogatzeko aski genuke mentura hutsean edozein liburutan edozein orrialde begiratzea, nahiz liburua orain dela gutxi argitaratua izan.

Gure teknikei dagokienez, eta nahiz guztiak ez erabili, lan sakona egiten dugu geure kondaira eta kondaira-aurreri buruzko bilaketak, inguramendu-azterketan, zibilizazio-kondairan, eta abar; eta laguntzaile on gertatzen zaizkigu «B.T.»-a eta fitxategia, ebaketak eta dioramak; eta, gidari gisa, hiru liburuska: Lobjois-en «Recherche préhistorique»; eta Deléam-en «Recherche Historique» eta «Connaissance du Passé» delakoak.

Urte-amaian, bestalde, eta Deléam-en liburuska-sorta bukatutakoan, geure «B.T.»-en ehunkada bat baliatuz, geure «Kondaira Saila» eratuko dugu, eta pedagogia-gertakari benetan aparta izango da.

*Gailentasuna Geografiaren erakaskuntzan.* Alor honetan argiro erakusten dute esku-liburuak beren izana: pasatutako tresnak dira, lurra doi-doia karrakatzen eta hazkatzen duten lanabes kamutsak. Guk aldiz, geure B.T. ugarien bitartez, geure foto-sorta ederrez (fitxategian taxutzekoak), nolanhiko aldizkari grafikotatik lortu ditugun dokumentoez, geure maketez eta planoiez, erakaskuntza bizia eta ekarkorra lor dezakegu.

Geure zerbitzutan dadukagu horretarako Elkarteko Eskola-Fitxategia (21 × 27 moldurakoa), eta honetan taxutzen ditugu ikuskari-sortak eta ebakitzen ditugun



fotoak, gero Touring Club, La Vie du Rail, eta beste anitzetan kartoinen gainean ezartzeko.

Zinema, telebista, diapositibak (baita orain gure BT soinudunak) erakaskuntza honen lagungarri bikainak dira, jakina.

Teknika hauek halere ez dira aski zehaztuak izan. Freinet-Eskolan izendakizun diren hiru erakasleak izandakoan, berriz, kapitulu hau burutzen saiatuko gara.

Geografiaren alorrean, noski, gainerako alorretan baino nabarmenkiago, denen eskuetan dago berrikuntza. *Zientziak-sailean teoriatzko gailentasuna*

Alferrik da gogoraztea: oharketa eta saiakuntza ditu oinarri zientzien erakaskuntzak. Hots, honetan hau guztia falta zaigu erakasle garen aldetik:

a) Gure eskolatzaille-gaitasuna. Eskolan eman zaigun zientzia-ezaguera liburukoia — baita E.N.-an hartu dugunak ere — gaizki prestatu gaitu harkaitzak eta landareak ikasteko eta berezteko, abereen eta zomorroen ohiturak ikertzeko, izakiak taxutzeko, haurrekin zientzia-senaren oinarria bera diren oinarrizko saiakuntzak egiteko.

Hain bait da eroso esku-liburu bat hartu, eta jakin behar dugun guztia bertan izkiriartzea; eta dena zikindu gabe, arrabotsik egin gabe, hodiatxorik puskatu gabe, eta zomorroek gu ausiki gabe.

Zientziatzko esku-liburuak, ordea, ez ditu gertatzen ez zientzia-izpiritua, ez egiazko ezaguera eta jakinduria.

Saiakuntza-ahaleginik xumeena bera duzu horretarako hobe.

b) Tresneriaren eta saiakuntzen finketa. Eskolako saiakuntzak aipu direlarik, denok eginak edo egiten iku-siak ditugun saiakuntzak dira mintzagaia, eta hauek, jakina denez, ez digute ezertarako balio izan.

Oinarrizko zientzia-erakaskuntzaren alorrean dena dago bilakizun eta aurkikizun. Zimenduak bilatu behar dira berriz, zimendu horretxetatik abiatu gero, eta haurren eskuarrerako oharketa eta saiaketa-sorta luzea eman behar da argitara, haurren beren berezko jakin-minean eta bizian oratuz.

*Gailentasuna Karkuluan.* — Zenbaketa-mekanismoen jabekundea lortzeko, badaduzkagu guk bat-bederarentzako fitxa auto-zuzengarriak, lau operazio nagusien eta funtsezko problemen euskarri (baita orain banda programatuak ere).

Matematikaren sena lortzekotan, «karkulu bizi» bat findu dugu; eta hau esku-liburuetako ariketekiko, oldezeko izkribua irakurgaien liburuekiko den gauza berbera da. (Orain, gainera, badira «Ateliers de Calcul» eta «Atelier Mathématique» bandak).

*Gailentasuna, azkenik, eta oso-osoa, marrazkitza, margotza, eta Arte-kulturaren jabekuntzari buruz.*

Harrigarriak dira sail honetan lortu diren ondorioak.

Aski litzake ikastaro hasera honetan, gure eskolara etorri-berri direnen marrazki ahulak, zuri-beltzez eginak, karrajoko paretan batetan ipintzea. Eta aurrez aurre he-

mendik hiru hilabetera ikasle horietzek egingo dutena jartzea.

Orduan harro-harro esan ahal genezake, garbikin-aluntzio ezagun horretan bezalaxe: «Lehenago — Ondoren».

Erakusketak, diapositibak, eskola-ikustamenak aurre-ra joan ala, zerorrek hautatuko dituzu zeure lan-ereduak, hauek zeure eskuarrean izango bait dituzu.

Horretan ongi eta arras irabazia da partida. Bere izena aitortzen ausartzen ez den eskolastikak, bere munstrokeriak eta itsuskeriak izkututzen ditu lotsaz. Guk, berriz, ikurrinen antzera inarrostean ditugu geure eginak.

Haurren marrazkiaren eboluzioa gero eta azkarrago egiten ari delako, gure Elkarteak 1957-ko Urriatik 1958-ko Ekainera zazpi tonelada kolore-hauts saldu ditu; eta, Iraila-Urria hartan bakarrik, 5 tonelada zeduzkan saldurik; alegia, haur-marrazkiz zenbait kilometro zabal betetzeko hainbat.

Gaur ongi finkaturik dauden ekintza horiek bere itzazu zuk zeure ondoan. Eta garaitzapez bizkorgarri horietzek areago sinets-araz zaitzatela, guk geure denbora galduz azal eta froga genizaizukean guztiak baino. Mintza bitez gure ordeztu gure eginak.

Gero eta ekarpen handiagoa bilduz erabil ditzagun geure tratore osatuak. Egin ditzagun manaiukorrango, errazago eta eskuragarriago. Oraindik ere lurra beren laia arkaikoaz nekez goldatzen eta iraultzen dutenen

garaia heldu da; laster jasoko dute hauek burua, uztak alderatuko dituzte, eta beren makinetera igoko dira.

Kementsu gugana bilduko dira orduan! Eta, agian, prestatzaile garen zuzi-laisterketa honetan aurreratu ere egingo zaizkigu.

## ERAIKITZAILE PENTSAKERA

*Eraikitzaile nago beti.*

*Lerro-lerro landatutako eskualdeak baino nahiago ditut nik larre-zoko zakarrak aldatzen eta biziartzten duten lan-lekuak, oihanean haur-taldea bezalatsu ausarki eta zabaleren betetzaille. Batimendu eroso, konfordun eta sistemakorrak baino maiteago dut nik goitik behera neronek eraikitzen dudan estalpe apala; eta hau neure joeren eta beharren arabera moldatzen dut. Pitin bat soineko horiekin bezala gertatzen da: gure keinuen eta gure biziaren moldera jarri dira, eta haietatik bereztea ezina izaten bait da.*

*Ni eraikitzaile nago.*

*Jende guztia bezala: presaburu bat edo txabola bat eraikitzen duen haurra bezala, aldamiotan txistuka ari den igeltseroa bezala, itxura berriak sortzen dituen eltzegilea bezala, edo mekanikari bizi ematen dion mekanikaria bezala. Eraikitzen ez den alorrean, heriotza nagusi. Eraikitzeari ekiten ez dion gizona, galdua da: biziak garaitu du, eta hildako iraganari begira, ez du arratsa baizik nahi egunean.*

*Presta itzazu eraikitzaile-belaun berriak. Aldamioak*

altxako dituzte, beren jitezko dorre zorrotzak jasoko dituzte zeruruntz, eta kosmoaren izkutuak urratuko dituzte.

Eraikikuntza-tresnez horni zazu zeure eskola: eraikitzaileen, aldamio-muntatzaileen, ijeneruen eta misterio argitzaileen tresnez, alegia. Baita zure eskola beti eraikikuntza-leku gisa egongo bada ere; ez bait dago eraikikuntza-lanlekua baino gauza ederragorik.

Badakit: eraikitzaileak beti egoten dira behean, oruan; eta zeure batimendu-muturrean erramu ospatsua jartzeko poza ezagutu ez duzulako, desordenua eta ezintasuna salatuko dituzte zugan. Murruak ez dira mortairuz estaliak, leihoak ez dira oraindik hetsiak, eta beharbada estaietako paretak ez dira hasi ere egin. Baina beste batzuek zure ondotik — maizterrek berek ere bai, berengan eraikitzaile-pentsakera piztu baldin baduzu — jarraituko dute etxearen txukunketa.

Ez dago ezer zoragarriagorik eraikikuntza-lanleku bat baino; batez ere lanleku horretan gizonak eraikitzen direnean.

Eraikitzaileek ulertu eta lagundu egingo zaituzte.

## **EZ AHAL DIRA ZAILEGI TEKNIKA BERRIOK ? EZ AHAL DA ESKOLATZAILE APARTA IZAN BEHAR ?**

Izpiritu baikoiari beti gertatzen zaio itsusi eta erre-zelo-iturri berritasuna. Beti gertatu izan zaio hau berri-tasunaren ekarleari. Gure gurasoek lehenengo txirrin-dulariak bi gorpila hauskorren bizikletatan ibiltzen ikusi zituztenean, orekari ausartatzat hartu zituzten. Haga bat besoetan hartu soka tinkatu baten gainetik ibiltzea be-zain arriskua zitzaien. Horretan garaitzeko txapeldun aparta izan behar itxuraz.

Hots, gaur, gure haur guztiek — den-denek, trebeek eta trebe ez direnek — badakite bizikletan ibiltzen, eta oinez doazen segurantzia berbera dute.

Geure herriskan, era berean, lehendabiziko auto-xoferrak ikusten genituenean — hauteskunde-bidaian deputatuaren laguntzaile — erdi-jainkotzat hartzen geni-

tuen. Gaur berriz, legezko baimena emango balitzaio, zazpi urtetako haur batek gidatuko luke auto bat.

Gisa da, hortaz, bere klasera sartzean zezen-plazara bezala sartzen den erakaslea; alegia, indarrez eta lausenguz nagusitzera, eta haurren buruetara sartzen oso zailak diren gauzak erakastera, gisa da, diogu, lasai eta konfiantzaz beterik eskolara agertzen den lankidea, txapeldun harrigarritzat hartzea. Pedagogiak abstrakto eta izkututzat presentatu dizkigun ideiak, tolesgabe, bortxarik gabe, irribarrez, egiten duen bezala erakats ahal izateko, benetan behar da txapeldun izan; intzizu bat ere izan behar dela deritza, haurrengandik, beti bihurri eta elkor, horrelako izkribu inprimaturik, horrelako lino grabaturik, eta horrelako margorik eta apaingarririk lortzeko; eta kantuak eta olerkiak jaio-arazteko.

Guk, berriz, bizikletan ibiltzea bezain erraza dela diogu, eta *denak* irits daitezkeala; eta jendeak ez gaitu sinesten, baina ez da saiutzen ere ia esaten dugun hori egia ote denetz bere buruz begiratzen.

Noski! Bizikletan ibiltzeko, ongi dabilen makina bat behar da, eta aurretik, errepiderik ezean, bide egoki bat bederen behar da.

Gauza bera guk. Jakina, igo ditzakegun makinak eduki behar ditugu batetik, kurrizteko modukoak alegia, eta, eskolan eta geure inguruan, geure aurretik ikus ahal izateko zabalgunek bat behar dugu. Bistan da hau. Baina haurrak kaiolatan sarturik ezer onik egin ezin daitekeala denek ulertu duketelarik, ezta kaiola horiek apaindurik eta desinfektaturik daudenean, biziaren atea zabalduko dira, eta orduan gertatuko da miraria.

Tradiziozko erakaspideak honengatik dira zailak: hari zuzentzailerik ez dutelako.

Bide nagusirik gabeko oihanak bezalakoak dira: anitz bideska badute, nahasirik, munoen eta harkaitzen araberak elkartzen ala urruntzen. Frantsesezko ikaskai bat azaltzeko nola egin esan zaizu; baina zientziak edo karkulua azaltzeko zeharo beste alde batetik jokatu behar omen duzu. Ikaskizun sail bakoitzak badu bere erakaspide berezia, eta hori bera ere esku-liburuek, era berean, zeinek bere aldetik eta modura hartzen dute. Hor bai hamalau berbera izan behar dela lasai ibiltzeko. Eta geure burua galduta ikusten dugunez gero, dakigun bezala egiten dugu azkenean: ikaskaitik ikaskaira, ez beti etorri bikainez emanak; eta buruz ikas-arazitako erretolikez, nahiz laister hauen aztarna bakarra hitz batzuk gorabehera izango badira ere.

Edozein berezko erakaspide, berriz, ibileraren edo mintzairaren jabekuntza eta ikasera bezain ximplea eta erraza da, eta edonork garai dezake osoki. Aski du erakasleak etsenplu egokirik eskain ahal izatea, gurasoek beren seme-alabei etsenplu aproposak presentatzen ahal izatea aski duten bezalaxe.

#### ERRAZAGO ETA XINPLEAGO DA GAURKO ESKOLATZAILE MODERNO IZATEN, ANTZINAKO MOLDEKO IZATEN BAINO

Koska nagusia, esan dugunez, ondoko honetatik dator: baita eskolatzailerik gorenak eta hoberenak berak oso markesturik daude, eta ikaskuntza nahasten duten urrats okerrak egin ohi dituzte. Aski litzake, ordea, heziketa berriaren gogoia uler eta sendi-araztea, heziketaren alorrean segurantzia osoan aurrera zaitezen.



Ez dugu adierazi nahi edozein eskolatzaille, batere prestaerarik gabe eta berez gisa, *berezko* erakaspidea-  
ren araberrako eskolatzaille izan daitekeanik: prestakera  
da aldatzen, ordea. Oro har, dena dela, eta heziketa  
arunt bat izanez gero, errazago eta xingleago da es-  
kolatzaille moderno izaten, antzinako moldeko eskola-  
tzaille izaten baino.

Beste eragozpen bat agertu da, halere.

Tradiziozko eskolatzaille izateko aski da frantses ona  
eta hutsik gabea idazten, eta egokiro karkulatzen eta  
irakurtzen jakitea. Etsaminetarako gai ez direlako, es-  
kolak zeharo ahazturik eduki dituen teknikak erdizka  
bederen ezagutzen ote dituzuen ez zaizu galdetu ere  
egiten; hala-nola kantatzen, musika-soinuren bat jotzen,  
edo antzerki jokatzeko eta panpinak eragiten ote daki-  
zunetz; ia esku-lanez iaioia ote zarenetz, inprimatzen,  
grabatzen, marratzen, margotzen, lanabes bat presta-  
tzen, saiaketa bat egiten, harkaitzak, zomorroak, landa-  
reak eta loreak ezagutzen erakats ote dezakezunetz.  
Honetaz guztiaz deusik jakin gabe izan zaitezke gaur  
erakasle.

Heziketa berriak, ordea, biharko gizona prestatzen  
du; eta honek, mundu ez-ezagunari ihardukitzeko, ehun  
korda beharko ditu bere bibolinean.

Aski litzake, ordea, berriz ere, baloreak berriz az-  
tertzea, eta dagokigun hezikera moldatzea. Ez uste izan,  
halere, gure artean ekarkor izateko unibertetsala izatea  
behar-beharrezkoa denik. Hau, gainera, ezinezkoa iza-  
ten da maiz.

Baina haurrari orain guk utzi nahi diogun parte

berriak, gurasoei egin ahalko diegun deiak, makinan erabilketak (foto, zinema, magnetofono, disko, eta beste) gure eskolagintza konplejo zailean lagunduko gaituzte; zailtasun honen beharra, eta biziari erantzuteko ausardiaren premia baldin badituzu bederen.

### HASI-BERRIA DEN ERAKASLEARI, GOMENDATU BEHAR AHAL ZAIO ESKOLA BERRIA?

Orain arteko kezak eta zenbait kontrolarik egin ohi duen galdera, gauza berbera dira funtsean, eta honetara bil litezke: erakasle berriei gomendatu behar ahal zaizkue gure teknikak, ala debekatu?

Arrazoin sendoak aurkitu uste dute kontrolariek beren buruei galdera hori egiteko. Arrakasta izateko ez da aski antzinatikako erakaspideak hartu eta baztarrera botatzea, eta gure tekniketan barrena abiatzea. Ezinbestezko prestaera-maila izan behar da. Gauza bera litzake bestela forja-ikasle batek bere aitaren lantegi apala hankaz gora bota, eta hau esatea: ni banoa fabrika batetan lanegitera. Xinpleago da, eta gehiago irabazten da. Bere lanbide berriaz batere jabeturik ez badago, ordea, peoin baino ez da izango; eta arrisku handitan gerta litekean makina hauskorrik ez zaio kargutan utziko.

Guk geuk ere, ikastaro-hastapenean, ez diegu gazteei eskatzen bapatean eta aldebat esku-liburuak, ikaskaiak eta betebeharrak oro zokoratzeko, eta erabat gure tekniken arabera abiatzeko. Ezta ikasaldi bat egina dutenean ere, ikasaldi hori heziketa urria bait da.

Baliteke, bai, ongi irtetea; baina hori berezkuntza

bat litzake, arrisku-iturburu gerta liteke, eta gure ikasleek horren ondorioz sofritu egin lezakete. Ez dugu geronek ere horrela jokatu geure saiaketetan. Tresna berriak prestatu ala, erasotzen genion teknika berriari. Geure dokumento-piloa ongi ugari eta horniturik izan arte, ez dugu alde batera utzi zenbait sailen ikasketa zaharra — kondaira, geografia eta zientziak, batez ere —. Ez ditugu hitzaldiak osoki eta normalki erabili, esate baterako, fitxategiaz gain, eta aski beterik, Lan Liburu-Sorta bat izan arte. Eta ez dugu zeharo erabiltzea proposatuko, behar ditugun fitxa-bilabideak milaka (oso laister gertu, guk uste) buruturik eduki arte.

Gure tekniketan poliki eta saiakuntzaz hezitako erakasle batek, beste eskola batetan izendatua izanez gero, pedagogi-iraultza egin dezake, horretarako prestaturik bait dago. Gainerakoei buruz, berriz, betiko gure leloak balio dezake: «Ez laxa eskuak, oinaz ikutu arte»; poliki joan, zeure teknika-aukeren eta inguramenduen arabera abiadura har zazu.

Errazegi da, usadiorik gabeko gazte baten lurjotzea ikusi, eta erakaspide osoaren lurjotzea oihukatzea. Guk geuk bederen ez dugu horrelakorik hartu nahi geure gain.

Beste muturreraino joatea, halere, ez da bidezkoago.

Batzuek diotenez, Freinet-Tekniketara etor ahal izateko, aurretik urte batzuk pasa behar dira teknika zaharretan, eta horrela abiadura emana izan. Gauza bera litzake beste hau: hobeki moldatuko dela ajustatzailea, aurretik artesano batekin lanean ari izana bada. Artesano batzuek, halere, teknikaren eta gizatasunaren alderdian beste lanetarako oinarri izan daitezkean kul-

tura bikaina eman ohi dute. Ez bait da eskola zaharren kaso; honek ez bait du ezertan inolako heziketarik ematen erakaspide berriei buruz. Alderantziz, oraindik ere barrurago sar litzake erakasleak, ordurako ikasle gisa eta erakasle gisa, eta aski sarturik eta markaturik antzinako erakaspideetan, Eskola Normalean gainera «ikasiak» bait ditu. Makur batetik jaregiteko ez da erabili egin behar hain zuzen, baina makurra zertan den argituz eta aienarazteko ahalegin kementsuak eginez.

Ez, beraz: ahalik eta laisterrenik irten zaitetz tradiziozko bideetatik. Azkarrago eta hobe. Ez trika; berehala berantegi izango delako. Tradizioaren eta ohitura-kerien saltsan harrapatua izango zara, eta kitto: ezin askatu izango duzu zeure burua.

Ez zazu baztarrera utz badagoena. Ez zaitetz abia mentura bila, zer gertatuko otean, eta mito-ketan. Joka zazu saiakuntzaz, nahi-ta-ezko zeure haztamuek haurrak sobera min-har ez ditzaten. Egon zaitetz jakinaren gainean, egon zaitetz Fraitziako gure probentzi-taldeekin harremanetan, eta ondoko herrialdeetako multzoekin; gure teknikak darabilzkiten eskolak bisita itzazu, zoaz ikastalditara. Gure teknika mordo zabalean, hauta itzazu zeuretzako egokienak direnak.

Guk beheretik gorako lerrokada bat eman dizugu, baina aurrerapide hori ez da inolaz ere ikutu ezina. Abiadura ere ez dugu markatu. Ausarki sar zaitetzke lehenengo urtetik beretik, edo zenbait urtetan barrena eboluzioa luzatu:

- oldezko izkribuak, eman dezagun, hauek hitz-ehizeaz eta gramatikaz ustiatuz,

- eskola-kaseta limografoz (honetarako, noski, limografoa erosi eta erabili behar da),
- eskolarteko gutun-trukea,
- marrazkia eta margotza,
- eskolako moldiztegia,
- hitzaldiak,
- lan-planak,
- karkulu bizia,
- lantegiak,
- magnetofonoa,
- ageriak.

Teknika horien xehetasunak ikasteko, ikus gure sorko liburuak: «Bibliothèque de l'Ecole Moderne» eta «Dossiers pédagogiques» liburuskak.

Hala gertatzekotan, eta zulo batzuk kukutzeko, ez zaitez bildur izan antzinako moldeetara jotzeko. Programa burutzeko egizkitzu horrela kondaira edo zientzia ikaskai batzuk; baina zer espero dezakezun aldez aurretik jakinda. Etsaminak hurbiltzean, egizu horrelako saio bat, baina jakizu ere aurretik zer balio dizaizukean.

Kakoa hau da: ez zaitezela engana, ez dezazula zeure burua tronpa eta ez zaitezela zeure ikasleei iruzur-egiten saia, ez ditzazula baira beraz. Esaiezu jator: etsamina pasatzeko eta diploma biltzeko, hau ta hori ta hura jakin behar dituk, nahiz biharamunean denak ahaztuko badituk ere.

Guretzako munta duena ez da gure tekniken arrakasta azkarra ala geldia; baina prestatu eta zerbitzatu nahi dugun Eskola Herrizalearen aurrerapen premia-tsuak.

## GIZONA LANGILE

*Bere abereak aurreratzen edo jarraitzen dakien arztainak, baita baketan eta lasai alatzten eta bazkatzen jartzen dakienak, horretantxe darakuski bere artzain izana eta dohaina. Orduantxe da artzaina artzain.*

*Horrez gainera, halere, keinu agintzaileez gain gogetarik egin badeza, bere buruarekiko solas bakarti horietan esperentzia eta zuhurtzia bil baditza; edo, bere kezkek kanporago emanaz, zerua, hodeiak, landareen biziera eta alimaleen ohiturak mia eta iker baditza; horrela eginez jakintsu bilaka badadi edo, bere labanaren punttan bere sortzeko poza jarriz, arbola-azalak urra, zula eta graba baditza, orduan kulturaruntz egin dezake pausu bat. Orduan Artzain Gizon bilaka daiteke.*

*Eskatzen zaizkion gauzak zenbatzen, pisatzen eta ematen ditu gure dendariak. Ez genekien inkaminaria zenik. Nork erakatsi ote dizkio inkaminariaren izkutu-kiak, eta ez dakigu nungo sutautsaren gorabeherak? Arratsean, bere lan-eguna bukatuta, bere lanbidea baino gorago jotzen duen arteari ematen dio; itxura denez, etekinik ematen ez dion ekintza-molde bati, ez bait du horretatik sosik biltzen. Baina hori eginez, eta dendari mailatik gora, bere kultura apurra iristen du; eta balore aparta lortzen: horri esker bada Dendari Gizon.*

*Gure hauzoak lanak ditu bere loreak pikatzen eta inausten, eta bere krabelin-berotegiak salbatzen. Gogoz saiatzen da, egia da, baratzain iaioa izaten. Baina euri-aldietan, berinen atzean eta aihen ihartuen azpian, marratu eta margotu egiten du; eta igandeetan, bere zaldikotea hartuz, badoa kolore eta bizi bila. Hori duzu haren kultura. Eta sortu eta zabaldu nahi horrek, Baratzain Gizon egiten du.*

*Zure hurrek, era berean, keinuak, sinuak, ikurrak, eta eskolak ikas-arazten dizkien teknikak ikastea, gisakoa da; eta gauza bera biharko egunean bulegoko lanak, edo nekazari eta langile-teknikak ikastea. Behar berberak bultzatzen du artzaina bere artalde zaintzera, eta baratzaia bere adimenaren eta gizarte-senaren arabera-ko loreak eta fruituak lortzera. Ez bitez izan, ordea, ikasle huts. Beren lanbideaz bestaldera lerra eta isur bitez, eta horrela oraingoz baliorik ez duten pentsaerak, keinuak eta ekintzak irits bitzate. Ez dituzte hauek beharbada inoiz sosetan neurtuko, baina horietxek dira kultura-beharretan zoragarriena denaren betetzailleak. Alegia: Gizonaren zerbitzuko heziketaren ikur ohoretsua.*

## ZENBAIT EGIAZ ONGI JABETZEA

Eskola-liburu eta ikaskaien gure kritiketan, beti gogorazi dugu talde-erakaskuntzaren fruitu urria. Nagusiak bezala haurrak ere ez du ondorioz lanegiten, fruitu lortzen lanegiten beraz, bakarka baizik; edo gehienez, talde txiki eta moldebakarretan.

Betebeharren eta ikaskaien antzinako erakaspidearen arabera, haur guztiek gauza bera eta denbora-epe berean egin behar dute. Horretarako, laisterregi joan litezkean ikasleak moteldu egin behar ditu erakasleak, nagienak itxaron, eta hitz batez erdibideko puntua bilatu, nahiz honek ikasle taldeko banaka batzuk baizik moldatzen eta laguntzen ez baditu.

Pertsonalki eta nork bere aldetik egin beharra den lanean, berriz, nork bere abiadura darama. Mozkina, horrela, denentzako da % 100-koa. Lan pertsonalak, bes-

talde, ez du bere burua betetzen; sistema logiko trinko batetan sarrerazi behar da, alegia lan-bide edo sistema zabal batetan.

Hemen bi lan pertsonal mota aurkeztuko ditugu:

a) Lehenengoa, fitxa auto-zuzengarri bidez egiten da, ingurrazti auto-zuzengarriaz, edo banda eskolatzailuez. Alor honetan, beste askotan bezala, 1930-az geroztik harrotu ditugu bazterrak lehendabiziko fitxategi auto-zuzengarri delakoak prestatuz. Eta gure saiakuntza berretuz, zerorrek saia ditzakezu delakoak, eta alderdi onak zerorrek ikus.

Har zazue gramatika edo karkulu esku-liburu bat. Ebaki itzazu ariketentzako  $10,5 \times 13,5$  izarian kolore argizko kartoin puskak. Har zazu dagokion erakaslearen liburua, ebaki itzazu erantzunak, eta itsats itzazu kartoizko fitxa gorritan. Jar itzazu galderak, ongi taxutuak, kaja batetan, eta erantzunak (gorriak) beste batetan. Horra hor fitxategi auto-zuzengarri bat; alegia, fitxa horietxen bidez ariketak zuzentzeko modukoa, bere burua zuzentzeko gai, auto-zuzengarria. Honek, ariketa berberak eduki arren, askoz ere zinkiago erakarriko ditu ikasleak.

Espero ez genuena ere dakarkigu ariketa-molde honen: lehenengo aldiz konfiantza jarri dugu haurraren, eta haurra oso zaio sendibera jokabide honi. Bere burua gobernatzen du, eta erakaslearen begipe eta zaindaria etengabe eta ezpain-hestutik jaregina ikusten. Horra hor beraz delibero honen lehendabiziko arrakasta bat; baina beste bat ere badago, zaindaria gisa ibili beharrak gure jokabide osoa hondatzen bait du. Elkar-tekiro egina dugu fitxa auto-zuzengarri mordo handi bat



(karkuluaz, gramatikaz, idazkeraz); eta erakasleek berek osa ditzakete horiek beren gisara eta beren beharren arabera. Beste erakaspideek eskaintzen ez dituen ego-kibideak ematen dizkizu honek.

Karkuluzko fitxategiak ingurrasti auto-zuzengarritara aldatuak izan dira. Ikasle bakoitzak berea daduka, eta ariketak eskolan bertan edo etxen egin ditzake. Gaur badira, erakasleen zerbitzutan, argitaraketa merke batzuk, zoritxarrez ez beti pedagogiaren aldetik guztiz ongi prestatuak. Hiru urtez geroztik, fitxategi auto-zuzengarri horien lehenengo sorta, banda auto-zuzengarri delakoen bidez osatu dugu. Hauek, praktikari buruz, ia-ia helburua berbera dira, eta geure eskolagintzan beti tarteka sar-tzea pentsatu dugu.

b) Lan-mota pertsonal bat ere prestatu dugu, gutxitan auto-zuzengarria, baina talde-ikaskaiak kentzeko bide bat eskaintzen du: fitxa gidariak dira, eta *lan-bandak* bereziki (1). Karkuluaz, kondairaz, geografiaz eta izadi-zientziez batez ere. Hauen mozkina edo eman-kortasuna ezin daiteke alderatu ere egin ikaskaiek ematen dutenarekin.

Eragozpen bat bada, baina soluzioa aurkitu diogu: nork bere buruz egiten den lana, jakina, zailago eta korapilotsuago da. Hor ez dago esku-liburuen arrimu axala, orrialdeak pasa eta zertan garen ikusteko modukoa.

Lan pertsonal hauetarako, beraz, beste antolabide eta kontrolabide batzuk asmatu behar ditugu. Nola? *Lan-planen, lan-betekizunen eta «planning» delakoen bi-*

---

(1) *Banda programatuak dira, kondairaz, geografiaz, zientziez; eta karkulu eta matematika lantegientzako.*

dez. Azalpen tekniko horiek ez ditugu hemen xeheki aztertuko. Liburu batetara bilduak izan dira: «Travail individuel et programmation», Edit. Ecole Moderne - Cannes.

Eginkizun horretan, uste izaten denaz bestaldera, ez da zailena lanabes berrion erabilketa tekniko bera. Azalpen batzuen bidez ongi manaiatzen ikas daiteke; eta haurrak, askotan erakasleak baino iaioago, oso azkar jabetzen dira. Zailena hau da: *lan berri hau eta eskolan egiten den gainerakoa egokiro ezkontzea.*

Ongi hornitutako eskola bat izan dezakegu, moldiztegia, limografoa, fitxategiak, koloreak, bandak eta guzti. Eskolastika-gogoia atxiki baldin badugu, ordea, kontrakarrean eta desegokiro erabiliko ditugu maiz lanabes horiek. Zeure haurrengan ez duzu topatuko guk agindu dizugun jakin-min eta sortu-behar hori, lanerako kemen bero hori. Eta etsita geldituko zara.

Izpiritu aldakuntza horren beharra nabaitzen ez baduzu, Eskola klasikoarekin pozik baldin bazaude, ez zazu besterik bila: itxaron zazu. Egunen batez, ez oso urrun, pedagogian eta gizartean nahi-ta-ez gertatuko den eboluzioak ulertaraziko dizkizu aldaeraren zentzua eta garrantzia. Arte horretan, hobe duzu itxarotea.

Hona hemen, laburki, gogoan erabiltzeko oinarrizko ideia batzuk:

1/ ZURE HAURREK EZ DITUZTE SALATU OHI ZAIZKIEN AKATS ETA HOBEN GUZTIAK.

Akats eta hoben horiek ia beti eskolaren lepora jarri behar dira:

— Bere egitekoa argitzen eta funtsatzen jakin ez duzulako gertatzen zaie haurrei egin-arazten diezun horrek ez batere erakartzea;

— sobera luzaroan isil-arazi dituzulako gelditu dira deusik esaten ez dakitela;

— betidanik obeditzen, menegiten, kopiatzen eta idurikatzen atxiki dituzulako, orain berririk sortzen eta asmatzen ez dakite;

— zure erabidea eta kontrolabidea txarrak izan direlako bihurtu zaizkizu arrakero eta iruzur-egile.

Eta honen frokantza ekar dizaizukegu gaur. Eskola beste modu batera ikusiz gero, nahi-ta-ez izango ditugu haurrak jakin-minago, bilatzaileago, sortzaileago, leialago, jatorrago, bihozkorrago, eta gizarte-jokabide on bat lortzeko zaleago.

2/ ZEHARO ERAUZI BEHAR DUZU ZEUGANDIK HAURREKIKO AGINPIDEAREN TEMA, ETA HONEN LANGUNGARRI DIREN ZIGORRAK ETA SARIAK.

Hauen bitartez, jakina, hertsiki bortxatzen bait ditugu haurrak geure esanak betetzer.

Demokrata zara, nik uste: beti izaten bait da demokrata erakaslea. Benetan uste duzu zuk nork bere burua gobernatu behar duela. Politikaren mailan autodeterminazioa onartzen duzu. Zeure eskubideak errespetarazteko, opor ere egin duzu. Biziki untsa da. Aldiz zeure haurrei ez diezu inolako eskubiderik aitortzen. Zu jabe zara, eta haurrak jopu. Beharbada zeure burua garbi-

tzekotan hau diozu: gazteegi dira oraino beren buruz gobernatzeko eta jokatzeko. Kasu! Gauza bera esan ohi zen esklaboez; eta gaur bertan ere horixe entzuten da.

Saiakuntzazko frogantza eman dizaizukegu, ordea: gutxienez nagusiak bezain gai dira haurrak gizarte-keran bizitzeko.

Zeure saialdiaren hastapenetan, eskola zaharrak markatutako haurren aurrean gertatuko zarelarik, ordenuari eta taxuari eutsi beharrez, molde gogorretara eta aginpidezko moduetara jo behar izatea gertatuko zaizu; erarik gabe ez bait dago, aitor dugu aurreraxeago, ezer onik lortzerik. Gogorik gabe egingo duzu halere, eskolako tankera bereziarengatik egiten duzula pentsatuko duzu; baina haurra hezteko, esku gogor bortitz horren beharra dagoenik sinetsi gabe.

### 3/ DAKIENAREN ETA EZ DAKITENEI ERAKASTEN DIENAREN ANTZERA JOKATUKO DUZU.

Beharbada besterik zen antzinan; baina gaur gai askotaz guk hainbat dakite hurrek (nahiz erdipurdi ezagutzen badituzte ere). Ezin dizaiokegu ez-ikusirik egin bidaien, irratiazen eta telebistaren ondorio diren aldakuntza horri.

Diren bezalakoak hartu behar dituzu haurrak, esku-liburuen eta ikaskaitzarren garaian zirena ahaztuz, eta gaur dakitena oinarri hartuz.

Horretarako, noski, zeure lan-bidea ikertu beharko duzu.

4/ GAURKO GURE HAURRAK EZ DIRA INUNDIK ERE MENDE-HASERAKOEN KIDEAK. JAKIN, ULERTU ETA JOKATU EGIN NAHI DUTE.

Interesatzen ez dituen ikas-arazten eta nahi luke tena debekatzen badiezu, gero eta hetsiago jarriko zaizkio zure erakaspenari, eta beste bidetatik bilatuko dute bestelako kultura-mota bat.

5/ EZINBESTEZHOTZAT DAUZKAZU ZEURE ERAKASALDIAK. HAUEK ERREGETZA ETA ITZALA EMATEN DIZKIZUTE.

Zure hurrek, ordea, ez dute deusik konprenitzen; azaldu egin nahi diezu, baina zure azalpenak hamarretatik bederatzitan alferrik dira. Zure hurrek konprenitzen dutelarik, lehenagotik ere konprenitua zutela seinale.

Oharketa eta saiakuntza dira eskolatzaile. Besterik ezer ez. Gainerakoa lilurak dira.

Gero eta modago den programaketa, bestalde, ikas-kaiak eta azalpenak zeharo kentzera doa.

Oraindik ere ikas-maila eta talde gehien-gehienetan (ia denetan) erakasleak egiten duen erakatsaldiak dirau oinarri. Gero, esku-liburuen bitartez, horren jabeak eta lanketa eskatzen da.

Hots, guk galdutzat dadukagun ideia bat dago horretan guztian gidari: azalpenen bidez uler-araziko zaizkiela hurrei teoriok, eta gero beretuko eta «nortuko» dituztela eskuliburuak eta ariketen bidez.

Argi-eta-garbi esatekotan hauxe ahaztutzen dute: ikaskai baten ideia nagusiak ez direla bilduma eta sintesia baizik, eta hortaz oinarri dituen tesien koroa gisa izan beharrean, bapatean eta funtsik gabe bezala presentatzen direla.

Makur tekniko hori ezin handiagoa da, eta zuzentzen saiatu behar dugu.

Ikas-alor guztietan, ikas-talde guztietan, jakintza-sail guztietan, ezagutza-oinarria, oharketa eta saiaketa jarriko ditugu gailen, horien bitartez sakontzen bait dira mota guztietako problemak. Aldez aurretikako lan hori burututakoan — egitea oso beharra da — erakasleak orduan «a posteriori» azaltzen du ikaskaia; eta horrela, oinarriak dituelako, oihartzun biziak jaio arazten ditu, dogma-kutsua gal erazten, alferrikako aginpidekeriak erazten, eta areago heziketa-elkarrizketa bilaka arazten.

Bilaketa eta saiaketa-lan hori guztia, teknika pertsonalen arabera ez bestera moldatu behar da; alegia:

— ezagutzaren eta operabidearen jabekuntza-lanetan, *auto-zuzengarrien* bidez;

— bilaketetan eta saiakuntzetan, *lanaren* bidez.

Lankera hau, geure fitxategi auto-zuzengarriak, fitxa gidariak, eta banda auto-zuzengarriak eta lan-bandak prestatu daduzkagulako, gaurdanixek abia daiteke.

«A posteriori»-ondoko ikaskaiak, sail hauetan dira bikainak:

— *Lilitegiaren mailan*. Hauetan molde zaharreko

ikaskai guztiak kendu ditugu, eta lanaren eta biziaren arabera egiten zaizkion galderak erantzun besterik ez du egiten andereñoak.

— *Lehendabiziko mailan:*

- karkuluarentzako, karkulu biziak lehendabiziko haztamu-aldien ikasiak biltzen bait ditu, eta gero erakasleak teknika-argitzapenak erasten.

- izadiaren zientzientzako, hauetan oharketak eta saiaketak bait dira oinarri, gainerako zientzia guztietan bezala.

- kondairarentzako eta geografiarentzako, ez bait dira hauek, gaur arte uste izan denaren kontra, hitzez biltzeko jakintza-sailak; baizik-eta gaurko eta antzinako giza-inguramenduaren ikertzapen arretatsua. Erakasleak, beraz, zehaztu egiten ditu ikertzapen horren ondorioak, baina ez besterik. Erakaskera honetan oso balio handikoak dira gure «B.T.» delakoak.

*Bigarren mailan*, aldiz, eraberrikuntza hau lantsuago izango da, erakatsaldien ohitura muinetaraino sarturik dadukagulako. Egonarriz igo beharko dugu aldapa, eta lotkiak lotu.

6/ MINTZALDIAK.

Eskolabide hau gaurdanik beretik sar liteke klase guztietan, hauek berriturik egon ala ez egon.

Noski: haurrak bidez eta egokiro mintza daitezkeala onartu behar da. Eta segidan beharrezko dokumentazioa jarri behar da haien eskuetan.

Hogei-ta-bost urte honetan eta elkarte-giroan lanean ari izanik, txosten-pilo horixe prestatu dugu: «Bibliothèque de Travail» deritzaguna. 5.000 eta gehiago erakaslek lagundu digute; eta sortak gaur baditu 620 liburuskara edo txosten, programaturik eta ederztaturik, denak lehenengo eta bigarren mailako haurrentzako idatziak. Ikasleek eta erakasleek moldatu dituzte elkarrekin; eta 620 ikas-gaitan, bilaketa erraztutzeko erruz balio dute, batez ere hitzaldiak edo delako mintzaldiak gertatzeko.

Badago ere *B.T. soinudun* sorta bat, diskoz eta diapositibaz eraskin gisa osatua, 25 gaitan; eta hitzaldion gertaera xuxena eta erraza da.

Lan pertsonaletan hitzaldia da pertsonalena. Aldez aurretikako lana eskatzen du: inkesta, galdera, aukera; eta begi-belarrizko teknikak erabiliz gero (magnetofono, foto, zinema-mintz, batez ere) lanabes moderno eredu bera da. Prestatu dugun oinarritzko tresneriaz baliatuz, berehalatik erabil daiteke klase guztietan.

Hitzaldiak, azkenekorik, maizegi eskola zaharretan ahozko adierazpidea zabartzera utzia, findu egiten du, azkeneko Ministerio-aginduek gomendatu-berri dutenez.

Jakina, astean hitzaldi pare bat egitetik has zaitetzeke, bidenabar-edo nolapait esateko.

Kontutan eduki beharko da, halere, betiko leloa: alegia, saiakuntzaz hezten direla hiztunak, eta mintzaldiak emanez beraz sortzen direla mintzatzaileak. Teknika honi zuk leku handiago utzi, eta handiago ere izango da zure arrakasta.



## 7/ BALIO-NEURKETA BAKAR BAT, NORK BERE BURUZKOA.

Gure pedagogia osoki erabiliz gero, notak eta postu-ilarak alferrikako bihurtzen dira. Funtsabideak aski azkarrak izanik, jukutria, maltzurkeria eta malezia horiek guztiak alde batera utz ditzakegu lasai.

Baina azken helburua da hori. Nahi-ta-nahi-ez, eskolaren sisteman notak eta postu-ilarak atal nagusi diren giro batetan bizi gara. Ezin ditzakegu poliki-poliki baizik ken; alegia, gurasoei eta administrazioari frogak emanaz sinetsarazi diegun arte. Baina noten neur-tzeari buruz badugu guk eragiteko bide bat, notak ikas-leek berek beren buruei eman dizaizkieten.

Uztaiozu notak zerorrek aginpidez emateari, epaikari edo diktadore gisa. Neurpide hirukunaren ideia onar zazu: *erakaslea / nota neurtu behar den ikaslea bera / ikasleen multzoa*. Saiakuntzaz ikasi dugunez, haurrek oso ongi juzkatzen dute elkar; zuzenkiago askotan, baita gogorkiago ere zenbait aldiz, erakasleak egingo lukean baino. Hau eginez erakasle/ikasle harremana hondatzen duen oinarri nagusietako bat ezabatuko dugu. Eta zure lanaren onetan izango da.

## **HONA HEMEN, LAGUN GAZTE HORI, EDONUN EGIN DEZAKEANA**

a) Aginpideak alde batera utziz eta talde-izpiritua sortuz, alda zak heure eskolako giroa: tauladorik ez, eskolako elkartearen erakundea segidan, lan-multzoak, galderak eta mintzaldiak, paretetako kaseta, ikasleen araberako elkarte-planak.

Sosik batere eralgi gabe egin dezakek hori guztia. Eta bere barruan daraman gizon zaharraz erantsiz gero, edonork egin zezakek. Oraindik ere erraza zaik: ez daramak soineko hori aspaldidanik jantzirik.

b) Haseratik beretik, lot itzak eskola eta bizia (bide ofiziala duk hau, gainera), eta eragin itzak in-guramenduaren azterketak. Bizian barrena eskola abiatzeko, hau duk biderik onena: *Oldezko Izkribua*. Hau ere ofizial eta legezko bihurtu da, eta gure garaitza-penik handienetako bat izan duk hain zuzen.

Ohar bat halere. Inoiz etsita ez egoteko, jakin zak eze eskolarteko kidekuntzak eta eskola-kasetak funtsaturik ez badaude, Oldezko Izkribuaren erabilketa honek ez duela bere fruitu osoa ematen.

Balitekek, beraz, oldezko izkribu horiek beti txit aberatsak eta mota askotakoak ez izatea; baita batzutan haserako garra iraungitzea. Horretaraz gero, ez zak ahantz ezen ez dela oldezko izkribuaren teknika berez eskas, ezta errua haurrena ere, baina inoiz askatzaile gerta daitekean tresna-abiadura honen marketsa eta berria direla kaka.

Batere kasturik gabe obra dezakek hau guztia. Pedagogiaren aldetik, geure artikuluetan eta txostenetan azaldu dugun eran ustiatuko dituk oldezko izkribu horiek; eta herorrek ikusiko duk gramatikaz, hiztegiak eta karkuluaz antzinan egin ohi ziren ariketa gazigabe aspergarri haiei, gatza eta piperra erantsi dizkieala.

*(Badaduzkak gaur, bestalde, heure eskuarrear, banda eskolatzaille programatuak. Hauen bidez banandu egingo duk lana, nori berea emanaz, eta horrela gogoa eta bultzarena piztuko dituk.)*

Kasu, ordea: ez zak oldezko izkribuaren inguruan beste eskolakeria berri bat egin. Bizia urritzen delarik, gure kotxearen karburatzailleraino gasolina heltzen ez denean bezala gertatzen duk: alegia, zapal dezakeala hik gogotik abiadura-pedala, manibela jira, edo berebela bera bultza; baina halarik ere kotxea ez zaik inolaz ere abiatuko. Hobe duk karburakuntza ikertzetik hastea.

Karburakuntza hori aisago lortuko duk eskola-kaseta

egin badezakek. Eskolarteko oinarri, kuntz eta lanabes, batera, ez gaituk sekula nekatuko eskola-kaseta hanpatzen eta gomendatzen. Honetatixek abiaturik ere, ordea, gogorazten diagu ezinbestezko tresnen behar hertsia.

Jakina: eskuz ezin egin dezakek eskolako kaseta: honetara ikaslerik hazienek kopiatzen dituzte ingurrazti batetan aukeratutako izkribuak, letra nagusitan ahal izanez gero; eta ingurrazti hori hilabetearen hondarrean eskola-kaseta bihurtzen duk. Hastapenean bero-bero hasten, baina segidan berehala ahitzen eta unatzen. Kideak, bestalde, ez dituk behin ere pozik; haurrak ez bait du maite, hau gauza segurua duk, eskuzko kasetarik, ezta polikopiaturik ere, ezta ederztaturik edo apaindurik ere; baina inprimatuaren bila, berriz, ezin sosegaturik lerratzen dela. Hori dela bide, dirurik ezaz, kaseta tiratzeko beharrezko tresnak eros ezin baditza-kek, zer nahi duk nik esatea? Ahal bezala egin zak, balio dizaikean artean molda adi eskuzko kasetaz, eta honen bidez lortuko duan erdipurdiko kidekuntzaz eta gutuneriaz. Noski: hutsa baino hobe duk hau, esku-iburuen teknika baino hobe segurki. Ez adi harri, ordea, harkaitzen azpitik pitin bat nagitzen eta behaztopatzen baldin bahaiz. Badakik zergatik den; eta han gain hartan beti garra ikus badezak, salba haiteke. Halako batez abiatuko haiz berriro.

Agian uste duan baino lehenago eta azkarrago abiatuko haiz berriro. Hire hurrek ere, era berean, somatu dikeate argi hori; eta agian eskolastikatik irteteko gogo biziagoa diate herorrek baino. Piskanaka piskanaka gurasoek berek ulertuko diate: defenditzen ditugun ideiak benetan bait dira ximple eta gizatar!

Orduan Elkartearen ingurutik jokutzen saiatuko haiz

(ikus «La Coopérative à l'Ecole Moderne» deritzan liburuan azaldu ditugun ideiak), eta Eskolak diru apur bat lortuko dik. Sinetsita negok oso gutxi direla benetan ezer egiterik ez dagoen herriskak eta hauzuneak. Gure lankideek azaldu digutenez, 170 biztanle duten herriskatan Elkarteak zehazki prestatutako jaietan milaka sartu izan dira liberak.

d) Diru piska bat duanean, baina ez moldiztegi bat erosteko hainbat, gogoan har zak «Elkarteko Eskola-Fitxategia». Hauxe duk gure eskolako bigarren habe nagusia.

Hasteko, beste batzuek eskierki egingo diaten bezala hau gomenda nizaiake hiri: haurren hitzaldiak, galderen karneta edo kutxa, eta abar. Bazekiagu, bai, zertaz ari diren; teknika horien aintzindariak geu izan garelako. Ez zak pentsa, ordea, «Lan-liburu Sorta» eta «Elkarte Eskola-Fitxategia» gabe bide horretatik oso urrutira joango haizenik.

«Lan-liburu Sorta» biltzeko, eskola-liburuak har itzak; eta ahalik eta azkarrenik erants egizkiek BT-txostenak. «Fitxategia»ri buruz, berriz, nola osatzen den ikasi ondoren, irten zaitezte denok dokumento bila, eta ingura itzak ere kolatzeko kartoinak. Ondikotz! Hauxe duk gaur galestiena. Has hadi, halare, eta ikusiko duk nolako interesa eta nolako balioa duten!

Dirua izatean, eros ezak gure «Fitxategi» delakoa. Milaka lankidek elkarrekin eta elkarte-gisan aurkitutako bidea duk horretan. Beren buruentzako eta beren eskolentzako laneginez, hitzaz pentsatu ziaten!

Nahi-ta-ezko lanabes horien zai hagoelarik, halere,

haurren hitzaldiak egitea zailegi dela nabaitzen baldin baduk, edo interesa urritzen ari dela, ez adi zur, eta ez adi ere horretan tema. Itxaron zak lasai, eta egiazko konponbideari buruz jar adi: alegia, heure eskolaren moldakuntza teknikoaren aldera.

e) «La Gerbe» eta «Enfantines» delakoek lagun hazakete. Hire hurrek zerbait berezirik egitean, balio berria bide duen zerbait denok elkarrekin burutu duzue, bidal ezaiguzue zeron lan hori. Gure aldizkarietan ager badadi, karburakuntzaren oinarria den funtsabidea bederen lortuko duzue.

f) Halako batez, nik uste, diru apur bat edukiko duk. Eros ezak orduan grabatzeko gure tresneria. Iku-siko duk nolako sua, nolako gogo, nolako gogo iraunkorra. Moldiztegiak emango dianaren kutsua dastaraziko dik horrek.

g) Bazekiat: maila horretan gaudelarik, gure izkribuak eta marrazkiak ugaltzeko tresna pratiko, azkar eta merke bat eskain ahal bagenizaie eskolei, konponduta huke arazoa.

Etsita egon adi hortaz, halere: ez zegok ezer horrelakorik. Gerla aurretik bazeudean polikopiatzeko oreak eta limografoak. Berriz gomenda aurretik, merkatuan salgai jar daitezen zai jarri behar diagu, eta ondorioak on xamar bederen gerta zai. Eskola-kaseta bat tresneria horren bitartez ateratzeko asmoa baldin baduzue, deslilura eta etsipen asko gertatu izan dela jakin behar bait duzue. Horiek, ordea, Eskolako Moldiztegiaren osakin bikainak dituk.

h) Ahalik eta azkarrenik, Eskolarentzako moldiztegi bat erosiko duk. Ez zegok honetan, sinetsita egon, ino-

lako erreklama-nahirik edo propaganda-setarik, ez artezik izkutu eta zeharkakorik. Saiakuntzak frogatu dik ez dagoela gaur gure eskola-beharrak betetzeko tresna egokiagorik moldiztegia baino. Ez dizkiagu berriz hemen ilaran emango haren hobariak eta alderdi onak.

i) Azter itzak Izadia eta Bizia heure inguruan, gaurkoa eta antzinakoa. Horretan, baita tresneriarik batere gabe gure Elkarteko-erakundearen barruan, eta gailurre-tako argi horrek argi dezan artean, lan ezin mami-tsuagoa egin dezakek.

j) Eta oinarrizko gure aholkuen ilarari amai emateko, hona hemen beste batzuk:

Sar zak heure burua gero eta barrurago gure Elkartean; sar zak heure klasea ere. Aurkitu edo borobildu duana iker zak, eta jar zak segituan Elkartean zerbitzutan: bila zak artxiboetan «La Gerbe» hornitzeko zientzia-fitxak, zinema-mintzak egiteko gaiak, eta gure teknologia-ikuslekuak betetzeko gauzak, denak inguru-nearen lekuko. Heure ikastaldearekin herorrek egin ezin dezakeana, agian gure Elkarteko langile gisa egin hezake. Horretara bada, erants ezak heure burua lan eta kontrol-talde horietako batetan. Gurekin lanegingo duk horrela, hasi ditugun bideak urrutirago eta gorago joaten iristarazteko. Ongi dakik hik bilaketa eta sorkuntza-lan hori zein den kemen-emale, batez ere talde trinko batetan egoteko segurantzia hori nabaitzen denean, eta horretan arima bat dagoenean eta argi bat etengabe diz-diz egiten ari.

Ene kezkek, eta ene esperantzak gauza bera, ongi ulertu baldin badituk, ez haiz horren aisa etsita geldituko; eta egun honetan edo hartan, tenore honetan

edo hartan, programei, ikaskizunei, etsaminei edo gura-soei men-egin eta amor-emateko, mamitsu zen lan bati utzi badiok ere, ez duk kuraia galduko.

Denok gaudek horretan. Larrikiago ala axalkiago, denok jasaten dizkiagu, eta onartzen, sakrifizio horiek. Gure mogimenduaren indarra eta guna duk, hain zuzen, absolutukerian ezer ez presentatzea. Bazekiagu gure teknikek berotu egiten dutela oso bolara batez, baina segidan etsiarazi egiten dutela; gure egiazko aukeren mailan ez daudelako.

Erakasle gazte hori: hire egoeran, gu guztion egoerara hobe, dauden erakasle guztien zerbitzutan eraikitzen eta jokatzeko diagu. Ez diagu guk Eskola besterik gabe hankaz gora bota eta itzulipurdikatu nahi: guk berriro egiten diagu, gaurkotu, moldaberriro; eta asmo horretan, lagungarri guztiak baliatzen dizkiagu. Antzinako Eskola dogmakoi eta hila, langileen Eskola berri eta bizi bihurtu nahi diagu.

## EZ ZAK AHANTZ, HALERE, HERRIAREN HEZIKETARI DATXEKON GIZARTE-MAILA

ESKOLA BERRIA EZ DUK KALAKAZ ETA BERRIKETAZ  
ERAIKITZEN

Beharbada urduri hago, halere, zalantzatan, artega, eskolabide berriak heziketa herrikoari kalte eta saldukeria egiten dizkiola irakurri bait dukek.

Eraso honek azalpen txiki bat merezi dik.



Lagun batzuek egia diate alde batetik, eta gisa duk «idealista» tzat bataia genezakean arriskua salatzea. Alegia, gizarte-eraketa berberarekin, ikasgu berberetan, lan-tresna berberak erabiliz, eta hornidura berberez baliaturik, Eskola horixe, izpiritu berri batek ikaturik, benetan alda daitekeala sinestea. Herriaren haurtzarora gaur mugatzen eta baldintzen duten arazo nagusiei errotik erasotzeko besterik ere behar diagu. Bazegok, beraz, arrisku nabarmen bat: pedagogiaren berrikuntza eta erakaspide soiletan begiak josi, gurasoek eta erakasleek arreta guztia arlo horretan jarri, eta oinarriak berak ahaztea; alegia, gure aberriko heziketaren ahule-ria funtsatzen duena: gizarte-baldintzapena.

Aspaldidanik egiten diagu guk geuk ere burruka her-sikeria horren kontra — aspaldidanik baino betidanik esatea hobe — eta Heziketa berrian pedagogia-arazo soil bihurtu nahi izatea behin eta berriz gaitzetsi izan diagu. Hain zuzen ere, alor honetan nahasketa guztiak baztertzeko bereziki jarri diagu geure lana mugagune honen barruan: *geure eskola herrikoia berrikuntza*.

Proposatzen dugun heziketa-berrikuntza jaio-aurreko eta lehenengo haurtzaroko ardurekin sortzen duk; era-kutsia dugunez, gure haurren heziketari buruz garrant-zirik handiena bait du urte horietako epe horrek. Eli-katura ona behar diate haurtxoek orduan, egurats gar-bia, behar hainbatez ibil ahal izatea; horra hor hezi-ketaren berrikuntza non behar den hasi. 1946-ko eskolak txabola-eskola kaskarrak hankaz gora botatzea adieraz-ten dik, eta horien ordezkari eskola-lantegi zabal argitsuak eraikitzea; eta gure lana eta ekintza ingurunean zeharo sartzea, gure eskola haren ispilu bihurtu arte.

Gure eskolabideen berrikuntza ez duk sekula izango

hil-da-biziko gogoeta funtsezko horien ondorioa eta ekarria baizik. Berrikuntzak etengabe gainditzen dik eskolako bereko giroa; eta gure pedagogia gizarte-lanez oratutako Herri-Eskolaren berrikuntza egiten.

Baldintza sakon horien guztien hobekuntzaren bidez, herriaren haurrek dituzten egiazko beharrei erantzunez, eta ez erakaspideak soilki aldatuz eta onduz (nahiz aldaketa hauek ezin egokiagoak izan) aurrera-araziko diagu geure eginkizun funtsezko; biharko gizonaren heziketaren arazo larria.

Horrelako eginkizun bat helburu, eskolastikaren itxurakeriak oro bazterturik eta kulturaren eta gizatasunaren giroan jarririk, borondate on guztien batasuna lortuko diagu dudarik gabe. Guri zegokiguk, eta ez besteri, geure elkar-lan horren funtsa eta egiazko arima azaltzea; eta, ondorioen balioaz eta neurketaz, zuzenestea.

Eskolatzaile guztiéi, eta hau irakurriko duten gazteei hitz bi bukatzeko:

Bukatu den ikastaro honen amaian geure lankideek bidali dituzten txosten ugariak ikertu berriak dizkiagu. Txosten horien guztien bilduma zuen begien aurrean para ahal bagenitza, zuetako inork ez liakek batere trikatuko bere eskolaren berrikuntza.

Bazeudek, noski, haztamuak, eragozpenak, tresneriarik eza, tekniken urritasuna edo gordina: gazteria beti higitzen duk horretan. Nolako suharra, ordea, nolako bultzada: haur-izpirituen ganbiamendu osoa, eskolarekiko gogo berritua, gurasoen onginahia, eskolartzeko kidekuntzaren poza, sortzeko eta lanegiteko zoramena.

Mendian bezala duk: harritsu bidea, zakua aztun, oskiak gaizki ferraturik; eta gauza ezaguna duk luzaz ibili beharra dagoela. Ez duk hori dena, halere: aide garbia hatsar zezakeagu mendian, bazterren eta uxolen edertasuna betets, belardiko gizentasuna goza, muxarraren deihadar zorrotza entzun, eta basa-fruitu batzuk dasta.

Egunsentirako iritsiko garelako goazik aurrera; lipar batez muno batetan eserita ibilitako-bidea neurtzeko, zelaiaren ederra miresteko, eta han, urrutian, zeruaren urdin gardena ikutzen duten tontor ederretara begiak jasotzeko, pausatuko gaituk.

Mendigoizaleen soka-taldekoak gaituk gu: talde indartsu, ausarta, eta ezin hobeki elkartu. Hogei urte honetan mendi-tontorretara igotzen segurantzian gida gaitzakean soka-taldea. Ez gure esperentziarik ezaz bildur, ezta gure ahuleziaz ere. Soka-taldeko beste bat izango zarete — iragana ikurrintzat presenta dezakean CEL delakoan — eta denok elkarrekin etorkizunerako bideak prestatu dizkiagu.

Tira, bada, orrialde hauek irakurri dituan lagun hori: hi heu ere gure mendigoizale-taldekoa izango haiz!

Idatz egiguk!

## GURE LANAK BATUKO GAITU

*Gure indarrak ahuldu, gure arteko nahasketak zorrotzu, eta makalei eta zalantzakorrei aitzekia emango dien gure arteko zatiketa honi, zer derizkiodan?*

*Errekatxoak zelaian zehar nekez eta poliki-poliki isur-*

tzen direlarik, oso nekez ere elkartzen dira, lur mo-  
korrik ttipiena gainditu ezinezko traba zaielako.

Menditik indartsu amiltzen direlarik, berriz, beren  
atzetik erakartzen dituzte enborrak eta harri gaitzak,  
eta hauek gelditu ezinezko ahari bilakatzen dira; eta  
horretaraz gero, ezerk ez ditu tenkeragiten eta gibe-  
latzen beste errekatarako beren bultzada bortitzean.  
Elkartuz, bestalde, are indartsuago ere bihurtzen dira.  
Isuria baztertzen saiatuz gero, memento batez gelditu  
egiten dira, bai; baina berehala erasotzen dute berriro,  
eta presaburu irrigarria eramaten.

Bultzada eta aldapa besterik ez da behar. Hauek  
gabe uxola istil geldi kirats bihurtzen da.

Gure uxola lana da.

Escolatzaileek badute oraindik bestek ez duen aban-  
tail nabarmen hau: giza-teknikak oraindik jatorrizko  
dohaina galdu ez duen sail batetan erabiliak izatea.  
Uxola hor dago, burrunbatsu, eta aurreruntz doa deli-  
beratuki.

Goizegi hesten dugulako gelditzen da zelaian. Gure  
eskuetan dago berriz ere maldan behera abiatu-  
ria, ahari bihurturik denari erasotzea. Aski dugu ba-  
tzutan ertzean gelditzea, eta honetatik zenbait zakar-  
ria leuntzea; aski dugu ere uren orroari eta habillari  
ohitutzea. Urak badoaz-eta, ezin eragotziak, emankor-  
tasunaren eta biziaren aldera.

Uxola horrekin abiatzen baldin badakigu, geronek  
ikusiko ditugu ertzetan betiko hiletariak ikaraturik, be-  
soak goruntz jasotzen, elkarrekiko gure abiaduraren  
aurka anitz oihu eta «kasu emazue» guri botatzen.

Ez joan baztarrera, honetan berehala harrapatu eta bilduko bait zintuekete basak eta lokatzak. Segi ausarki biziaren uxolan barrena.



Ez naiz ni maitasun-pedagogiagintzan ari, baizik-eta, lanaren bertuteen bitartez, bake pertsonalaren eta gizartekoaren pedagogiagintzan. Ez diotsuet nik: maita itzazue zeron haurrak; izan zaitezte on haiekin, eta zuen gizatasunak kutsatuko eta altxako ditu. Ez, bestalde, pertsona bikain aparta batzuek duten eragin ongile horretaz sinetsia ez naizelako. Baina ez natzaie ni horiei mintzo. Badakit nik bai zu, eta bai zure antza duten hezle prestu on guztiak, funtsean, eta sorkuraz bederen, hurrekiko onginahiz beterik zaudetela. Baina, desordenuan eta anarkian goizegi bakarrik eta zuen kasa utzi zaituetelako; eskola biloiz batetako ezintasunean, ez lekurik ez bizirik, zenbait aldiz argirik ere gabe, eta zentzurik ez dute erregela hestu zaharkotez estekaturik, utzi zaituetelako, berezko joera nasai hura urritzen eta hondatzen ari zaizuela erreparatzen duzue.

Ontasuna, maitasuna, betebeharretatik ateko hitz bihurtzen zaizkue; higuinak harrapatzen zaitue; ohikeria nagusitzen zaizue. Zuenak egin du.

Geure tresnerian alderdi gogoetagarrien bidez, geure erabide teknikoaren osotasunaren bidez, lanak berpiztutako gizaroan egiten dugun elkar-bizieraren gizauntzaren bidez, ordea, erdizka bederen iku bageneza gizonaren barne-oreka, besterik liteke; zeren-eta barne-oreka horrek grina makurrak uxatzen bait ditu, eta gizonagan dagoen bikainena zuzperten. Indarraldiaren pozak, ezagutzaren argitzapenak, gure indartasunaren

sendotzeak, berriz, ñir-ñir gisa behintzat, gure sendimena hunkitzen badute, gure jokabidea osorik gantiatuko da: aginpide zakarrari, kopeta hestuari, ohikeriari eta higuinari, berezko taxua, arrimua, ahaleginen elkar-keta, eta elkar-laguntza bihozkorra nagusituko zaizkio. Eta hauxe da guztia amodioaren obrakundean.

Konprenitzen nauzue, beraz? Eskola-emalearen bertuteetan konfiantza handiegirik ezarri beharrean, nik eskolako lan biziaren erakunde hobean eta honi datxekon hobekuntzan ezartzen dut neure esperantza nagusia; eskola gizartearen zelula delako. Antolaketa edo eraketa horretaz arduratuko zarete aurrenekorik: lanaren dinatasuna eta erregetza piztutzen saiatu behar duzue. Gainerakoa eskupekoz bezala errezebituko duzue.

Lanaren antolaketaren bide horretan lortuko dituzuen aurrerapenak oro, baita xumeenak berak ere, egiazko irabazpen bihurtuko dira. Nik, dena dela, kezka buruz aldatzera deitzen zaituet. Zuen heziketa kezketan, ez du gailen izan behar erakaskaiak, eman dezagun; edo liburuen mamiak, edo zuen betekizunei eta jokabideei buruzko ohar teorikoek; baina lan berriarentzako lekuen prestaerak, lantegietako erabideak, beharrezko lanabesen gertaerak (edo, beharrezko baldin bada, asmaerak), elkar-laguntzari buruzko gorabeherek, eta horrela eraikitako eskola-sistemaren abiadura leunak. Kultura berriaren egunsentia ikusiko dugu horrela, eta honek, lanaren erregetza aitorturik, ezarriko ditu lur zinduan bere zimendu berriak.

## **GIDARI ETA LAGUNTZAILE, LIBURU-SAIL BAT**

Osootasuna da Freinet-Pedagogia; alegia, funtsezko batasun bat lortu du, eta honetan elkar osatzen dute praktikak eta teorikak, biak aberasturik gertatuz.

Jakina, praktikaren alderditik has daiteke; areago, osoki abiatzeko modurik bidezkoena hauxe da, puntu nagusia den haurren biziarekin harremana lotuz. Bere «Ecole Moderne Française» liburuan hau idatzia du Freinetek: «Nagusiaren laguntzaz osatzen du haurrak bere nortasuna». Biziaren aldetik eraso behar zaio, beraz, pedagogiagintzari.

Freineten obrak hobari bikain bat daduka: ez ditu behin ere berezten eskolako pratika eta honen euskarria den pentsamendua. Ez du behin ere alde zurririk ematen; aitzitik, ekintzari segi-arazten dizkio juzka dezaketen irizpideak; eta gero ditu egiatik jario izan diren iritzi horiek filosofia bihurtzen.

Horregatik berregatik Freineten izkribuak, zein nahi den ere, beti egoten dira batera praktikaren eta kultura hutsaren mailan. Eta horregatik ere, haren izkribuetan lehendabiziko urratsa beti biziari ohi dagokiolako denak behar dira arretaz irakurri, Freinet Erakaspedetan eskolakeriarik gerta ez dedin.

Mamia azkarrago hartzeko, halere, Freineten lanen irakurrerari buruz aholku batzuk eman behar banitu, hauek gomendatuko nituzte hasteko:

- Frantses Eskola Berria
- Oldezko izkribua
- Eskola-Kaseta
- Mathieu-ren Esanak
- Berezko bideak hizkuntzaren ikaskuntza gisa
- Pedagogia herrikoi baten jaiotza

Baina — oso bereziki diogu hau — Freineten eta honen jarraitzaileen lana osoki ala erdizka oinarritzat hartuz, zeure pedagogi-saioan barrena abiatzetik beretik, zeure saiaketa horren kontra hobeki moldatzeko, «Les Invariants Pédagogiques» (= Pedagogiaren Aldakaitzak) deritzan Eskola Berriaren txosten-bilduma gomendatzen dizugu (BEM, 25).

Kontrol baten gorabehera denez gero, eta kontrol funtsezko batena gainera: zerorren erakasle-lanarena, hona hemen nola azaltzen duen Freinetek haren erabilkera:

«Eskola Berriaren Freinet-Teknikai, 35 urtetako saialdia iraganda gero, Fraitziako eta atzerriko anitz eskolatar, gero eta gehiagotara, sartzeko ordua heldu zaie. Sarrera osoaren eta sistemazkoaren tenorea da orain.

Horrelako erakaspide-aldaketa sakon bati (erakaskintzaren mailan egiazko iraultza bat bait da) eskola-emale berrien heziketa berezia dagokio, baita luzaroan eskolastikaren jopu izan diren zaharren berrikuntza.

Ezinbestezko berrikuntza hori Erresumak bere gain hartu artean, nahi-ta-ez erantzun beharko dugu geuk ahal bezala, erakats-maila guztietan gure tekniken bidetik abiatu nahi dutenei geure ahalean lagunduz.

Beroien fagoretan liburuska gidatzaile labur bat idaztea erabaki genuen: «**Nola abia?**»; eta hau, guk uste, aski izan zitekean lehenengo saialdietarako.

Orduan konturatu ginen emandako aholkuak urri ezezik, etorri-berriak etsi-arazteko okasio ere izan zitezkeala; eta hau gerta ez zekien, erregela zehatzagoez osatu beharko zirela haiek, teknika horien erabilkera eta gure erakaspidearen gogoia xehekiago azalduz.

Hain zuzen ere eskolastika zaharraren zimendua delako,



eskolako giroan eta tradizioaren arabera onarturik dagoen irizpidea franko (psikologian, pedagogian, teknikan eta gizar-tean) zalantzan jartzen erakatsi behar genuen.

Eskola-baliotasun multzo berri bat eraikitzen saiatu nahi genuke, gidari eta kezka bakartzat egiaren bilaketa, saiakuntzaren argia eta zentzua hartuz.

Idea nagusi eta gidari horiek oinarri (guk «aldakaitzak» bataiatuak, alegia: eraso-ezinak eta irmoak) **Pedagogi-Bilduma** tankerako zerbait prestatu nahi genuke:

— **aldakaitz** horien araberako pratiken bidetik egiten denari, **argi-berdea**. Eskolatzailleak lasai abia daitezke hortik arrakasta biltzeko segurantzian;

— **aldakaitz** horiek errespetatzen ez dituzten erakaspideei buruz, berriz, **argi gorria**; eta ahalean bederen zeharo baztertu behar halakoak;

— zenbait kasutan ongile, eta beste zenbaitetan kaltegarri izan daitezkean erakaspideei dagokienez, hirugarrenekorik, **argi laranja eta ñirñirkaria**. Hauetan zuhurki ibili beharko, laister bestetara igarotzeko esperantzan.

Erakaspide-ohar horietxen arabera emango dizkizugu aholku teknikoak berak, eta hauen bidez ahalik eta haztamurik eta arriskurik gutxienak gaindituz helduko zara helbururaino.»

Zeure buruaren berri emango dizu delako grafo horrek. Hona hemen Freinetek berak saiatua izan den ageri-bide hori aurkeztuzeko diona:

«Zeroren erakasle-egoera neurtzeko, eta ondoko puntu hauek ikusteko; alegia,

— ia zeure ekintzaren kontra agertu diren trabak menderatu ote dituzunetz, eta zer neurritan;

— argi gorrien aintzinean gelditu ez-ezik, saihetsetik edo bestetarik traba gainditzen ere ia jakin duzunetz, aurrerago errepidea aurkitu arte;

— argi laranja eta ñirñirkariak gertatzean, nola moldatu ote zaren halaz ere abilki sartzeko;

— argi berdeetan, nola jo duzun ausarki aurreruntz abiadura osoan;

ondoko grafiko hau beteko duzu. Honek lagunduko zaitu eskola egokiro eramaten, eta lana ekarkorrigo, libroago eta gizatarago jasotzen.»

Aldakaitza  
gorri  
laranja  
berde  
Aldakaitza  
gorri  
laranja  
berde

Freinet-Pedagogia, kultura-dei etengabea dela ohartu gabeen erasotzerik ez dago. Kultura horrek, lanaren eta egiazkoaren alaba delako; lanegitea, sortzea, eta beren biziari helburu bat ematea maite duten guztien eskuarrean dagoelako, beste funts berri bat daduka.

Kultura herrikoi hau zerbitza dezaketen giza-arrazoin guztiak, Pedagogiarentzako, Filosofiarentzako eta Zientzientzako garrantzi ezin handiagoa izan duten bi liburu nagusitan proposatu dizkizu Freinetek. Hauek dituzu:

- Lanaren Heziketa.
- Psikologia sendikorrari buruzko Saiakera.

Zerorrek hautatua duzun bidez horrela jakinaren gainean jarrita, jo zazu lasai aurrera Eskola Berriko zeure lagundiarekin elkarturik. Nazioarteko erakunde zabal eskerga horixe bait duzu FREINET gure gidari bakarraren pentsaerak — eskuzabal eta beti ere burrukalarari — hezitako anitz eta anitz eskolatzaileraren ohorea eta uzta.

E. F.

## HIZTEGI

ARRAKASTA: éxito, succès.

ABIABURU: punto de salida, point de départ.

ADIERAZMEN: facultad de expresión, expressivité.

ADIERAZPIDE: método de expresión, méthode d'expression.

BIZIGABE (TU): desvitalizar, dévitaliser.

BILAKABIDE: proceso evolutivo, procès évolutif.

BILAKA (TU): evolucionar, évoluer.

BEREZKO: natural, naturel.

BERRE (TU): repetir, répéter.

DOIBERA: propenso al matiz, donné à la nuance.

ELKARGAINKETA: yuxtaposición, juxtaposition.

ESKOLASTIKA: antigua técnica pedagógica escolar, ancienne méthode pédagogique scolaire.

ERAKASLE: profesor, enseignant.

ERAKASPIDE: método de enseñanza, méthode d'enseignement.

EREDU: modelo, modèle.

ENTSEGUZKO: experimental, expérimental.

ERAIKIKUNTZA: proceso constructivo, processus de construction.

ERREPIKA (TU): repetir, répéter.

FUNDIERA: destrucción total, destruction totale.

FUNTSABIDE: fundamentación, motivación; motivation.  
FUNTSEZKO: fundamental, fondamental.

GARAITZAPEN: victoria, victoire.  
GAINGIROKI: de modo superficial, superficiellement.  
GAINDI (TU): superar, dépasser.  
GIZARTE: sociedad. société.  
GIZATAR: humano, humain.  
GARRANTZI: importancia, importance.

HAZTAMUKA: por tanteo, en tâtonnant.  
HAZTAMUZKO SAIAKUNTZA: tanteo experimental, tâtonnement expérimental.  
HOBEKUNTZA: proceso de perfeccionamiento, processus d'amélioration.  
HIZKI: letra, caractère d'écriture.  
HOBARI: ventaja, avantage.  
HURBILKUNTZA: aproximación, approche.

IRAKURPIDE: método de lectura, méthode de lecture.  
IDURIKA (TU): imitar, imiter.  
INGURAMENDU: medio en que se desarrolla algo, environnement.  
IDAZKUNTZA, IDAZKETA: escritura, écriture.  
IRAKURRERA: lectura, lecture.  
INGURRAZTI: cuaderno, cahier.  
INKAMINARI: prestidigitador, pretidigitateur.  
IKASPEN: cosa aprendida, chose apprise.  
IDAROKI: sugerir, suggérer.  
IKASKAI: lección, leçon.  
ILAUN: brizna, sutil; brin, subtil.  
IKUR: signo, signe.

JABEKUNTZA: proceso de adquisición, acquisition.

-KUNTZA: sufijo verbal que indica el proceso de ejecución correspondiente al verbo, suffixe verbal qui indique le processus correspondant au verbe; acto de, acte de.

KIDE: alumno correspondiente de otra escuela, correspondant de l'autre école en rapport.

KIDEKUNTZA: puesta en correspondencia, jumelage.

LUMERO: cifra, chiffre.  
LIPAR: instante, instant.  
LOTKIA: relación, rapport.

MARRA (TU), MARRAZ (TU): dibujar, dessiner.

MARRAZKI: dibujo, dessin.

MOLDIZTEGI: imprenta, imprimerie.

NORGABE (TU): despersonalizar, dépersonnaliser.

NORKI: personaje, personnage.

NORKUNTZA: proceso de personalización, processus d'acquisition de la personnalité.

ONURA: rendimiento, rendement.

ONURATSU: provechoso, avantageux.

OLDEZKO: espontáneo, spontané.

OREKA: equilibrio, équilibre.

OHARKETA: observación, observation.

ONDORIO: consecuencia, resultado; conséquence, résultat.

ORO HAR: viendo la cosa en su conjunto, dans l'ensemble.

OROKOR: global, global.

SINATURA: firma, signature.

SENAZKO: instintivo, instinctif.

SAIAKUNTZA: experimento, expérimentation.

SORKURAZKO: congenital, pris à la naissance.

SUSTA (TU): promover, dar mística, incitar; promouvoir, maintenir.

URMAEL: estanque, étang.

ULERKUNTZA: comprensión, compréhension.

ZERTZELADA: circunstancia en que se produce un hecho, detalle; circonstances d'un évènement.

ZENBAKI: número, nombre.

ZEHAZTASUN: exactitud, precisión; précision, exactitude.

ZIRGILU: boya, flotteur d'amarrage.

ZUZENESPEN: justificación, justification.

ZITU: fruto, cosecha; récolte.